



IES TXURDINAGA BEHEKOA BHI

REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO (ROF)

ANTOLAMENDU ETA JARDUERA-ARAUDIA

IES TXURDINAGA BEHEKOA BHI

**APROBADO EN EL CURSO 1998 - 1999
REFORMADO PARCIALMENTE EN EL CONSEJO ESCOLAR DE 14-03-01
2ª REFORMA PARCIAL. CONSEJO ESCOLAR 27-05-2009
ACTUALIZADO EN EL CONSEJO ESCOLAR DE 01-03-2023**

**1.998-1.999 IKASTURTEAN ONARTUTA
01-03-14an, ESKOLA KONTSEILUAN BERRIKUSIA
09- 05 -27an ESKOLA KONTSEILUAN 2. ERAKDAKETA
2023-03-01ean ESKOLA KONTSEILUAN EGUNERATUA**

TXURDINAGA BEHEKOA BHIaren ANTOLAMENDU ETA JARDUERA ARAUDIA

AURKIBIDEA

	Orrialdea
SARRERA. AURKEZPENA.	5
1. artikulua.- Ikastetxearen identitate-printzipio orokorrak	6
2. artikulua.- Antolamendu egitura. Irizpide orokorrak	6
1. TITULUA: TXURDINAGA BEHEKOA BHIaren ANTOLAMENDUAZ	6
3. artikulua.- Gobernu Organoak	6
I. KAPITULUA: KIDE ANITZEKO GOBERNU ORGANOAK	6
1. atala. Ordezkaritza Organo Gorenaz (OOG)	6
4. artikulua.- OOGaren definizioa eta izendapena	6
5. artikulua.- Eskola Kontseiluaren atribuzioak eta eskumenak	7
6. artikulua.- Eskola Kontseiluaren osaera	7
7. artikulua.- Eskola Kontseiluaren funtzionamendu erregimena	7
8. artikulua.- Presidentearen eskumenak	8
9. artikulua.- Batzordekideen eskumenak	8
10. artikulua.- Idazkariaren eskumenak	9
11. artikulua.- Saioen erregimena	9
12. artikulua.- Eskola Kontseiluaren Batzordeak	9
13. artikulua.- Batzorde Iraunkorra	10
14. artikulua.- Ekonomia Batzordea	10
15. artikulua.- Segurtasun eta Higiene Batzordea	10
16. artikulua.- Bizikidetza Batzordea	11
17. artikulua.- Batzorde guztietarako arau komunak	11
2. Atala. Irakasle klaustroraz	11
18. artikulua.- Irakasle klaustroaren izaera, osaera eta eskumenak	11
19. artikulua.- Irakasle klaustroaren funtzionamendu erregimena	12
20. artikulua.- Klaustroko batzordeak	12
3. atala. Zuzendaritza taldeaz	12
21. artikulua.- Zuzendaritza taldearen osaera	12
22. artikulua.- Zuzendaritza taldearen funtzio eta atribuzioak	12
4. atala. Ikasleen Batzarraz, ikasleen Ordezkaritza Batzarraz eta Gelako Ordezkariez	13
23. artikulua.- Ikasleen Batzarraz	13
24. artikulua.- Ordezkaritza Batzarraren osaera eta funtzionamendu erregimena	13
25. artikulua.- Ordezkaritza Batzarraren funtzioak	13
26. artikulua.- Gelako ordezkariak	14
27. artikulua.- Gelako ordezkarien funtzioak	14
5. atala.- Guraso batzarraz, ikasleen guraso elkarteez eta ikasleen elkarteez	14
28. artikulua.- Ikasleen guraso elkarteak eta ikasleen elkarteak	14
29. artikulua.- Guraso batzarra	14
II. KAPITULUA: KIDE BAKARREKO GOBERNU-ORGANOAK	15
1. atala. Zuzendaria	15
30. artikulua.- Zuzendaria	15
31. artikulua.- Zuzendariaren eskumenak	15
32. artikulua.- Zuzendariaren ordezkapenak.	15
2. atala.- Ikasketa burua, Idazkaria eta Idazkariordea.	16

33. artikulua.- Ikasketa burua, Idazkaria eta Idazkariordea izendatzea	16
34. artikulua.- Ikasketa buruaz	16
35. artikulua.- Idazkariaz	16
36. artikulua.- Ikasketa buruaren eta Idazkariaren ordezkapena. Idazkariordearen funtzioak	16
36.-bis artikulua.- DBHko koordinatzailearen funtzioak	17
37. artikulua.- Ikasketa buruaren, Idazkariaren eta Zuzendaritza taldeko gainerako kideen kargu-uztea	17
II. TITULUA. AUTONOMIA PEDAGOGIKOAZ	17
38. artikulua.- Autonomia Pedagogikoa	17
39. artikulua.- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren (IHP) eta Ikastetxearen Kurrikulu Proiektuaren (IKP) helburu eta xedeak	17
40. artikulua.- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP)	17
41. artikulua.- Ikastetxearen Kurrikulu Proiektua (IKP)	18
42. artikulua.- Hezkuntza Proiektuaren eta Kurrikulu Proiektuaren izaera loteslea	18
43. artikulua.- Ikastetxearen Urteko Plana (IUP)	18
44. artikulua.- Irakaskuntza jardueren programa	19
45. artikulua.- Testu-liburuen eta beste kurrikulu-materialen erabilera	19
46. artikulua.- Prestakuntza ekintzen, ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko ekintzen Programa	19
47. artikulua.- Prestakuntza ekintzak	19
48. artikulua.- Eskolako ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak	19
49. artikulua.- Ikastetxearen Urteko Memoria	20
III. TITULUA. DIDAKTIKA ANTOLAKETA	20
I. KAPITULUA. IRAKASLE TALDEEN ANTOLAKETA	20
50. artikulua.- Irakasleak irakasle-taldeetan eta Didaktika departamentuetan kokatzea	20
51. artikulua.- Ikasle taldeak eratzea eta tutoretzak esleitzea	20
II: KAPITULUA. KOORDINAZIO DIDAKTIKOAZ	21
52. artikulua.- Irakasleen koordinazio organoak	21
53. artikulua.- Koordinazio pedagogikorako batzordea	21
54. artikulua.- Talde tutoreak eta irakasle-taldeak	22
55. artikulua.- Orientazio Zerbitzua	22
56. artikulua.- Didaktika departamentuak	23
57. artikulua.- Didaktika departamentuen eskumenak	23
58. artikulua.- Didaktika departamentu-buruez	24
59. artikulua.- Beste koordinazio modu batzuk	24
III: KAPITULUA. ESKOLA JARDUERAREN KANPO ESPARRUA	25
60. artikulua.- Ikasleen kontrola	25
61. artikulua.- Zaintzako irakaslea	25
62. artikulua.- Liburutegia eta beronen erabilera	25
63. artikulua.- Zereginak irakasleen artean banatzea	26
64. artikulua.- Ordutegien jendaurreratzea	26
65. artikulua.- Lokalen eta ekipamenduen erabilera	26
66. artikulua.- Eskola esparrutik kanpo irtetea	26
IV. TITULUA. IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK	26
67. artikulua.- Ikasleen eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko esparru orokorra	26
68. artikulua.- Ikasleek kalitatezko irakaskuntza integral baterako duten eskubidea	27
69. artikulua.- Eskola konpentsatzaile baterako eskubidea	28

70. artikulua.- Parte hartzeko eskubidea	28
71. artikulua.- Ikasleen betebeharrak	30
72. artikulua.- Ikasleak eskoletara etortzea eta garaiz iristea.	
Bizikidetzarako beste arau batzuk	31
V. TITULUA. EBALUAZIOAZ	34
I. KAPITULUA: PRINTZIPIO OROKORRAK	34
73. artikulua.- Ikaslearen ebaluazioaren helburu eta izaerak	34
74. artikulua.- Ebaluazioaren arduradunak	34
75 artikulua.- Ikasleen oinarritzko dokumentazioa	34
76. artikulua.- Ebaluazio prozesuaren garapena	34
II. KAPITULUA: IRAKASTE PROZESUAREN EBALUAZIOA	35
77. artikulua.- Irakaste/ikaste prozesuaren ebaluazioaren plangintza egitea	35
III. KAPITULUA: IKASLEEN ESKOLA ERRENDIMENDUAREN EBALUAZIOARI BURUZKO ERREKLAMAZIO ETA INFORMAZIOA	35
78. artikulua.- Printzipio orokorrak	35
79. artikulua.- Ebaluazio helburu, eduki eta irizpideen gutxieneko jendaurreratzea	36
80. artikulua.- Ikasleei eta gurasoei informazioa ematea	36
81. artikulua.- Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea	35
82. artikulua.- Kalifikazioak justifikatzen dituzten dokumentuak gordetzea	36
83. artikulua.- Erreklamazioen prozedura zatikako ebaluazioetan	37
84. artikulua.- Erreklamazioen prozedura amaierako ebaluazioetan	37
IV. KAPITULUA: IKASTETXEAREN BARNE EBALUAZIOAZ. (AUTO-EBALUAZIOA)	37
85. artikulua.- Printzipio orokorrak	37
86. artikulua.- Kurrikulu Proiektuaren (IKP) Ebaluazioa	37
VI. TITULUA. BIZIKIDETZAREN ASALDATZEA. IKASLEEN JOKAERA HUTSEGITEAK	39
87. artikulua.- Gogoeta orokorrak. Azken xedapena	39
ERANSKINAK:	
1. eranskina.- Euskal Eskola Publikoaren Legetik eratorritako printzipio orokorrak	40
2. eranskina.- Ikasleek betebeharrak ez betetzeari buruzko araudia	41
3. eranskina.- Jantokiari buruzko arauak	46
4. eranskina.- Liburutegiaren funtzionamendua	47
5. eranskina.- Segurtasun eta higiene arauak	51

TXURDINAGA BEHEKOA B.H.I.AREN ANTOLAMENDU ETA JARDUERA ARAUDIA

SARRERA- AURKEZPENA

Antolamendu eta Jarduera Araudi (AJA) honen xedea gure Institutuan 79/80 Ikasturtetik abian dagoen kudeaketa demokratikorako eredia finkatzeko tresna balioudun bat izatea da. Gure asmoa da bertan gure Ikastetxeko egungo ezaugarriek eskatutako kudeaketa ekimen berriak sartzea. Horretaz gain, ikusi da badaudela hain eragingarriak ez diren koordinazio edo kudeaketa mekanismo batzuk, edo nahikoa sendotu ez direnak, eta horiek birdefinitzeko ere baliogarria izango da araudi hau.

Dena dela, Araudi hau ekintza kolektiboa definitu eta bertan barneratzeko tresna gisa hartu behar da, beti ere gure eskola komunitate osoaren kontsentsutik hasita. Eta inola ere ez da funtzio integratzaile horretan oztopo izango. Kontsentsu horren emaitza gisa, eta berau euskarri hartuta, tresna egokia izan daiteke xede diren helburuak erdiets daitezzen hezkuntza proiektu bat aurrera eramateko.

AJA honen amaieran, 5 eranskin erantsi dira. Hauek bi eratakoak dira:

- 1) 1 eta 2. eranskinetan AJA bera baino maila altuagoko araudiak jasotzen dira. Hauek aldatu egin daitezke Hezkuntza Sailak *xedatzen* dituzten arauen arabera. Helburu praktikoa dute: Zuzendaritza taldeak edo hezkuntza komunitateko edozein kidek era errazean kontsultagarri izan dezala.
- 2) 3., 4. eta 5. eranskinak funtzionamendu araudiak dira, Liburutegikoak, Segurtasun eta Higienekoak eta Jantokikoak. Hauek aldatu egin daitezke urtero eratutako Batzordeen bidez, eta Ikastetxearen inguruabarrek hala eskatzen badute. Horrela, ez litzateke beharrezkoa izango AJAren aldaketak eskatzen dituen urrats konplexu guztiak jarraitzea.

TXURDINAGA BEHEKOA BHI-AREN ANTOLAMENDU ETA JARDUERA ARAUDIA

1.artikulua.- Ikastetxearen identitate-printzipio orokorrak:

Gure zentroa plurala, kultur anitza, hezikidetzaila, etikoa, elebiduna, demokratikoa eta parte-hartzailea da definizioz; euskal gizartearen zerbitzura dago, ingurunean gizarte eta kultur mailan sustraitua; sexu, hizkuntza, arraza eta sinesmenengatiko edozein bazterkeriaren kontrako; desberdintasunen konpentsatzaile eta dibertsitatearen integratzaile. AJA honen eraketa oinarritzen deneko printzipio orokorrak IHPn diseinatuta daude eta, beraz, berari begiratu behar diogu. Era berean, printzipio orokor hauek ez dira Euskal Eskola Publikoaren Legearen 3.2. artikuluan xedatutakoetatik urruntzen.

(Ikus 1. eranskina)

2. artikulua.- Antolamendu egitura. Irizpide orokorrak:

1.-Erabakiak hartzeko egintza ahalik eta gehien deszentralizatu beharra dagoela uste dugu eta, ondorioz, egin denetik edo egingo denetik hurbilen dauden pertsona edo organoen esku utzi behar delakoan gaude.

2.- Ikastetxean nolabaiteko kurrikulu berrikuntza ekar dezaketen helburuak planteatzen ditugunez, gure ustez erronka honi aurre egingo dioten organoak izan behar ditugu.

3.- Garrantzitsuena da planteatzen ditugun irtenbideak Ikastetxearen errealitaterako egokienak izan daitezen; hori dela eta, baliteke, lege araudiaren barruan, inoiz desberdina izan daitekeen irtenbideren bat planteatu behar izatea, ikastetxe bakoitzaren tradizio eta autonomiari jarraiki.

4.- Bestalde, gure asmoa da antolaketa egiturak parte-hartze tradizioari erantzun diezaiola ere, baina ez dadila azkenean gehiegizko burokrazia izan, paperean idatzitakoa soilik. Orogen gainetik errealista izan beharko du, gehiegi estutzen ez duena, benetan izan dezakegun denbora zenbatekoa den kontuan hartzen duena.

5.- Gure aburuz, antolaketa da xede ditugun helburuetara, proiektu baten garapenera, makurtu behar duena. beraz, Ikastetxearen antolaketa egitura osatzen dutenak organo tradizionalak nahiz egoeraren edo helburu jakin baten arabera sor daitezkeenak dira, eta, horregatik, behar besteko gaitasuna izan behar dute erabakitzeko.

6.- Izen-emateko epe ofiziala amaitu ondoren matrikulari uko eginez gero, ez da ordaindutako dirua itzuliko.

I. TITULUA: TXURDINAGA BEHEKOA BHIaren ANTOLAMENDUAZ

3. artikulua.- Gobernu Organoak:

-Elkargokideak:

*Ordezkaritza Organo Gorena (OOG) (Eskola Kontseilua)

*Klaustroa

*Zuzendaritza taldea

*Ikasleen Ordezkaritza Batzarra

*Guraso batzarra

*Irakasle ez diren langileen batzarra, proposamenak Eskola Kontseilura eramaten dituena.

-Pertsona bakarrekoa:

*Zuzendaria.

*Ikasketa-burua

*Idazkaria

**Idazkariordea*

*DBHko koordinatzailea

I. KAPITULUA: KIDE ANITZEKO GOBERNU ORGANOAK

1. atala. Ordezkaritza Organo Gorenaz (OOG)

4. artikulua.- - OOGaren definizioa eta izendapena.

1.- Ordezkaritza organo gorena da, eta bertan bermatu egiten da eskola komunitatearen kideek (irakasle, familia, ikasle eta pertsonal ez-irakaslea) Ikastetxearen Gobernuan parte hartzea, hezkuntza komunitatearen sektore guztien topaleku eta bateratzea, eta Ikastetxeko egunerokoari dagozkien gaiet buruzko informazioa eta erabakiak hartzea. Hala, Ikastetxearen autonomia esparruari eragiten dioten funtsezko erabakien

arduradun gorena da.

2.- OOGaren beste izendapena Eskola Kontseilua da.

5. artikulua.- Eskola Kontseiluaren atribuzioak eta eskumenak.

Eskola Kontseiluak honako atribuzioak izango ditu:

- a) Ikastetxearen hezkuntza proiektua (IHP), antolamendu eta jarduera araudia (AJA) eta kudeaketa proiektua (KP) onestea; berauek betetzen direla zaindu eta ebaluazioa egitea, Euskal Eskola Publikoaren Legearen 28.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz.
- b) Ikastetxearen IKP ikastetxearen Hezkuntza Proiekturako egokierari buruzko informazioa ematea.
- c) Ikastetxearen Urteko Plana onestea, Euskal Eskola Publikoaren Legearen 35.2.a) artikuluan xedatutakoaren kaltetan izan gabe.
- d) Irakasleen prestakuntza eta birziklapen ekintzen programa, eskolaz kanpoko ekintza eta osagarriena eta urteko kudeaketa plana onestea, beronen jarraipena eta aldizkako ebaluazio lana ere bereganatuta.
- e) Ikastetxeko urteko memoria onestea.
- f) Ikastetxean ikasleak onartzeari buruz erabakitzea, indarrean dauden araudietan xedatutakori zorrozki jarraituz.
- g) Ikasleen diziplina gaien inguruko zehapenen aurka aurkez daitezkeen erreklamazioak ebaztea, haien eskubide eta betebeharrak arautzen dituzten arauekin bat eginez.
- h) Kultur eta hezkuntza xedeak dituzten beste ikastetxe batzuekin lankidetzat harremanak ezartzea.
- i) Instalazioen eta eskola ekipamenduaren berriztapena sustatzea, eta zaindu daitezen bermatzea.
- j) Ikastetxearen jarduna gain-ikustea, administrazio eta irakaskuntza alderdietan.
- k) Hezkuntza administrazioari Ikastetxearen izendapen berezitua edo beronen aldarazpenak proposatzea.
- l) Hezkuntza politikaren gaietan jarrera hartzea, Ikastetxearen edo orokorrean irakaskuntzaren inguruko gaietan.

6. artikulua.- Eskola Kontseiluaren osaera.

1.- Eskola Kontseilua honako kide hauek osatuko dute:

- a) Ikastetxeko Zuzendaria; hau izango da kontseiluburua edo presidentea.
- b) Ikasketa-burua.
- c) Udaletxeko zinegotzi edo ordezkari bat, Udalak berak izendatutakoa.
- d) Klaustroak aukeratutako hamar irakasle.
- e) Ikasleen gurasoen zortzi ordezkari.
- f) Ikasleen zazpi ordezkari.
- g) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
- h) Institutuko idazkaria, organoaren idazkari gisa jardungo duena.

2.- Eskola kontseiluan euren karguaren arabera berezko kide izaera duten kideak ordezkatuak izan ahalko dira Eskola Kontseiluan duten partaidetza zehazten duen kargua betetzeko betetzen dituzten baldintza berberetan. Izendatuta daudenak, era berean, izendapenez ordezkatu ahalko dira. Hautazkoak ordezkatu, Eskola Kontseiluko kide izateari uko egin edo kide izateko ezaugarriak galdu direnean, ordezkatu ahalko dira soilik. Horretarako, hautatutako ordezkoen zerrendan dauden hautagaien arteko lehenengoa sartuko da bertan.

3.- Eskola Kontseiluko kideak ez dira aginte-mandatura lotuta egongo euren ordezkari izatean.

7. artikulua.- Eskola Kontseiluaren funtzionamendu erregimena.

1.- Eskola Kontseiluaren bilerak kideen asistentzia ahalbidetzen duen egun eta orduan egingo dira. Bilerak ohiko edo ez-ohiko moduan sailkatu ahalko dira.

Ohiko bileretan, Ikastetxeko Zuzendariak, buru den aldetik, Eskola Kontseiluko kideei bileraren deialdia bidaliko die, gaien zerrenda, eguna, ordua eta, hala badagokio, aurretiko eztabaidagai izango den eta balizko onespena jasoko duen dokumentazioarekin batera, gutxienez bilera baino 48 ordu lehenago.

Baldin eta ez-ohiko deialdia egin behar bada, Zuzendariak, EKren buru den aldetik, gutxienez 24 ordu lehenago bidaliko du deialdia. Saioaren ez-ohiko izaera Hezkuntza Administrazioak ezarria baldin badator,

Eskola Kontseiluaren bilerei ez-ohiko izaera emateko soilik premia-premiazko arrazoiak egongo dira, eta aztergaien zerrendan soilik premiazkotasun hori eragin du(te)n gaia(k) agertuko d(ir)a.

2.- Eskola Kontseilua, gutxienez, eskola garaiko hiruhileko bakoitzean bilduko da ohiko batzarrean, edo Ikastetxeko Zuzendariak deitzen duen bakoitzean. Bestalde, kideen % 50ek, edo kolektiboetako bateko ordezkarien erdia gehi batek eskatzen badute ere bai; kasu horretan, Zuzendariak Eskola Kontseilurako deia egingo du, gehienez ere hamar eguneko epea agortu aurretik. Urtero, ikasturte hasieran eta amaieran ere bilduko da. Biltzeko, beharrezkoa izango da kideen gehiengo soilia egotea.

3.- Eskola Kontseiluak gehiengo soiliz hartuko ditu erabakiak, ondorengo kasu hauetan izan ezik:

a) Hezkuntza Proiektua eta Ikastetxearen AJA, edo hauen balizko aldarazpenak, onestea.

AJAren balizko zabalkuntza edo aldakuntza horietarako, honakoa dago erabakita:

- Hezkuntza komunitateko edozein kidek aldarazpenak aurkezteko eskubidea du; beraz, Eskola Kontseiluko presidenteari aurkeztuko dio bere proposamena idatziz, bertako kideen herenaren berrespenarekin.

- Eskola Kontseiluko presidenteak honen bilkurarako deia egingo du haren gainean eztabaidatu eta onesteko; horretarako, 2/3aren *quórum*-a beharko da, eta onesteko, gehiengo osoa.

- Zuzendaritza Taldeak dagokion dokumentazioa bidaliko die elkargoko organo guztiei, azter dezaten, Eskola Kontseilua egin baino 5 egun lehenago.

b) Hezkuntza Administrazioak eskatutako xedapen orokorren batek hala eskatzen badu.

4.- Estola Kontseiluko kideek ezingo dute hari aitortutako ordezkaritza funtziorik beregan hartu, arauren batek edo organoak berak, kasu bakoitzerako, balioz hartutako erabaki batek berariaz kontrakorik adierazten ez badu, bederen.

5.- Aurreko atalean adierazitako eraginetarako, honela ulertuko da “gehiengo soilia” eta “gehiengo osoa” dela:

Gehiengo soilia : Bozketa garaian bertan dauden organokideen erdia gehi bat, gutxienez.

Gehiengo osoa: Eskola Kontseilua “legez” osatzen duten kide guztien erdia gehi bat, gutxienez.

8. artikulua. Presidentearen eskumenak

Ikastetxeko Eskola Kontseiluko Presidenteari dagokio:

a) Organoaren ordezkari izatea.

b) Ohiko eta ez-ohiko deialdiak adoste eta aztergaien zerrenda zehaztea, horretarako gainerako kideek egindako eskabideak jasota, behar bestekoa aurrerapenez.

c) Saioen buru izatea, eztabaidak moderatzea eta kausa justifikatuak daudenean, saioak bertan behera uztea.

d) Bere botoaz berdinketak ebaztea, dagozkion erabakiak hartze aldera.

e) Legeak betetzen direla zaintzea.

f) Organoaren aktak eta erabakien ziurtagiriei oniritzia ematea.

Honek huts egiten duenean, bertaratzen ez denean, gaixorik dagoenean, edo bestelako legezko kausa dela eta, Presidentearen ordezkariak Ikastetxeko Ikasketa-burua jarriko da, baldin balego, eta ez balego, Ikastetxean antzinakotasun handiena izan eta Eskola Kontseiluko kide den irakaslea izango da ordezkaria.

9. artikulua Batzordekideen eskumenak

Eskola Kontseiluko kideei dagokie:

a) Organoko Presidenteak egiten dituen bilkura deialdiak eta dagozkien aztergaien zerrenda jasotzea, bai eta, beharrezkoa bada, aurretik, eztabaidagai izango denaren dokumentazioa ere.

b) Saioen eztabaidetan parte hartzea.

c) Boto eskubidea egikaritzea –eskubide hori pertsonala eta besterenezina izango da-, boto partikularra ematea, bai eta beronen esanahia eta hori zuritzeko zioak adieraztea ere.

Eskola Kontseiluko kideak, gure Institutuan, ez daude aginduzko mandatu baten edo agindu lotesle baten pean, bere esku utzitako ordezkaritza lanaren menpe baizik; hau da, eurek ordezkari gaitasunaren esanetara: aztertuko diren gaiak zein diren esango diete, Kontseilura eramatea nahi dutena eramango dute haien izenean, eta hartutako erabakien berri emango diete.

Eskola Kontseiluak egoki irizten dionean (IHP, AJA, e.a., edo beste gai akademiko garrantzitsu batzuk) Ikastetxeko beste kolektiboetara egingo zaie galdera, bozketa bidez, eta lortutako emaitzen

berri emango zaio Eskola Kontseiluari. Honek egoki irizten dituen erabakiak hartuko ditu.

d) Galderak eta eskaerak egitea.

e) Esleitutako funtzioak betetzeko beharrezkoa den informazioa lortzea.

10. artikulua.- Idazkariaren eskumenak

Eskola Kontseiluko Idazkariari dagokio:

a) Bilkuretan izango da. Hitza izango du baina botoa ez.

b) Presidenteak aginduta, organoaren saioetarako deialdia egingo du eta kideen zitazioak ere bai.

c) Kideen eta organoaren arteko komunikazio egintzak hartuko ditu eta, beraz, hauek kontuan hartu behar dituzten jakinarazpen, datu eskabide, zuzenketa edo bestelako edozein idazketaz ere arduratuko da.

d) Gaien bideratzea prestatuko du eta saioen aktak idatzi ere egingo du.

e) Organoak eginiko kontsulta, emandako agindu edo hartutako erabakien ziurtagiriak igorriko ditu, gero organo-buru edo Presidenteak oniritzia eman dezan.

Legezko huts-geratze, ez-bertaratze, gaixotasun edo bestelako legezko kausa bat dela eta, organo-buruak izendatutako Eskola Kontseiluko irakasle/kide batek ordeztuko du Idazkaria. Kasu honetan, organoko Idazkari funtzioak betetzen dituen kideak eskubidea izango du hitzerako eta botorako, organo-kide guztien baldintza berberetan.

11. artikulua.- Saioen erregimena

1.-Saioak egitean, erabakiak hartzean eta eztabaidetan Eskola Kontseiluaren eraketa baliozkoa izan dadin, Presidente eta Idazkariak ere bertan egon beharko dute, edo, kasua bada, legez horien ordezkodirenak. Bestalde, erabakiak hartzerakoan, Araudi honetako 7. artikuluko 3 eta 4 ataletan adierazitakoari begiratuko zaio beti.

2.-Ezingo da eztabaidatu edo erabakirik hartu aztergaien zerrendan ez dagoen gai baten gainean. Hala ere, organo elkargotuko kideen 2/3 bertan izanez gero, eta, gehiengo osoaz gai berri bat premiazkoa dela aitortzen bada, horri buruz eztabaidatu eta erabaki ahalko da.

3.- Eskola Kontseiluak eginiko bilkura bakoitzean, Idazkariak, edo honen ordezkodak, akta idatziko du. Akta honetan, nahitaez, honako hau jasoko da: bilerako aztergaien zerrenda, non eta noiz egin den, eztabaiden puntu nagusiak, bai eta hartutako erabakien edukia ere.

Aktan jasota geratuko da, organoko kideek hala eskatuta, hartutako erabakiaren kontrako botoa, abstentzioa eta hori zuzitzen duten zioak, edo aldeko botoaren esangura. Era berean, edozein kidek du eskubidea bere hitzaldi edo proposamenaren transkripzio osoa eskatzeko, baldin-eta, egintzan bertan edo Presidenteak adierazitako epean, bere hitzaldiarekin bat datorren testuaren transkripzioa ekartzen badu, eta hala geratuko da jasota aktan edo kopia bat erantsiko da.

Gehiengoaren akordiotik kanpo geratzen diren kideek, boto partikularra eman ahalko dute idatziz, berrogeita zortzi orduko epean, eta hau ere onetsitako testuan jasota geratuko da.

Organoko kideek kontrako botoa eman edo botorik ematen ez dutenean, erabakietatik erator daitezkeen erantzukizunetatik salbuetsita geratuko dira.

Aktak saioan bertan edo hurrengo saioan onetsiko dira; hala ere, hartutako erabakien egiaztapena igorri ahalko du Idazkariak, akta gero onetsiko bada ere. Akta onetsia urretik hartutako erabakien egiaztapenak igortzean, inguruabar horren berariazko adierazpena ere azaldu egingo da.

Gai garrantzitsu samarrak direnean, edo Eskola Kontseiluko deialdi saioan bertaratutakoren batek hala eskatzen badu, banakako boto-paper bidez egingo da bozketa, eta, horren ostean, organoko Presidenteak eta Idazkariak zenbaketari ekingo diote. Aktan jasota geratuko dira egitate horiei guztiei dagokiena.

4.- Eskola Kontseiluak, hezkuntza komunitateari bere erabaki berezitzen berri emateko, Ikastetxeko iragarki-oholean jarriko ditu ikusgai, gutxienez.

5.- Ikastetxeko Eskola Kontseilu baten ostean, eta talde batek irakasle batekin adostuta, azterketaren bate jarrita egongo balitz, Eskola Kontseiluan parte hartu duten ikasleek azterketa beste egun batera aldatzeko eskubidea izango dute.

12. artikulua. Eskola Kontseiluaren Batzordeak

Eskola Kontseiluaren funtzionamendua arintzeko xedez, bertan ondorengo batzordeak eratuko dira:

- Batzorde Iraunkorra
- Ekonomia Batzordea
- Segurtasun eta Higiene Batzordea
- Bizikidetzeta Batzordea

13. artikulua. Batzorde Iraunkorra

1.- Batzorde Iraunkorra ondorengo kide hauek osatuko dute:

- Zuzendaria edo, honen ordezkari hartuta, ikasketa-burua.
- Bi irakasle, Eskola Kontseiluan irakasleen ordezkarien artean hautatutakoak.
- Irakasleen gurasoen arteko bi, Eskola Kontseiluko ordezkarien artean hautatutakoak.
- Bi ikasle, Eskola Kontseiluko ordezkarien artean hautatutakoak.
- Udaleko ordezkaria, Ikastetxeko Eskola Kontseiluko kidea.
- Eskola Kontseiluko idazkaria, batzordeko idazkari lanak egingo dituena.

2.- Batzorde Iraunkorrek ondorengo funtzio eta zeregin hauek edukiko ditu:

- a) Eskola kontseiluko bileren eguneko aztergaien zerrenda proposatzea.
- b) Ikastetxearen eskolaz kanpoko ekintzen eta ekintza osagarrien plana egitea, bai eta hauek betetzen diren zuzenean zaintzea ere.
- c) Jantokiaren funtzionamendua ezin hobea izan dadin zaintzea, 3. eranskina den dokumentuan jasotako arauak betetzen direla baieztatuz.
- d) Kanpoko ekintzen eta ekintza osagarrien urteko memoria-txostena egitea, gero Eskola Kontseiluak onetsi dezan.
- e) Zuzendaritza Taldearekin lankidetzan aritzea, prestakuntza, eskolaz kanpoko eta osagarrien programaren kudeaketa proiektua egiten eta Urteko Kudeaketa Programa egiten, ondoren Eskola Kontseiluak (EK) onetsi dezan.
- f) Zuzendaritza Taldearekin lankidetzan aritzea Ikastetxearen Egitasmoa eta Memoria egiten, ondoren Eskola Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi dezan.

3.- Euskal Eskola Publikoaren Legearen 36.2 b) eta d) artikuluan egozten zaizkion funtzioei dagokienez, erabakiak hartzeko eraginetarako, botoak haztatzean, guraso, ikasle eta irakasleek Eskola Kontseiluaren osoko bilkuran duten ordezkari portzentaje berbera izango dute.

14. artikulua. Ekonomia Batzordea

1.- Ekonomia Batzordea honela egongo da osatuta:

- EK-ko Presidentea, hiztun, baina botorik gabe.
- Eskola Kontseiluko bi irakasle (horietako bat Idazkaria).
- Eskola Kontseiluko bi guraso.
- Eskola Kontseiluko bi ikasle.
- Administrazio eta Zerbitzuetako ordezkari bat.

2.- Ekonomia Batzordeak honako funtzio hauek egikaritu ditu:

- a) Ikastetxearen ekonomia kudeaketaren urteko programaren proiektua egingo du, aurrekontua ere sartuta, Eskola Kontseiluak onetsi dezan.
- b) Ikastetxearen urteko balantzea egingo du, Eskola Kontseiluak onetsi dezan.
- c) Ikastetxeko idazkariaren ohiko kudeaketa ekonomikoa kontrolatuko du, honek eman beharreko aldizkako informazioaren bitartez.
- d) Eskola Kontseiluari informazioa emango dio Ikastetxearen beharren gainean, instalazio eta eskola ekipamenduei dagokienez, eta honen zainketa eta berriztapenari dagokionez, eta kontrolatu egingo du Ikastetxeko inbentarioaren eguneraketa.
- e) Ikastetxearen Ekonomia Kudeaketaren urteko programaren egikaritzeari buruzko urteko memoria-txostena egitea, aurrekontua barnean hartuta; horretaz gain, Ikastetxeko ekipamendu eta instalazioetan dauden hobekuntza eta beharrei buruzko txostena ere bai, ondoren Eskola Kontseiluak onetsi dezan.
- f) Aurrekontua onetsita, ikastaroan zehar gutxienez bi aldiz bilduko da ekonomia kudeaketaren planaren jarraipena egiteko; zehatzago esateko, lehenengo hiruhilekoan onetsitako aurrekontuen ibilbideari buruzko jarraipena egiteko.

15. artikulua.- Segurtasun eta Higiene Batzordea

1.-Segurtasun eta Higiene Batzordea honela egongo da osatuta:

- Ikasketa-burua. Honek batzordeburu gisa jardungo du.
- Eskola Kontseiluko Idazkaria
- Eskola Kontseiluko irakasle-kide bat
- Eskola Kontseiluko kide den gurasoen ordezkari bat
- Eskola Kontseiluko kide den ikasle bat.

2.-Segurtasun eta Higiene Batzordeak honako funtzio eta zereginak izango ditu:

- a) Ikastetxearen Larrialdietarako Plan Orokor bat egitea, edonolako ezbeharrari aurre hartzeko. Bestalde, Ikastetxean burutzen diren itxurazko ebakuzioen ebaluazioa eta jarraipena egin beharko dute.
- b) Ikastetxeko azpiegitura, altzari eta instalazioetan antzemandako edonolako arazoen berri emango diote Eskola Kontseiluari, hezkuntza komunitateko edozein kiderentzat arriskua eragin badezake; hala, beharrezko neurriak hartuko lirarteke, lantokietako prebentzio, segurtasun eta osasunari buruzko araudiarekin bat eginez.
- c) Eskola Kontseiluak esleitutako beste funtzio batzuk.
- d) Segurtasun eta Higiene Batzordeak araudi bat prestatu du eta AJA honen 5. eranskin gisa jarrita dago.

16. artikulua. Bizikidetzatza Batzordea

1.- Bizikidetzatza Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- Eskola Kontseiluko 2 irakasle, horien artean, Ikasketa-burua; azken honek Presidente gisa jardungo du.
- Eskola Kontseiluko kide diren bi guraso.
- Eskola Kontseiluko kide diren bi ikasle.
- Ikasleren baten jokabidea aztertzen denean, Tutoreak ere parte hartu ahalko du, ikasleak hala nahi badu.

2.- Bizikidetzatza Batzordeari dagokio:

- a) Hezkuntza komunitateko sektore guztien ekimenak bideratzea, Ikastetxeko bizikidetzatza, elkarrenganako errespetua eta tolerantzia hobetzeko.
- b) Bizikidetzatza arauen aplikazioari buruz eta arlo honetan esleitzen zaion guztiari buruz jakinaraziko dio Batzordeak Eskola Kontseiluari.

17. artikulua- Batzorde guztietarako arau komunak

1. Batzorde hauek guztiek Eskola Kontseiluaren eskuordetzeaz eta aginduz jardungo dute, eta uneoro egongo dira haren Osoko Bilkuraren menpe. Honek, era berean, kideak batzorde bakoitzerako desberdinak izan daitezen ahaleginduko da. Batzordeko kide izango dira kolektiboak berak proposatutako pertsonak, Eskola Kontseiluak oniritzia emandakoan.

2. Atala. Irakasle klaustroaz

18. artikulua.- Irakasle klaustroaren izaera, osaera eta eskumenak

1.-Irakasleen klaustroa osatzen duten guztiak Ikastetxeko irakasle izango dira, eta Zuzendaria izango da buru.

2.-Klaustroaren funtzioak dira:

- a) Ikastetxearen Kurrikulu Proiektua eta Irakaskuntza jardueren programa egin eta onestea, aurretik ordezkari organo gorenaren txostena izanda. Izan ere, azken hau izango da haiek Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan jasotako ildoetarako egokiak diren adieraziko dutenak.
- b) Ordezkari organo gorenari Irakaskuntza jardueren programa betetzen den jakinaraztea, hark urteko memoria egin dezan.
- c) Ikasleen ebaluazio eta errekupeazio lanari buruzko irizpideak finkatu eta koordinatzea, Orientazio Departamentuaren ildoekin bat eginez.
- d) Ikasleen orientazio eta tutoretza funtzioak antolatu eta zuzentzea.
- e) Pedagogiako esperientziario edota ikerkuntza arloan ekimenak sustatzea.
- f) Jarduera-arauak onestea.
- g) Eskola Kontseiluak onetsi aurretik Euskal eskola Publikoaren Legearen 36.3 artikuluan

xedatutakoari jarraituz prestatutako prestakuntza ekintzen, eskolaz kanpoko ekintzen eta osagarrien programari buruzko informazioa ematea.

h) Eskola Kontseiluan aztertuko diren gaiet buruz eztabaidatzea eta, bertan, beharrezko irizten diren proposamenak egitea.

i) Legezko eta arauzko xedapenek eskatutako beste edozein funtzio.

19. artikulua.- Irakasle klaustroaren funtzionamendu erregimena

1.-Irakasleen klaustroa ohiko bilkura batean bilduko da, gutxienez 48 ordu lehenago deia eginda, gutxienez hiru hilekoan behin, eta Zuzendaritza taldeak deitzen duen bakoitzean, edo klaustroko kideen % 25ak, gutxienez, eskatzen duenean. Derrigorrezkoak izango dira, gainera, klaustroaren saio bat ikasturte hasieran, eta beste bat amaieran. Eskola Kontseilurako baldintza berberetan, ez-ohiko saioetarako deia egin ahalko da, gutxienez 24 ordu lehenago. Eguneko aztergaien zerrenda Zuzendariak zehaztuko du, edo lan batzordeek, edo klaustroko kideek proposatua izango da.

2.-Zuzendariak legez deitutako bilkuretako bakoitzean, Ikastetxeko Idazkariak Akta idatziko du. Horretarako Akta Liburu bat egon beharko du, eta hau organo eskudun guztien eta hezkuntzako Ikuskaritzaren esku egongo da.

3.-Klaustorara bertaratzea derrigorrezkoa da Ikastetxeko irakasle guztientzat.

4.-Klaustroan bozkatzekoak diren erabakiak, onetsiak izateko, gutxienez klaustroko kideen erdia eta bat gehiago egon beharko dute bertan. Kide guztien botoak pertsonalak eta besterendu ezinak izango dira. Bozketak sekretuak izango dira eta, salbuespenez, eskua jasozkoa. Bozketarako terminoak BAI, EZ eta BOTO ZURIA izango dira.

5.-Irakasleen Klaustroaren funtzionamendurako, "Gehiengo soila" eta "gehiengo osoa" esatean, hau ulertuko da:

Gehiengo soila: bozketa garaian dauden Irakasle Klaustroko kideen erdia gehi bat, gutxienez.

Gehiengo osoa: Irakasleen Klaustroa legez osatzen duten kide guztien erdia gehi bat, gutxienez.

20. artikulua.- Klaustroko batzordeak

1.-Pedagogia Koordinaziorako Batzordea, Araudi honetan aurrerago aipatzen dena, Irakasleen Klaustroko batzorde bat da, eta honek ezarritako orientazio eta irizpideei jarraituta egikaritu behar ditu bere eskumenak.

2.-Era berean, Klaustroko Batzordeak irakasle taldeak dira, maila guztietan –taldeko irakasle taldea eta mailako taldea, ondorengo artikuluetan azaldutako Departamentu didaktikoa eta Orientazio Zerbitzua- irakasle talde bakoitzak ikasleei eman beharreko irakaspen eta orientazioa koordinatzeko lana beteko dutenak.

3. atala. Zuzendaritza taldeaz

21. artikulua.- Zuzendaritza taldearen osaera

Pertsona bakarreko gobernu organoek osatuko dute Zuzendaritza taldea eta era koordinatuan egingo dute lan, Ikastetxeko Zuzendariaren buruzagitzapean, euren funtzioak egikaritzeko. Orokorrean, Ikastetxeko Zuzendaritza taldea osatuko dutenak dira: Zuzendaria, Ikasketa-burua, Idazkaria, Idazkariordea eta DBHko Koordinatzailea.

22. artikulua.- Zuzendaritza taldearen funtzio eta atribuzioak

1.-Zuzendaritza taldearen funtzioak dira honako hauek:

a) Zuzendariari laguntza ematea Ikastetxearen Zuzendaritza eta koordinazioari buruzko irizpideak hartzean, bai eta beronen funtzionamenduari dagokionean garrantzi handiagoko erabakietan.

b) Kudeaketa proiektua, prestakuntza ekintzen, eskolaz kanpoko eta osagarrien programa, eta urteko kudeaketa-programa egitea, Eskola Kontseiluak denak onets ditzan.

c) Aurreko atalean aipatutako programen egikaritzea koordinatu eta ikuskatzea, eta horiek betetzen diren ala ez Eskola Kontseiluari jakinaraztea, honek Ikastetxeko urteko memoria onetsi dezan.

d) Urteko memoriaren zirriborroa egitea, Eskola Kontseiluak honen gainean eztabaida dezan.

e) Eskola Kontseiluari Euskal Eskola Publikoko beste ikastetxe batzuekiko lankidetzara harremanak ezartzeko proposamena egitea, eta organo honek, egoki iritziz gero, Hezkuntza Administrazioari jakinaraz diezaion proposatzea, kultur eta hezkuntza xede duten beste erakunde batzuekiko hitzarmenak sinatze aldera.

f) Ikasturte hasieran irakasle taldeak antolatzea eta, hauek, gaia erregulatzen duten araudiekin bat eginez, zein irizpide erabili behar dituzten erabakitzea.

g) Irakasleen klaustroari informazio zehatza eta publikoa ematea Ikastetxera iristen diren deialdi, zirkular, erabaki eta xedapen guztiez.

2.-Aurreko ataleko b) eta d) letretako funtzioak betetzean, Zuzendaritza taldeak eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren partaidetza izango du, eta hau izango da dokumentu horiek egiteko arduraren duena.

3.-Zuzendaritza taldea Ikastetxeko Zuzendariak beharrezko deritzon beste alditan bilduko da, ikasturte bakoitzean, bere funtzioak betetzeko. Ohiko moduan, astean behin bilduko da, Ikastetxearen kudeaketa arlo desberdinak koordinatzeko.

4. atala. Ikasleen Batzarraz, ikasleen Ordezkaritza Batzarraz eta Gelako Ordezkariez

23. artikulua.- Ikasleen batzarraz

Ikasleen batzarra ez-ohiko moduan bildu ahalko da Ordezkarien Gelan ikasleei eta Ikastetxeari dagozkion interes orokorreko gaiak aztertzeko. Edozein bozketa ikasgeletara eramango da. Bertan, bozketa prozesuei jarraituko zaie, AJA honetan adierazitako araudi orokorrak agintzen duen moduan.

24. artikulua.- Ordezkaritza Batzarraren osaera eta funtzionamendu erregimena

1.- Ikastetxearen kudeaketan ikasleen partaidetza berezitua artikulatzen duen organoari, Euskal Eskola Publikoaren Legearen 30. artikulua aipatzen duenari, ikasleen Ordezkaritza Batzarra deituko zaio.

2.- Institutuak ikasleen Ordezkaritza Batzar bat izango du, taldeetako ikasleek libreki hautatutako ordezkariek osatuta egongo dena. Partaide izango dira, era berean, Ikastetxeko Eskola kontseiluan ikasleen ordezkariek diren guztiak ere.

3.- Ordezkaritza Batzarrak berak egingo ditu bere funtzionamendu arauak eta Ikasketa-buruak onetsitakoan jarriko dira indarrean. Hala ere, honek arau horiek ez baimentzeko, legezko arauen baten, Araudi honetako aginduen edo ikasleen eta hezkuntza komunitateko gainerako kideen betebeharrak eta eskubideen aurkakoak izan beharko du.

4.- Dena dela, Ikastetxeko ikasleen artean egon daitekeen pluraltasuna zaindu egin beharko da, bai eta Ordezkaritza Batzarraren eragingarritasuna ere.

5.- Zuzendariak leku egoki bat erraztuko dio Ordezkaritza Batzarrari bere bilerak egin ditzan, bai eta beharrezko dituen baliabide materialak ere, era egokian funtziona dezan.

6.- Ordezkaritza Batzarreko kideak, bere funtzioak egikaritzean, eskubidea izango du Eskola Kontseiluaren saioetako aktak ezagutu eta kontsultatzeko, bai eta Ikastetxeko beste edozein administrazio-dokumentazio ere, baldin eta hori ezagutu eta hedatzeak pertsonen intimitaterako eskubidea kaltetzen ez badu, behintzat.

7.- Ordezkaritza Batzarraren bilerak eskola-orduetatik kanpo burutuko dira. Ordezkariek eurek egingo dute Ikasleen Ordezkaritza Batzarrerako deia, aurretik Zuzendaritzari jakinarazita, edo Zuzendaritzak berak, edo Eskola Kontseiluak ere egin ahalko du. Greba edo geldialdietarako biltzeko izatekotan, DBHko lehenengo zikloko ikasle ordezkariek ez dira deituak izango.

25. artikulua.- Ordezkaritza Batzarraren funtzioak

Ordezkaritza Batzarraren funtzioak ondorengo hauek izango dira:

a) Zuzendaritza Taldeari proposamenak helaraziko dizkio Ikastetxeko Heziketa Proiektua, Urteko Plana eta Urteko Memoria egiteko, bai eta eskola jardunaldia antolatzeko ere.

b) Ikasleen ordezkariei Eskola Kontseiluan aholkua eta laguntza ematea, bai eta haiei informazioa ematea talde edo maila bakoitzeko arazo edo gaiei buruz.

c) Eskola Kontseiluan ikasleen ordezkariegangandik informazioa jasotzea, eguneko aztergaiei buruz, benetan aztertu diren gaiei buruz eta hartutako erabakiei buruz.

d) Eskola Kontseilurako txostenak egitea, berez edo hark eskatuta.

e) AJAren aldarazpenerako proposamenak egitea, bere ahalmenen irismenaren arabera.

f) Ikasleei informazioa ematea Batzar honen jardura eta proposamenen gainean. Informazio labur edo puntualak ordezkariek diren ikasgeletako ikasleei eskola orduetan helarazi ahalko zaizkie. Ikasgelan dagoen irakasleak erraztu egingo du jakinarazpen hori. Jakinarazpen edo eztabaida orokorrak eskola ordutik kanpo egingo dira edo, kasu berezietan, Zuzendaritzari eskatuko zaio ordutegi antolaketa edo murrizketa, behar besteko aurrerapenez (gutxienez 24 ordu).

g) Ikastetxean eskolaz kanpoko ekintzak eta ekintza osagarriak burutzeko proposamenak egitea.

26. artikulua.- Gelako ordezkariak

1.- Ikasle talde bakoitzak gelako ordezkari bat aukeratuko du, zuzeneko eta isileko boto-emate bidez, ikasturtearen lehenengo hilean eta ikasturte osorako, eta honek ikasleen Ordezkaritza Batzarrean parte hartuko du. Ordezkariorde bat ere aukeratuko da, eta honek ordezkaria ordeztuko du baldin eta huts egite edo gaixotasunen bat baldin badago, eta haren lanetan lagunduko dio.

2.- Gelako ordezkari eta ordezkariordeen hauteskundeak Ikasketa-buruak antolatu eta deituko ditu. Honek zehaztuko ditu bozketarako arauak, artikulua honetako 3. artikulua ezarritakoa errespetatuz, eta taldeetako tutoreekin eta Eskola Kontseiluan ikasleen ordezkari direnekin lankidetzan.

3.- Beti ere, talde bakoitzeko ikasle guztiak hautesle eta hautagai izango dira, hautagaitza aurkeztu beharrik izan gabe. Bozketan, ikasle bakoitzak izen bakarra sartu ahal izango du boto-paperean. Gelako ordezkari izango da ikasle bozkatuena, eta ordezkariorde izango da bozka kopuruan hurrengoa.

4.- Ordezkari eta ordezkariordeak atzera bota ahal izango dira, aurretik tutoreari txostena bidalita, talde hautatzaileak gehiengo osoz hala erabakitzen badu. Kasu honetan, hauteskunde berrietarako deia egingo da, hamabost eguneko epean, eta aurreko atalean xedatutakoari jarraituz. Era berean jokatu da onartutako dimisioen kasuan.

5.- Ordezkariak ezingo dira zigortuak izan Araudi honetan esleitzen zaizkien funtzioak egikaritzeagatik.

27. artikulua.- Gelako ordezkarien funtzioak

Gelako ordezkariari dagokionez:

- a) Ordezkaritza Batzarrean bilkuretara joatea eta bertako eztabaidetan parte hartzea.
- b) Ordezkari direneko taldearen iradokizun eta eskakizunak Gobernu Organoari eta Didaktika Koordinatzaileari helaraztea.
- c) Gelako ikasleen arteko bizikidetzaren sustatzea.
- d) Tutorearekin eta gainerako irakasleekin lankidetzan aritzea ordezkariaren duten taldearen funtzionamenduari dagozkion gaitan.
- e) Irakasleekin eta Ikastetxeko Gobernu Organoekin lankidetzan aritzea beronen funtzionamenduari egokirako.
- f) Ikastetxeko materiala eta instalazioak modu egokian erabiltzen direla zaintzea.
- g) Ikastetxeko gobernu organoek euren esku uzten diren beste funtzio guztiak, euren eskumenen barruan baldin badaude.

5. atala.- Guraso batzarraz, ikasleen guraso elkarteak eta ikasleen elkarteak

28. artikulua.- Ikasleen guraso elkarteak eta ikasleen elkarteak

1.- Institutuak ikasleen Guraso Elkarteak aitortu, egoitza soziala eman eta Ikastetxearen funtzionamenduan partaidetza erraztu egingo die.

2.- Ikasleek, era berean, ikasle elkarteetan antolatu ahalko dira, eta hauek Eskola Kontseiluan aurkeztu eta aitortuak izango dira.

29. artikulua. – Guraso Batzarra

1.- Guraso batzarra gurasoek Ikastetxean duten partaidetza organo berezitua da. Ikasleen guraso edo tutore guztiak osatuta egongo da. Ikasturte hasieran behin, gutxienez, deitua izango da. Presidentzia mahaiari Eskola Kontseiluko presidentea, Guraso Elkartearen presidentea edo presidenteak eta Eskola Kontseiluko gurasoen ordezkariak egongo dira.

2.- Guraso Batzarrean barne organo bat sortu ahalko da, zuzeneko edo isilpeko boto bidezko hautaketa eginda, bilerak prestatu eta erabakiak betetzen direla ziurtatzeko.

3.- Gurasoen batzarrean funtzioak dira:

- a) Egoki irizten dituen proposamenak Ikastetxeko gainerako organoetara helaraztea, hauen eskumenekoak diren kontuetan. Horien artean sartzen dira irakaste ekintzen, prestakuntza ekintzen eta eskolaz kanpoko ekintzen eta osagarrien programaren betearazpenari buruzko balorazioa eta urteko kudeaketa programari buruzko balorazioa ere bai.
- b) Zuzendaritza taldearekin eta klaustroarekin harremanetan egotea, Ikastetxearen hezkuntza proiektua gauzatzeko ahalik eta lankidetzan handiena lortzeko.
- c) Gurasoen ekimena sustatzea, Ikastetxearen bizitzan modu aktiboan parte har dezaten.
- d) Organo elkargokideetan gurasoen ordezkari direnei saioetan eskaera egitea burututako

kudeaketari buruzko informazioa eman diezaieten.

e) Euren funtzionamendu arauak onestea.

f) Institutuaren eta gizartearen esparruan gizarte ekintza sustatzeko beharrezko funtsak onestea, baliabiderik gabe dauden edo beharizan handia duten ikasleei kulturalki eta ekonomikoki lagunduz.

II. KAPITULUA: KIDE BAKARREKO GOBERNU-ORGANOAK

1. atala: Zuzendaria

30. artikulua.- Zuzendaria

Zuzendaria Ikastetxearen kudeaketa orokorraren eta funtzionamenduaren arduraduna da, batez ere irakaskuntza jarduerari dagokionean, eta Eskola Kontseilutik eratorritako ildoekin bat eginez arituko da, indarrean dagoen araudiaren aurkakoa ez badira, behintzat.

Hautatu duen eskola komunitatearen ordezkaria da Zuzendaria, formalki berronetsi duen Administrazioarekiko bitartekaria, eta honen aurrean Institutuaren kudeaketa eta funtzionamendu egokiaren erantzule.

Zuzendariaren hautatzea otsailaren 3ko 63/2009 Dekretuarekin bat eginez burutuko da.

31. artikulua.- Zuzendariaren eskumenak

Zuzendariari dagokio:

- a) Ikastetxearen ordezkari ofiziala izatea, eta Ikastetxean Hezkuntza Administrazioaren ordezkari izatea.
- b) Ikastetxearen funtzionamendua zuzendu eta koordinatzea; Ikastetxeko organo elkargotu guztien egintza akademikoak eta bilerak deitzea eta berauen buru izatea.
- c) Gastuak baimentzea, Ikastetxearen urteko kudeaketa programari jarraituz, eta ordainketak agintzea.
- d) Euskal Eskola Publikoaren Legearen 63. artikulua aipatzen dituen obra, zerbitzu eta hornikuntza kontratazioak egitea.
- e) Ziurtagiri eta dokumentazio ofizialei oniritzia ematea.
- f) Indarrean dauden legeak eta bestelako xedapenak bete eta betearaztea.
- g) Eskola Kontseiluari entzunda, Ikastetxeko Zuzendaritza karguak beteko dituzten irakasleak izendatzea, ondoren Hezkuntza Administrazioak izenda ditzan.
- h) Ikastetxera lotutako langile guztien buruzagitza egikaritzea.
- i) Klaustroari entzunda, Ikastetxearen lokalen erabilera arautzea, Ikastetxeko ikasleek irakaste ekintzak eta osagarriak burutu ditzaten; Eskola Kontseiluari entzunda, Ikastetxearen lokalen erabilera zein den zehaztea, Ikastetxeko ikasleen aldeko eskolaz kanpoko ekintzak burutzeko, Ikastetxeko ikasle eta ikasleen gurasoen elkarteen funtzionamendurako, eta Hezkuntza Komunitatearen sektoreen bilerarako eskubidea egikaritzeko.
- j) Eskola Kontseiluaren izenean, beharrezko diren neurriak hartuko ditu bizikidetzak akademiko egokia eta Ikastetxearen funtzionamendu normala ahalbidetzeko, eta horren berri emango dio Eskola Kontseiluari.
- k) Instalazioak konpontzeko beharra eskatuko dio berehala Hezkuntza Administrazioari, bai eta beharrezko diren irakasle-ordezkapenak egin ditzan ere.
- l) Erabakiren bat hartzeko organo eskudunari buruzko zalantzaren bat dagoenean, Zuzendaria izango da hori xedatuko duena. Kolektiboren bat gehiengoaz erabaki horren aurka egongo balitz berez egin ahal izango du ez-ohiko Eskola Kontseilurako deialdia, edo ohiko Eskola Kontseilu batean gaia aztergai jarri. Honek esango du orduan ezadostasuna sortu duen gai honetan erabakia nork hartu behar duen.
- m) Indarrean dauden xedapenek egozten dizkion funtzio guztiak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko organoek eskualdatzen dizkietenak, eta Eskola Kontseiluak ematen dizkionak.

32. artikulua.- Zuzendariaren ordezkapenak.

Aldi baterako ez-bertaratzeetan –gaixotasun, baimen ofizial edo indarrean dagoen araudiak aitortutakoengatik direnean- Ikasketa-buruak ordeztuko du Ikastetxeko Zuzendaria, bere funtzio guztietan,. Azken honek bi karguak beteko ditu Zuzendaria berriro lanean hasten den artean. Eskola Kontseiluaren presidentzia, Zuzendaria ez dagoenean, Ikasketa-buruak beteko du.

2. atala. Ikasketa burua, Idazkaria eta Idazkariordea.

33. artikulua.- Ikasketa burua, Idazkaria , Idazkariordea eta DBHko Koordinatzailea izendatzea

1.- Zuzendariak, Eskola Kontseiluari entzunda, hurrengo artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten irakasleen artean, Ikasketa-burua, Idazkaria, Idazkariordea eta DBHko Koordinatzailea izendatuko ditu.

2.- Ikasketa-burua eta Idazkaria karrerako irakasle funtzionarioak izango dira, jarduneko zerbitzuan, behin-betiko Ikastetxean lan egiteko helburua duena.

3.- Kasu berezietan, eta dagokion Lurralde Ordezkarieren berariazko baimena izanda, Ikastetxean betiko lanpostua ez duen irakasle bat izendatu ahalko da, baina izendapen horrek ez dio Ikastetxean hurrengo ikasturteetan jarraitzeko eskubidea emango.

34. artikulua.- Ikasketa burua

Kurrikulu proiektuaren eta irakaste jardueren programaren egikaritzea zuzenean koordinatu eta jagoteko ardura duena da Ikasketa-burua. Eta berari egokituko zaizkio, Zuzendaritza taldeak onetsitako irizpideekin bate ginez, ondorengo funtzio hauek:

- a) Zuzendaria ordezte, ez bertaritze edo gaixotasuna denean, baldin eta ikastetxean
- b) Izaera akademikoa duten ekintza osagarri eta eskolaz kanpokoak koordinatzea, Ikastetxearen hezkuntza proiektuari, kurrikulu proiektuari eta urteko programazio orokorrari dagokionez.
- c) Ordu-tegi akademikoak eratzea, eta hauek betetzen direla jagotea.
- d) Ikastetxean dauden irakaste departamentuen lana koordinatzea.
- e) Ikastetxean lan egiten duten tutore eta gainerako irakasleen ekintza koordinatu eta zuzentzea, ezarritako programazio eta tutore-ekintza planekin bat eginez.
- f) Irakasle bakoitzari Ikastetxeko unitate bat edo unitate batzuk esleitzea, eta irakasle taldeak antolatzea.
- g) Hezkuntza komunitateko kideen arteko bizikidetz, errespetua eta tolerantziaren alde lan egitea, ikasleen eta irakasleen eskubide eta betebeharren araudia betetzen dela bermatuz.
- h) Ikastetxearen Gobernu organoek euren eskumenen barruan emandako beste edozein funtzio.

35. artikulua.- Idazkaria

Idazkariak ondorengo funtzio hauek izango ditu:

- a) Eskola Kontseiluaren, Ikastetxeko Zuzendaritza taldearen eta klaustroaren saioretako aztergaien zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, organo horietako presidentek xedatzen duenarekin bat eginez.
- b) Ikastetxeko Zuzendariak formalki deitutako organo elkargotuen bilerak guzti-guztien akta idaztea.
- c) Aktak, espedienteak eta Ikastetxearen beraren dokumentazioa babestea, eta organoen eskura jartzea. Ikastetxeko material didaktikoa babestea.
- d) Zuzendariaren oniritzia izanda, Ikastetxeko organo elkargotuen egintza edo ebazpenak eta erabakiak ziurtatzea, bai eta Ikastetxearenak diren espediente, liburu eta dokumentuak ere.
- e) Ikastetxearen administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaritza burutza betetzea.
- f) Ikastetxeari eragiten dioten hezkuntza arauak biltzea, eta hedapena erraztea, eskola komunitateko kideen jakinaren gainean jartzeko.
- g) Ikastetxearen kontabilitatea eramatea.
- h) Ikastetxearen behar ekonomikoen zerrenda egitea, bai eta erosketa edo inbertsio proposamenena ere. Eta, bestalde, kontratazioak prestatzea.
- i) Ikastetxeko instalazioen eta baliabideen mantentze egoera ikuskatzea.
- j) Arau-xedapenek esleitutako beste funtzio guztiak.

36. artikulua.- Ikasketa buruaren eta Idazkariaren ordezkapena. Idazkariordearen funtzioak.

1.- Ikasketa-burua gaixorik, baimen ofizialpean edo behar bezala zuritutako beste kausaren batengatik, ez dagoenean, Zuzendariordeak hartuko ditu haren funtzioak.

2.- Idazkaria gaixorik, baimen ofizialpean edo behar bezala zuritutako beste kausaren batengatik, ez dagoenean, Ikastetxeko Idazkariordea izango da haren funtzioak hartuko dituena.

3.- Idazkariordea, Ikastetxeko gainerako Gobernu Organoak egoera normalean bertan egonda, Idazkariari lagunduko dio bere lanean, eta Zuzendaritza Taldeak eskuordetutako funtzioak beteko ditu.

36.-bis artikulua.- DBHko koordinatzailearen funtzioak

1.- DBHko koordinatzaileak, Ikasketa-buruaren begiradapean, honako funtzio eta ardurak izango ditu:

- a) DBHko bi zikloetako eta bertako irakasleen koordinazio pedagogikoa.
- b) Ikastetxeari atxikitako Lehen Hezkuntzako zentroekiko komunikazioa eta lankidetzak, bi Hezkuntza mailetako Kurrikulu Proiektuen arteko koordinazioa bermatzeko, urtarilaren 23ko 25/1996 Dekretuaren 19.3 artikuluan agindutako moduan.
- c) DBHko ikasleak joango diren Batxilergoko Ikasketetako eta Gradu Ertaineko Prestakuntza Zikloko Irakasle Taldeekin Ikastetxeak izan beharreko komunikazioa eta lankidetzak, Ikastetxean bertan izan edo DBHOk beste Ikastetxeetan izanda ere.

37. artikulua.- Ikasketa-buruaren, Idazkariaren eta Zuzendaritza taldeko gainerako kideen kargu-uztea

1.- Ikasketa-buruak edo, kasu bada, Idazkariak eta Zuzendaritza taldeko osagai diren gainerako kideek, funtzioak utzi egingo dituzte baldin-eta Ikastetxean proposatu zituzteneko Zuzendariak kargua uzten badu.

2.- Aurrekoa gorabehera, bere funtzioen ez-betetze larria gertatuz gero, horretara behartzen duten bestelako zioen bat sortzen bada, Ikastetxeko Zuzendariak, Eskola Kontseiluari entzunda, Pertsona bakarreko Karguetako edozein kargu uzteko proposamena egin ahalko dio Hezkuntza Administrazioari. Arrazoitutako idazki bidez. Uzte horren ondorioz hutsik geratutako kargua edo karguak Ikastetxeko beste irakasle batek beteko ditu, baldintzak betetzen baditu eta aurretik Ikastetxeko Eskola Kontseiluak Zuzendariari proposamena eginda. Proposamen hori, behin Eskola Kontseiluak onetsita, Lurralde Ordezkaritari bidaliko zaio, proposatu zuen Zuzendariaren agintaldian geratzen denerako izenda dezan.

Era berean beteko dira Hezkuntza Administrazioaren beraren ekimenez kargu-uzteagatik sortutako hutsuneak ere.

II. TITULUA. AUTONOMIA PEDAGOGIKOAZ

38. artikulua.- Autonomia Pedagogikoa

Euskal Eskola Publikoaren Legearen 45. artikulua aitortutako autonomia pedagogikoa egikaritzea Ikastetxearen jardura guztiak era egonkor batean bideratu eta arautuko duen Hezkuntza eta Kurrikulu Proiektua onestean zehaztu egingo da, eta urteko programazio orokorrean ere bai, zeintzuek, ikasturte bakoitzean, haietan jasotako ildoak aplikatuko baitituzte.

39. artikulua.- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren (IHP) eta Ikastetxearen Kurrikulu Proiektuaren (IKP) helburu eta xedeak

Hezkuntza Proiektua eta Kurrikulu Proiektua Ikastetxeko ikasleei kalitatezko prestakuntza osoa ematera bideratuko dira, nortasunaren garapen osoa ahalbidetuko dien prestakuntza, alegia. Prestakuntza honetan sartzen da:

- a) Bizikidetzarako printzipio demokratikoen barruan, eskubide eta libertateen errespetuan eta tolerantziaren eta askatasunaren egikaritzean prestatzea.
- b) Ohitura intelektualak eta lanerakoak har ditzaten erakustea, bai eta zientzia, teknika, gizateria, historia eta estetika jakintza maila batera iristea.
- c) Ikasleen nortasunaren askatasuna eta prestakuntza integrala lantzea, bizikidetzak demokratikoa ahalbidetzen duten balioetan euskarri hartuta.
- d) Ikasleek euren kultur identitatea aurkitzea, euskal herrikide diren aldetik. Hala, bertako historia eta kultura ezagutzera eman, eta ikasleak inguru geografiko, sozio-ekonomiko eta kulturean erroto daitezen ahalegina egingo da.
- e) Ikasle guztiek derrigorrezko irakaskuntzaldia amaitzean, bi hizkuntza ofizialak erabiltzen jakitea, baldintza berberetan, erabilera sustatuz eta Euskararen normalizaziorako urratsak emanez.
- f) Afektibotasuna, norbere autonomia, auto-estimua eta besteekiko harremanetarako gaitasunaren garapen harmonikoa.
- g) Jardura profesionalak, intelektualak eta ludikoak gauzatzeko gaitzea.
- h) Osasunaren babesa eta gaitasun fisikoaren garapena bermatzen duen hezkuntza.
- i) Irakaspenaren kalitatea hobetzen parte-hartzea.
- j) Ikasleak Institutuaren eta gizartearen arloan hainbat baliotan hezi eta prestatzea: elkartasuna, bizikidetzak, erantzukizuna eta gizarte ekintza.

40. artikulua.- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP)

1.- IHPak eskola komunitateko sektoreek beregan hartutako hezkuntza aukera adierazten du. Honek oinarritzko balio eta helburuak identifikatuko ditu eta Ikastetxeko jarduerak horiek lortzera egongo dira bideratuta.

Hezkuntza Proiektua proiektu integratzailea da, eta ez-bazterkeria eta hezkuntza integrazioa dira oinarritzko balioak.

2.- Hezkuntza proiektuak, gutxienez, ondorengo zehaztapen hauek jasoko ditu:

- a) Inguruaren eta gainerako baldintzen deskripzioa, zeinetatik hezkuntza helburuak definitzen diren.
- b) Ikastetxearen ekintza mugatuko duten oinarritzko helburuak eta lehentasunak; horien artean, honako hauek jasoko dira:
 - Ikastetxearen kurrikulu helburuak, kurrikulu proiektuan gauzatuko direnak, eta horien artean dago lerro pedagogikoa.
 - Eskola bizitzako partaidetza eredua, non Ikastetxearen funtzionamendua arautuko duten printzipio orokorrak jasoko baitira.
 - Inguruko gizartearekiko lotura.
 - Ikastetxeak landuko dituen proiektuak, nahiz eskola komunitatea osatzen dutenentzako prestakuntzakoak direnean, hezkuntza berrikuntzakoak, dibertsitateari arreta ematekoak, beste ikastetxe eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzekoak, edo epe laburrean Ikastetxearen hezkuntza jarduera definitzen duen beste edozein.
 - Euskararen erabilera normalizatzeraz bideratutako lerro zuzentzaileak.

3.- Irakasleen prestakuntza jarduerak, Araudi honen 64. artikuluan aipatzen direnak, zuzenki lotuta egingo dira Ikastetxearen hezkuntza proiektuarekin eta irakasle taldearen ezaugarriekin.

41. artikulua.- Ikastetxearen Kurrikulu Proiektua (IKP)

1.- Ikastetxearen kurrikulu proiektuak, irakaskuntzari dagokionean, hezkuntza proiektua gauzatzen du. Bertan jasota egongo dira, gutxienez, honako zehaztapen hauek:

- a) Irakaste alderdi guztietan, ikasleen beharriari egokitutako irakaskuntza helburuak eta edukiak.
- b) Irakaskuntza edukien banaketa.
- c) Ikastetxeko irakasleen lanaren jarraitasuna ziurtatzen duten irizpide pedagogiko eta didaktikoen zehaztapena.
- d) Metodologia didaktikorako eta kurrikulu materialetarako aukerak.
- e) Hezkuntza behar berezien trataera.
- f) Ebaluaketa irizpideen zehaztapena eta osagarritasuna.

42. artikulua.- Hezkuntza Proiektuaren eta Kurrikulu Proiektuaren izaera loteslea

1.- Maila desberdinetako irakasle taldeak, didaktika departamentuak eta irakasleak, Ikastetxearen hezkuntza eta kurrikulu proiektuetara lotuta egongo dira eta, kide guztien errespetua zainduz, egoki irizten dituzten erabakiak hartu ahal izango dituzte eskolako programazioa eta jarduerak antolatzeke, bai eta, bakoitzak bere jakintza-arloan, jardueren programak aplikatzeko ere. Hartutako erabakiak berrikusi egingo ditu Ikastetxeko Klaustroak eta Eskola Kontseiluak, bakoitzak bere eskumenen mailan.

2.- Ikastetxearen Urteko Planean sartzen diren irakaskuntza jardueren programak eta prestakuntza, eskolaz kanpoko eta osagarrien ekintzena, Ikastetxeko Gobernu Organoak eta, bereziki, Eskola Kontseilua, ordezkartzarako organo gorena den aldetik, etengabe erreparatuko dio Ikastetxearen jarduerari, zertarako-eta Hezkuntza Proiektuan adierazitako oinarritzko helburuak lortzera bideratuta egon dadin.

43. artikulua.- Ikastetxearen Urteko Plana (IUP)

1.- Ikastetxearen Urteko Plana honela egongo da osatuta:

- a) Irakaskuntza jardueren programa
- b) Prestakuntza ekintzen, ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko ekintzen programa
- c) Urteko kudeaketa programa

2.- Ikastetxearen Urteko Plana egiteko koordinazio lana Zuzendaritza taldeari dagokio. Horretarako, kasuan-kasuan dagokion organo elkargotuen laguntza izango du.

3.- IUP onestea Ikastetxeko Eskola Kontseiluari dagokio, EEPLak, Irakaskuntza jardueren programari dagokionez, klaustroari esleitzen dizkion eskumenen kaltetan izan gabe. Eginda eta Eskola Kontseiluari aurkeztua egon beharko du ikasturtearen lehenengo hiruhilekoa amaitu aurretik.

44. artikulua.- Irakaskuntza jardueren programa

- 1.- Irakaskuntza jardueren programa, hezkuntza eta kurrikulu proiektuarekin koherentzian, Irakasleen Klaustroak onetsiko du.
- 2.- Programa hau egiteko lana Irakasleen Klaustroari ere badagokio. Hala ere, honek Ikastetxearen Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen esku utz dezake lan hori.
- 3.- Bertan, dagokion ikasturtean burutu beharreko helburu eta ekintza nagusiak islatu behar dira, irakaskuntza aldetikoak, alegia. Era berean, eskola ekintza abian jartzeko erabakiak jaso behar ditu, dauden baliabideak eta ikasleria kontuan hartuta.
- 4.- Irakaskuntza jardueren programak barnean izango ditu honako hauek:
 - Ikasleak taldekatzeko irizpideak.
 - Tutoretzen banaketa, eta talde eta ordutegiaren esleipena.
 - Behar bereziak dituzten ikasleei eman beharreko laguntza antolatzea eta, orokorrean, dibertsitatearen trataera neurri guztiak ere bai.
 - Zailtasunak dituzten ikasleentzako errefortzuen antolaketa.
 - Ebaluazio datak
 - Ikastetxean dauden espazio komunen banaketa.
 - Maila, ziklo eta etapen arteko koordinazioa.
 - Didaktika departamentuen eta diziplinen arteko koordinazio neurriak
 - Didaktika baliabideen antolaketa
 - Ikastetxearen auto-ebaluazioaren plangintza, beronen kalitatea hobetze aldera: Irizpideak, uneak, tresnak, eragileak eta abar.

45. artikulua.- Testu-liburuen eta beste kurrikulu-materialen erabilera

- 1.- Institutuak bere Kurrikulu Proiektuarekin ondoen egokitzen diren materialak aukeratu ahal izango ditu, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutakoen artean.
- 2.- Testu-liburu eta kurrikulu materialen aukera erabakia dagozkion Didaktika Departamentuek egingo dute, euren proiektu eta antolamendu eskemari jarraituz.
- 3.- Didaktika Departamentu jakin batek aukeratutako oinarrizko kurrikulu-materialak ezingo dira ordezkatu harik-eta ikasle taldeak dagokion zikloa edo etapa amaitzen duen arte.
- 4.- Beti ere, arlo edo ikasgai baterako testu-liburu eta kurrikulu materialen aukeraketak, edo talde, maila, ziklo edo eta abar jakin baterako material aukeraketak, gutxienez, lau ikasturteko indarraldia izango du; hala ere, behar bezala zuzitutako arrazoiengatik, finkatutakoa baino epe laburragoan aldatzea gomendagarri denean, Ordezkaritza Organo Gorenaren aldeko iritziarekin, aldatu egingo dira. Xedapen hau era berean izango da aplikagarria funtzio hau duten multimedia materialetarako, eta ikasleen erabilera orokorrekoetarako.

46. artikulua.- Prestakuntza ekintzen, ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko ekintzen Programa

- 1.- Bai prestakuntza ekintzak, bai osagarri edota eskolaz kanpokoak koherenteak izango dira Ikastetxearen Hezkuntza eta Kurrikulu Proiektuarekin.
- 2.- Ekintza horien plangintzan definitu egingo dira helburuak, arduradunak, partaideak, gauzatzeko lekua eta eguna nahiz ikasleen parte hartzeko modua.
- 3.- Ikastetxearen Urteko Planaren zati hau egitea Zuzendaritza taldeari dagokio, eta Ikastetxeko Batzorde Iraunkorrak lagundu egingo dio. Plana onestea, berriz, Eskola Kontseiluari dagokio.

47. artikulua.- Prestakuntza ekintzak

Institutuak bere prestakuntza planean sartuko ditu ikasturtean zehar gauzatu diren ekintzak. Formulatu diren proiektu eta programak, aurretik Irakasleen Klaustroak eztabaidatu eta proposatuta, Hezkuntza Administrazioari aurkeztuko zaizkio eta honek, Hezkuntza Ikuskaritzak txostena egin ondoren, erabaki egingo du proiektu edo programak ukitzen dituen alderdiak arautzen dituzten xedapenekin bat datozena la ez, eta, batez ere, zehazten diren kurrikulu edukiekin bat datozen; gainera, bertan, Ikastetxeak dituen giza baliabideak eta instalazio teknikoak zein diren kontuan hartu beharko da.

48. artikulua.- Eskolako ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak

- 1.- "Osagarriak" dira eskolak ematea ez diren eskola-jarduerak, ikastorduetan burututakoak, kurrikularekin

lotura zuzenean. Ikasleen asistentzia derrigorrezkoa izango da. Ikastetxe esparrutik kanpo egiten direnean, aurreikusi egin beharko da berauetan parte hartuko ez duten ikasleen artatzea. Urteko kudeaketa programan adierazi egin beharko dira ekintza hauen inguruko alderdiak edo sortzen dituzten gastu ekonomikoak.

2.- “Eskolaz kanpokoak” dira ikastetxe barruan edo kanpoan egiten direnak, ikastorduetatik kanpo, eta, hezkuntza helburua izanda ere, ezarritako eskola kurrikuluarekin lotura zuzena ez dutenak. Ikasleentzat borondatezkoak izango dira, ordainketa ekonomiko bat eskatu ahalko da, eta hauek Eskola Kontseiluak finkatuko ditu, ekintza bakoitzari berea, eta ez du bazterkeriarik sortuko.

3.- Ikastetxea dagoeneko herritik kanpo burutzen diren ekintzetan, beharrezkoa izango da ikasleen gurasoen edo legezko arduradunen baimena.

4.- Hezkuntza Zerbitzuak dira garraioak eta Eskola Jantokia. Gure Ikastetxean Eskola Jantokia baino ez. Borondatezkoak izango dira ikasleentzat, diru ordainketa eskatu ahalko da, eta ez dute bazterkeriarik sortuko.

5.- Ekintza hauen guztien plangintza prestakuntza ekintzen, osagarrien eta eskolaz kanpoko programetan sartuko dira, eta horien ardura hartuko luketen irakaslearen edo irakasleen (banaka edo taldeka) izena ere jasoko da edo, gutxienez, izendatzeko irizpideak. Dena dela, irakasleen “eskolaz kanpoko” ekintzetan parte hartzea borondatezkoa izango da.

6.- Salbuespen gisa, Eskola Kontseiluak edo, kasua bada, Batzorde Iraunkorrak baimena eman ahalko du programa egitean erraz aurreikusi ezin ziren ekintza osagarri edo eskolaz kanpokoak.

7.- Ikasketa Bidaia: DBHko 4. mailako ikasleentzako Ikasketa Bidaia egingo da. Hau prestatzeko, ikasturte hasieratik irakasle bat jarriko da arduradun, eta bidaia hori prestatzeko lan guztiak koordinatuko ditu.

8.- Kirol Jarduerak: Institutuko eskolaz kanpoko jarduerak bi modalitateen inguruan biltzen dira: Barne Kirola eta Kanpo Kirola. Eskolaz kanpoko kirol ekintzetan parte hartzen duten ikasleek arduratsuki erabiliko dituzte Ikastetxearen material eta instalazioak, eta entrenamendu eta lehiaketan antolamendu eta garapenean ere inplikatu dira. Antolamendua eta Araudia Ikasturte bakoitzaren hasieran jakinaraziko dira.

49. artikulua.- Ikastetxearen Urteko Memoria

1.- Ikasturte amaieran, labur eta zehazki, Ikastetxeak amaitu berri duen Urteko Memoria egingo du. Bertan islatuta geratuko dira, diseinatutako Planen analisia oinarri hartuta, hauen betetze maila, lortutako eskola emaitzak, Ikastetxeak zein ekintza osagarri eta kanpoko ekintzatan parte hartu duen, Ikastetxearen auto-ebaluazioaren emaitzak, eta gauzatutako ekintzei dagokienez interesgarri irizten diren beste hainbeste. Hobekuntzarako proposamenak ere jasoko dira arlo bakoitzean, hurrengo ikasturteko Plan eta Programak egitean kontuan har daitezten.

2.- Zuzendaritza taldea izango da arduraduna Ikastetxearen memoria egiteko lana koordinatzeko, eta Eskola Kontseiluari egokituko zaio hau onestea. Horretarako, eztabaida eguna eta onespena baino bost egun lehenago edukiko dute eskuartean testua kontseilukideek.

III. TITULUA. DIDAKTIKA ANTOLAKETA

I. KAPITULUA: IRAKASLE TALDEEN ANTOLAKETA

50. artikulua.- Irakasleak irakasle-taldeetan eta Didaktika departamentuetan kokatzea

1.- Ikasle talde berean esku-hartzen duten irakasleek irakasle-talde bat osatzen dute, eta bigarren hezkuntzako ziklo bakoitzean jarraipena izan dezan ahalegina egingo da, bereziki derrigorrezkoa den aldian.

2.- Irakasleek beren irakaste-jarduneko programazioak gauzatzeko, dagokion kurrikuluari jarraituko diote, aldian-aldian dagokion Kurrikulu proiektuarekin bat eginez, eta euren ikasleen berezitasunen arabera.

3.- Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren barruan, etapako eta zikloko irakasle taldeek, berak daudeneko etapa edo zikloari dagokionez, Irakasleen klaustroak ematen dizkien funtzio eta eskumenak egikaritu ahalko dituzte.

51. artikulua.- Ikasle taldeak eratzea eta tutoretzak esleitzea

1.- Ikasle taldeek Ikastetxearen kurrikulu proiektuan jasotako irizpideekin bat eginda eratuko dira. Ikasle taldeek jarraipena izango dute ziklo barruan, antolamendu eta ebaluazioko denbora-unitate bat eratzen baitu honek.

2. Talde bakoitzak irakasle tutore bat izango du, eta honek, bere kargurako ikasgaia edo ikasgaiak emateaz gain honako funtzioak beteko ditu:

a) Bere ikasle taldearen irakasle-taldea koordinatzea, programazioari eta ebaluazioari ez ezik, ikas-

- irakaste prozesuan zeharko banakako egoerak nahiz orokorrak analizatzeari dagokionez ere bai.
- b) Ikasleari orientazioa ematea, alderdi pertsonal, akademiko eta lanbidekoetan. Horretarako, kasua bada, ikastetxeko Orientatzailearen eta dagokion Berritzegunearen laguntza zerbitzuen laguntza izango du.
 - c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, orientazio aholkua idaztea, behin irakasle taldearen informazioa jasotakoan.
 - d) Ikasleei eta hauen gurasoei haien eskola jarduerari dagokion guztiaz informazioa ematea. Hala ere, hauek eskubidea izango dute irakasleengana edo Ikastetxeko gobernu organoetara jotzeko.
 - e) Ebaluaketa prestatzea, ikasgelarekin nahiz irakasle taldearekin. Zentzu horretan, garrantzitsua da irakasleek notak 24 ordu lehenago jartzea, modu horretan Tutoreak Ebaluazio Batzordera horiek balorazio global bat eraman dezan.
 - f) Azterketaren programazioa egitean, ebaluazio amaieran azterketa asko batera ez pilatzeko ahalegina egitea.
 - g) Gurasoekiko bilerak prestatu eta zuzentzea. Bilera horietara taldeko irakasle guztiak joango dira.
 - h) Gurasoak banaka hartzea.
 - i) Asistentzia eta puntualitatea kontrolatzea eta jakinaraztea.
 - j) Ikastetxeko Orientazio Planean programatutako ekintzak bere taldean aplikatzea.
 - k) Ebaluazio saioetako txostenak idaztea, eta ikasle bakoitzarena ere bai.
 - l) Ikasleen eskaera eta kezkek bideratzea, taldeko ikasleen ordezkari eta ordezkariordeen laguntzaz, beste irakasle eta Zuzendaritza taldearen aurrean.

II. KAPITULUA: KOORDINAZIO DIDAKTIKOAZ

52. artikulua- Irakasleen koordinazio organoak

Institutuan irakasleen honako koordinazio organoak egongo dira:

- a) Koordinazio pedagogikorako batzordea.
- b) Orientazio zerbitzua
- c) Didaktika departamentuak.

53. artikulua- Koordinazio pedagogikorako batzordea

Kurrikulu berrikuntzei eta Ikastetxearen kurrikulu proiektu koherente baterantz joateko eta Departamentuen koordinazio beharrei erantzuteko beharra da Koordinazio batzorde honen izateko arrazoia.

1.- Koordinazio pedagogikorako batzordea irakasle talde desberdinen koordinazio organoa da, eta Ikastetxeko Zuzendaria izango du buru, edo, honek eskuordetuta, Ikasketa-burua. Organikoki Irakasle Klaustroaren batzorde ordezkari bat eratzen du eta beronen erabakiek haren oniritzia beharko dute, berariaz eskuordetzen ez bada, bederen.

2.- Koordinazio pedagogikorako batzordea osatuko dutenak hauek izango dira: Zuzendaria, Ikasketa-burua, departamentu-buruak, orientazio zerbitzuko koordinatzailea, DBHko zikloko koordinatzailea. Eragingarritasunaren alde, batzorde murriztu bat finkatu ahalko da, departamentu-buru gutxiagok parte hartuko dutenekoa, hiru arlo handitan banatuta: Zientziak, Giza eta Gizarte Zientziak, eta Hizkuntzak.

3.- Koordinazio pedagogikorako batzordeak honako funtzio hauek izango ditu:

- a) Ikastetxeko IKPa abian jarri eta ebaluatzea, bai eta irakaskuntza ekintzen programa ere.
- b) Ziklo eta arlo artean irizpide komunak ezartzea, bai eta hainbat ziklori eragiten dioten jarduerak koordinatzea ere.
- c) Ikastetxearen IKPan jasotako Departamentuen didaktika programazioak, ikasleen orientazio plana eta tutore-ekintza plana egin eta berrikusteko irizpide orokorrak ezartzea.
- d) Klaustroari ebaluazio eta kalifikazio saioen plangintza orokorra proposatzea, eta azterketa edo aparteko proben egutegia egitea ere bai, ikasketa-burutzarekin ados jarrita.
- e) Ikastetxean ezarritako jarduera eta proiektu guztien ebaluazioa sustatzea, eta Hezkuntza administrazioaren edo gobernu organoen ekimenez Ikastetxearen edota ikasleen gainean burututako ebaluazioetan laguntzea.
- f) Ikastetxeko gobernu organoek emandako beste batzuk, bere eskumenen barrukoak direnean.
- g) Batxilergoko modalitate desberdinen ibilbideak antolatzen laguntzea eta eskaintzen diren aukerako ikasgaiak ezartzea.
- h) Kurrikulu proiektuak egin edo abian jartzeak irakasleei eska diezaiekeen prestakuntzarako ekintza plana proposatzea.

4.- Funtzionamendua: Hilean behin bilduko da ohiko bilkuran. Horretarako, Ikasturte hasieran ordutegiak

egiten direnean, ahalegina egingo da kide guztiak batera egoteko aukera izan dezaten ordu berean eta lan-ordutegiaren barruan.

54. artikulua- Talde-tutoreak eta irakasle-taldeak

1.- Ikasle talde bakoitzak tutore bat izango du, Ikasketa-buruak proposatu eta Zuzendariak esleitutakoa. Eta honen funtzioak Araudi honetako 51. artikuluan adierazitakoak izango dira, beste batzuen artean.

2.- Taldeko irakasle-taldea, talde bateko ikasleen eskolak ematen dizkioten irakasleek osatutakoa, tutoreak koordinatuko du.

3.- Irakasle taldeak honako funtzio hauek izango ditu:

- a) Taldeko ikasleen ebaluazioa eta jarraipen globala egitea.
- b) Taldearen bizikidetzaren giroa hobetzeko beharrezko ekintzak ezartzea eta bertan sortzen diren gatazkak era koordinatuan lantzea, horiek konpontzeko egoki diren neurriak ezarrita.
- c) Taldeko ikasleei proposatzen zaien irakaste /ikaste ekintzak koordinatzen ahalegintzea.
- d) Ikastetxeko gobernu organoek emandako beste guztiak, bere eskumenen barruan daudenean.

4.- Irakasle taldea bildu egingo da indarrean dagoen araudian oinarrituta ikasleen ebaluazio jarraipena egitea beharrezko denean, eta Ikasketa buruak, kasua bada taldeko tutoreak proposatuta, horretarako deia egiten duenean ere bai.

55. artikulua.-Orientazio Zerbitzua

Irakaskuntzaren funtzio orientatzailea nabarmentzea hezkuntzaren ezaugarriak lehenestea da; hau da, hezkuntza ez da trebatze hutsa eta, benetan, banakako heziketa izan behar du.

Beharrezkoa da analisi xehakatuagoa, non hezkuntza-dimentsio honen osagaiak agerian jartzen diren. Esplizitu egin beharreko elementuak dira, nahita eta modu sistematikoan irakaste jardunean sartu ahal izateko:

- a) Kontuan hartu beharreko lehenengo kontzeptua, hezkuntza bizitzarako orientazioa delakoa. Zentzu honetan, orientazioa hezkuntza bera da, ikasle jakin bakoitzaren nortasunaren heltze prozesua eta bizitzan egingo duen ibilbidearen oinarri izango dena.
- b) Orientazioa, beste alde batetik, bide desberdinei buruzko aholku gisa har daiteke, eta pertsonak har ditzaketen aukeren gainean hausnarraraztea da gure lana.
- c) Orientazioa, bestalde, norberarengan garrantzi handiagoa duten eta etorkizunean eragina duten erabakiak hartzeko gaitasunean heztea ere bada. Tutoretzaren zeregin nagusienetako bat da, eta bai orientazio departamentuarena ere. Areago nerabezaroan, garrantzi handiko erabakiak era arduratsuan hartzea behartzen duten heziketa aukerak agertzen diren unean.
- d) Orientazioa, laugarrenez, norbere heziketa prozesuaren gaineko hezkuntza ere bada: ikasleak trebatu eta gaitu egin behar dira euren ikasketa prozesuetarako. Ikasketa teknikak, oroimenaren errendimendukoak, ikasten ikastea, auto-ebaluazioa, e.a.

Institutuan Orientazio Zerbitzu bat egongo da, eta bertan egongo dira Ikastetxean Orientatzaile lana egin behar dutenak. Orientazio akademikoa, pertsonala eta profesionala bermatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu, ikaslearen eskubidea baita, eta ondorengo ekintzak izango dira horretarako bide, beste batzuen artean:

Zereginak edo funtzioak:

- a) Tutoreei aholku eman eta koordinatzea, eta orientazioarekin lotutako alderdiei buruzko prestakuntzan laguntzea.
- b) Talde bakoitzeko irakasle-taldearekin batera, ikasleen arazo orokorrak analizatzea, eta kurrikulukoak, ikaskuntzakoak edo nortasunekoak diren zailtasunekin lotutako kontuen gaineko esku-hartzea planifikatzea.
- c) Tutore irakasleei aholku ematea ikasleen orientazio pertsonal, akademiko eta profesionalaren arloan, bai eta dibertsitatearen trataeran, hezkuntza errefortzuan, kurrikulu egokitzapenean eta orientazio aholkuan burutzen dituzten ekintzetan ere.
- d) Ikastetxean ezarritako Orientazio Plana bete dadin zaintzea.
- e) Tutoreekin lan egitea orientazio gaietan aholkua emanez, bai banakako mailan bai taldekakoan.
- f) Eskola, bokazio edo lanbide orientazio prozesuak diseinatzea, kasuan-kasuan beharrezko diren ekintzak erabiliz.
- g) Tutoreekin eta taldeko irakasle-taldeekin ikasleen zailtasunak aztertzea, hezkuntza errefortzurako neurrien gaineko aholkua ematea eta, kasua bada, subjektu bakoitzaren heziketa beharrak oinarri hartuta, beharrezko diren kurrikulu-egokitzapenak egitea.
- h) Beharrezko denean, ikasleen banakako orientazioa egitea, bai eta, indarrean dagoen araudia

oinarri hartuta, ikaslearen etorkizun akademiko eta profesionalaren gaineko aholku orientatzailea eratzten parte hartzea ere.

- i) Hala zehazten denean, espezialitatearekin lotutako gaietan ikasle-talderen batek behar duen prestakuntza, laguntza edo azalpenak ematea.
- j) Ikasturte bakoitzerako orientazio zerbitzuaren Ekintza Plana egin, eta ikasturte amaieran, Memoria bat egitea, ezarritako Planaren garapena ebaluatzen duena.
- k) Kurrikulu dibertsifikazioko ikasgelen jarraipena egitea, baldin baleude, eta behar bereziak dituzten ikasleen ikasgelena ere bai.
- l) Talde Multiprofesionalek eta Kanpoko Laguntzakoek Ikastetxean burutzen dituen esku-hartzeak koordinatzea.
- m) Ikastetxearen eta familiaren arteko lankidetzan parte hartu eta sustatzea, ikasleen heziketan eragingarritasuna eta koherentzia handitze aldera.

56. artikulua- Didaktika departamentuak

1.- Didaktika departamentuak esleituta dituzten arlo, ikasgai edo modulu-tako irakaspenak antolatu eta garatzeko ardura duten oinarritzko organoak dira. Irakasle guztiak, edozein delarik ere euren maila administratiboa edo akademikoa, derrigortuta daude departamentu baten parte hartzera eta funtzionamendua hobetzen laguntzera.

2.- Hezkuntza Sailburuordetzak ikasturte bakoitzaren antolamenduari buruz emandako Ebazpenean adierazitako Departamentuak izango ditu Zentroak.

3.- Irakasle bat ere ez da behartua izango, esleituta dituen eskolak emateari lotutakoan izan ezik, departamentu bi edo gehiagotan era aktiboan integratzera. Baldin eta irakasle batek bi Didaktika Departamenturi edo gehiagori dagozkion ikasgaien eskolak ematen baditu, ordu gehien ematen ditueneko ikasgaiko departamentura egongo da atxikita; hala ere, ematen dituen beste ikasgaiei dagozkien beste departamentuen bileretara joan ahalko da eta hauen lanetan eta erabakietan parte hartu ahalko du. Dena dela, eurek onetsitako programazioari lotu beharko zaio, berak beste programazio bat aurkeztu eta onesten ez badiote, bederen.

4.- Departamentuetan sortutako dokumentazio guztia Ikastetxeko Pertsona bakarreko organoen eta organo elkargotuen esku egongo dira. Bilerak bakoitzean akta bat egingo da, landutako gaiak jasotzen dituenak, eta bileran izan diren guztiek sinatuko dute; idatzi, berriz, Departamentu-buruak izendatutako irakasleak idatziko ditu.

57. artikulua.- Didaktika departamentuen eskumenak

Departamentu-buruaren koordinazio eta erantzukizunpean, Didaktika Departamentuek honako eskumen hauek izango dituzte esleituta:

- a) Zuzendaritza taldeari eta klaustroari Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) eta programazio orokorraren egintza edota aldarazpenari buruzko proposamenak egitea.
- b) Koordinazio pedagogikorako batzordeari Ikastetxearen Kurrikulu Proiektuaren (IKP) egintza edota aldarazpenari buruzko proposamenak egitea.
- c) Ikasturte bakoitza hastera doanean, departamentuan sartutako arlo, materia eta moduluei buruzko irakaspenen programazio didaktikoa egitea. Horretarako, departamentu-buruak izango da koordinazioaz eta Zuzendaritzaz arduratuko dena, koordinazio pedagogikoaren batzordeak ezarritako ildo orokorrekin bat eginez.
- d) Hezkuntza-ikerketak sustatzea eta kideen hobekuntza jarduerak proposatzea.
- e) Metodologia didaktikoa eguneratua izatea.
- f) Ikastetxeko orientazio zerbitzuekin lankidetzan aritzea, Ikasketa-buruaren Zuzendaritzapean, ikasketa arazoei aurre hartzen eta antzematen. Bestalde, kurrikulu egokitzapenak programatu eta aplikatuko dituzte horien beharrez dauden ikasleekin.
- g) Ikasgai gairak dituzten Batxilergoko ikasleentzat –eta, kasua bada, ikasle libreentzat– beharrezko diren probak antolatu eta burutzea.
- h) Ikasleek ebaluazio prozesutik eratorritako departamentuari eginiko erreklamazioak ebaztea eta dagozkion txostenak idaztea.
- i) Ikasturte amaiera bakoitzean, Memoria txostena egitea, eta, bertan, programazio didaktikoaren garapena, irakasleen jarduna eta lortutako emaitzak jasotzea.
- j) Dagokion departamentuaren menpeko aukerako ikasgaiak proposatzea, bertako irakasleek emango dituztenak.
- k) Tutoreekin lankidetzan aritzea tutore ekintzaren garapenerako jardueren plangintza egitean. Era berean, tutoreekin lankidetzan aritzea, ikasleek izan ditzaketan hezkuntza zailtasunak edo ikasketa

arazoak prebenitu eta antzemateko.

l) Ikasleen artean lan arloko informazioa eta euren ikasketa arloarekin lotutako lanbide irteerei buruzkoa zabaltzea, zuzenean edo tutoreen bitartez.

m) Gainerako irakasleekin eta familiekin lankidetzan aritzea arazoei aurre egiteko garaian, agertuko balira, bederen.

58. artikulua.- Didaktika departamentu-buruez

1.- Institutuko Zuzendariak izendatuko ditu Departamentu-buruak, Ikastetxean behin-betiko lantokia duten irakasleen artean, dagokion departamentuari entzunda eta beti-ere honako irizpide haiei jarraituta:

a) Departamentu-burua departamentuko bertako irakasle bat izango da, eta beste Zuzendaritza kargu bat betetzen ez duena.

b) Interesatuak edo interesatuak berariaz eta idatziz Zuzendariari zuzendutako uko-egitea egon ezean, Katedratiko izaera duten irakasleen artean izango da izendatua Departamentu-burua, eta, horien artean, buruzagitza hori betetzeko lehentasuna izango dute urriaren 3ko 1/1990 Legea, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzkoa, indarrean jarri aurretik ere buru zirenek.

2.- Departamentu-buru bakoitza departamentu horren funtzionamenduaren erantzulea da, eta honakoak izango dira hauen zereginak:

a) Organoaren jarduna, orokorrean, zuzendu eta koordinatzea.

b) Departamentuaren bilerak antolatu, prestatu eta zuzentzea.

c) Programazioa betetzen dela zaintzea, edukiei eta ikasleek kalifikazio positiboa lortzeko gutxienez eskatuko zaienari dagokionez.

d) Bertako kideen arteko lanak banatzea.

e) Departamentuaren funtzionamenduan antzematen duen edozein inguruabar bereziren berri ikasketa-buruari jakinaraztea.

f) Bere departamentu barruan egiten diren bileren aktak egiten direla bermatzea.

g) Ikastetxeko gobernu organoek eman diezaioketen beste edozein zeregin, bere eskumenen barruan egonez gero, bederen.

3.- Departamentu-buruak kargua utziko dute honakoren bat gertatuz gero:

a) Bere agintaldia amaitzean.

b) Arrazoitutako uko egitea, Zuzendariak onetsitakoa.

c) Zuzendariaren ekimenez, klaustroari entzunda, arrazoitutako idatzi bidez eta aurretik interesatuari entzunda.

d) Departamentuko kideen gehiengo osoak proposatuta, Zuzendariari zuzendutako txostenean, eta interesatuari entzun ostean.

4.- Didaktika Departamentuetako edozeinetan Zuzendaritza kargua hutsik geratzen denean, Zuzendariak departamentu-buru berri bat izendatzeari ekingo dio, artikuluko honetako 1.go atalean ezarritakoari jarraituz. Izendapen hori ez zaio berriro egokituko aurreko atalean adierazitako moduan kargutik kendutako kide bati ere.

5.- Baldin-eta, inplikaturako departamentuan hemen ezarritako betekizun guztiak betetzen dituen irakasle bat ere ez dagoela eta, departamentu-buruaren izendapena ezin izan denean egin, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 17. artikuluan adierazitakoa aplikatuko da. Kasu honetan, Ikasgelako Zuzendariak, departamentuari entzunda, bertako irakasle bati esleituko dizkio funtzioak, eta honek salbuespenez eta aldi baterako egikaritutako ditu, eta beti-ere lehentasuna izango dute karrera-funtzionarioek bitartekoen aldean. Dena dela, funtzioak ordezkari bati esleitezotan, gehienez ere ikasturte baterako egingo da; hala ere, inguruabar berebetean jarraituz gero, ordezkari bat izendatu ahalko da berriro hurrengo ikasturterako.

59. artikulua.- Beste koordinazio modu batzuk

Era berean, zikloak koordinatzeko neurriak aurreikusi beharko dira, eta, horretarako, ikasturte bakoitzerako, erreferentzi gisa hartuko da ikasturte hasieran Hezkuntza Sailburuordetzaren Ebazpenak adierazten duena. Neurri hauek honako hau jasoko dute:

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bi zikloen artean, irakasle-taldeko koordinazio pedagogikoa. Horretarako, ikasturte hasieran DBHko Irakasle Koordinatzaile bat izendatuko da.

b) Bigarren Hezkuntzako Zentroa eta berari atxikitako Lehen Hezkuntzako arteko komunikazioa eta lankidetzak, araudi honetako 59. artikuluan adierazitakoa betetzeko xedez.

c) Derrigorrezkoa ez den bigarren hezkuntzako hurrengo etapetako irakasle-taldeekiko komunikazioa eta lankidetzeta.

III. KAPITULUA: ESKOLA JARDUERAREN KANPO ESPARRUA

60. artikulua.- Ikasleen kontrola

Institutua, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe den aldetik, bertan matrikulatutako ikasleen erantzulea da eskola jardunaldi osoan. Irakasle guztiek, bere karguari jarraituz, Ikasketa-buruaren aginduei jarraituz lagundu egingo dute eskola jardunaldiak irauten duen artean, ikasleen kontrola egiten.

Ikasleren bat kanporatzen duen irakasleak kanporaketa parte beharko du eta familiari deitu. Kanporatutako ikaslea Zuzendaritzara joango da.

61. artikulua.- Zaintzako irakaslea

1.- Ikastetxeak zaintza sistema bat ezarriko du eskola-jardunaldian gerta daitezkeen inguruabarretarako beharrezko irakasle kopurua jarrita. Esleitutako zaintza orduak irakasle bakoitzaren ordutegi pertsonalean adierazita etorriko dira.

2.- Zaintza irakaslearen funtzioak izango dira, gutxienez, ondorengo hauek:

- irakasleen bertaratze hutsegiteak eta puntualitate hutsegiteak kontrolatu eta Ikasketa-buruari jakinaraztea, zaintza-partearen bitartez.
- irakaslea ez agertzeagatik eskolarik gabe geratu diren ikasleak eta jolas-orduan ikasleak zaintzea.
- korridoreetako ordena zaintzea eta, orokorrean, ikasgeletatik kanpo, zaintza txandak irauten duen bitartean. Hala ere, funtzio hau egikaritzeak ez du gainerako irakasleen axolagabekeria zurituko.
- kanporatutako ikasleentzat esleitutako ikasgela zaintzea.
- zaintza txandan gerta daitezkeen inguruabarrak konpontzea, eta Ikasketa-buruari edo Zuzendariari ere berehala arazoaren berri ematea.
- gaixotasuna, istripua edo lesioa dela eta, ikaslea Osasun Zentro batera eramatea (beharrezko bada) eta familiari jakinaraztea.

3.- Zaintza irakasleren batek ustekabeen huts egingo balu, ikasketa-buruak honen ordezkoa izendatuko du, beti ere ordutegi pertsonalean adierazitako disponibilitate orduen barruan eginda.

- Ikastetxeko talderen bat, irteera batean dagoela eta, Ikastetxean ez badago, eskolarik ez duten irakasleek zaintzan lagundu egingo dute.

62. artikulua.- Liburutegia eta beronen erabilera

1.- Gure Ikastetxeko kulturgune garrantzitsuenetako bat da; izan ere, bertan, ikasleen hezkuntza garapenean eta prestakuntzan laguntzen duten hainbat ekintza burutzen dira, eta, irakasleen irakaste-laguntza ere ahalbidetzen du. Horregatik guztiagatik, Ikastetxeko kolektiboek adostutako arauak errespetatu eta babestu egin behar ditugu.

2.- Hezkuntza espazio hau bakarkako lanerako dago prestatuta: ikasi, irakurri, kontsultatu, norbere lanak, e.a., eta ez da talde-lanerako; beraz, isiltasun osoa nagusitu beharko da. Batzuetan, eta egoerak hala eskatzen badu, Liburutegia beste ekintza batzuetarako erabili ahalko da: Klaustroak, hitzaldiak, irakasle taldeen bilerak, e.a.

3.- Liburutegiko irakasle arduradun bat egongo da, eta ondorengo funtzioak izango ditu:

Aretoa ekintza askotarako erabileran koordinatzea; liburuaren erosketa, harpidetzak eta argitalpenak; mailegu eta itzulketen kudeaketa; ordutegia Liburutegian betetzen duten irakasleen koordinazioa; Mintegietarako informaziorako materiala hautatzea; idazlan lehiaketak antolatzea; irakurketa kanpainak; argitalpen berrikuntzen sustapena, eta abar.

4.- Ikastetxekoak diren liburu guztiak, jatorria eta erosteko erabili diren baliabideak dena direlakoak ere. Eta Liburutegi kontzeptu honetan sartzen dira Ikastetxeko edozein lokaletan (Liburutegia, mintegiak, e.a.) kokatutako liburuak.

5.- Irakasleen ordu osagarrien artean, Liburutegia artatzeko beharrezko direnak ere sartuko dira. Eta hau zabalik egongo da, gutxienez, atsedendaldietan.

6.- Liburutegiak etxerako mailegu-zerbitzua ezarriko du Ikastetxeko ikasleentzat, irakasleentzat eta langile ez-irakasleentzat. Epea ez da 11 egunekoa baino luzeagoa izango, baina berriro egongo da beste hainbeste egunerako, baldin-eta mailegatutako alea besteren batek eskatuta ez badago.

7.- Liburuak ezarritako epean itzuli ez izateak zigorra eragingo du, eta hau Liburutegiko araudian jasotakoa izango da. (ikus Liburutegiko araudiari buruzko 6. Eranskina).

63. artikulua.- Zereginak irakasleen artean banatzea

1.- Zuzendaritza taldeak adostu eta Ikasketa-buruak aplikatu beharreko irizpideak ezartzeko garaian, ikasturte bakoitza hasi aurretik, Honakoak errespetatu behar dira: lehenik eta behin, legezko exijentziak; bigarrenik, irizpide pedagogikoak eta, azkenik, beste egokitasun printzipio batzuk.

2.- Esleipenenetan, aurreko atalean ezarritakoa errespetatuz, irakasleek norbait hautatu behar dutenean, Gorputzean eta Ikastetxean duten kategoria akademikoko eta antzinakotasuneko ohiko txanda errespetatuko da. Hala ere, irizpide hau aplikatzeak ez du eragingo bi ikasturte jarraituetan irakasle berberak ordutegi banaketan kaltetuak izatea.

64. artikulua.- Ordutegien jendaurretatzea

Irakasleen gelan, modu iraunkorrean dago ikusgai ordutegi orokorra; bertan, ikasle taldeen eta irakasleen eskola-ordutegia egongo da jasota, eta zaintza eta liburutegiko ordutegiak ere bai.

65. artikulua.- Lokalen eta ekipamenduen erabilera

1.- Talde bakoitzak ikasgela bat izango du, eta bertan burutuko dira ohiko eskola-ekintza gehienak. Ikasleak arduratuko dira bertako altzariez.

2.- Ekintza berezietarako espazio komunak esleitzeko, talde guztien beharrei begiratuko zaie. Bertako materiala eta altzariak zaintzeko ardura erabiltzaile guztiei dagokie.

3.- Espazio jakin bati atxikita ez dauden baliabide didaktiko komunak erabilerarako, irakasle bakoitzak horien arduradunari eskatuko dizkio egun bat lehenago, eta bera izango da horien baliabide horien arduraduna, jasotzen dituenetik itzultzen dituen artean.

66. artikulua.- Eskola esparrutik kanpo irtetea

1.- Ekintza osagarriren batek Ikastetxetik irtetea eskatuko balu, ikasleak dagozkien irakasleekin batera ibiliko dira. Irteera horretan, etxetik kanpo lo egiteko beharra ez dagoenean, ikasle/irakasle harremana dagokion etaparako orokorki ezarritakoa izan beharko du, gutxienez.

2. Irteera horretan adingabeko batzuek etxetik kanpo lo egin beharko balute, aurreko atalean ezarritakoaz gain, Eskola Kontseiluak horretarako izendatutako irakasle edo pertsona heldu bat beraiekin egon beharko du: adingabeko hogeit hamar ikasleko edo zatikiko bat.

3.- Kasu batean zein bestean, Ikastetxea da erantzulea harik-eta jarduera amaitzen den arte.

4.- Ikasketa-bidaietan parte hartzen duten ikasleek honako portaera-arau hauek onartu eta bete beharko dituzte:

1. Arduradunek **agintaritza osoa** dute neurri egokiak hartzeko sor daitezkeen arazoak konpontzeko.
2. Arduradunen **azalpenak eta jarraibideak aintzat hartu eta bete** behar dira.
3. **Taldean joan** behar da beti. Programak guztiak behartzen ditu.
4. **Puntueltasuna** ezinbestekoa da denboraren eraginkortasuna lortzeko.
5. **Tratu zuzena eta hezia** izan behar da edozein momento eta egoeratan.
6. **Debekatuta** dago **alkohola, tabakoa edo osasunerako kaltegarria den beste edozein substantzia kontsumitzea**, baita beste **edozein jarrera desegoki** ere.
7. **Portaera bikaina** izan behar du bidaia osoan.
8. **Arau-hausleek, gurasoek edota legezko ordezkariak ordainduko dute eragindako edozein kalte.**

Portaera-arau horiek betetzen ez badira, ikasleari zehapena ezarri ahal izango zaio, **bidaia amaitu baino lehen etxera** ere itzulkiko da. **Ez du eskubiderik izango bidaiaren kostua itzultzeko** eta arrazoi horrek **eragindako gastu guztiak familiak ordainduko ditu**. Araudi hori ez ezagutzea ezin izango da inoiz aitzakiatzat hartu dagozkion zehapenak saihesteko.

IV. TITULUA. IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

67. artikulua.- Ikasleen eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko esparru orokorra

1.- Artikulu multzo hau aplikatzeko marko orokorra abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua, EAEko ikastetxe ez-unibertsitarioetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa, izango da.

2.- Hurrengo artikuluetan xedatzen dena 18 urte bete ez dituzten ikasleei dagokionean ulertuko da, urtarilaren adingabekoaren babes juridikoari buruzko 15eko 1/1996 Lege Organikoaren I Tituluak ezarritako markoaren kaltetan izan gabe.

3.- Ikastetxeak, gainera, bizikidetza plan bat du, eta honen helburu nagusia gatazken prebentzioa da.

68. artikulua.- Ikasleek kalitatezko irakaskuntza integral baterako duten eskubidea

1.- Eskola-jardunaldi barruko lan antolaketa ikasleen adinari eta heldutasunari egokituko zaio, euren gaitasunen garapen osoa ahalbidetzeko xedez. Beraz, eskola-jardunaldiaren antolaketa egiteko, ikasleen proposamen eta interesak kontuan hartuko dira, beste gauza batzuen artean.

2.- Ikastetxearen gobernu organoek, eta bereziki Ikasketa-buruak, ikasleen errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiborako eskubidearekin lotutako alderdi guztiak zainduko dituzte.

a) Ebaluazio irizpideak eta ikasturte edo ziklo bakoitzean gainditu beharreko gutxieneko helburuak jendaurreratu egin beharko dituzte Departamentuek ikasturte hasieran, eta indarrean dauden ikasketa planekin eta Ikastetxean aitortutako autonomia egikaritzean hartutako aukerekin bat etorriko dira, Araudi honen 91. artikuluan ezartzen den moduan.

b) Ikasleek, edo hauen guraso edo tutoreek, eskubidea dute jarduera akademikoaren edo zatikako ebaluazioen eta amaierako kalifikazioei buruzko azalpenak euren irakasleei eskatzeko, Araudi honetan adierazitako moduan.

c) Ikasleek, edo hauen guraso edo tutoreek, eskubidea zatikako ebaluazioen eta amaierako kalifikazioei erreklamazioa jartzeko, Araudi honetan adierazitako moduan.

3.- Ikasleek eskubidea dute euren kontzientzi askatasuna eta ideologia, erlijio, etika eta moral sinesmenak errespetatu daitezkeen, bai eta horiekiko intimitatea ere; beraz, Ikastetxeko Gobernu Organoek, eta bereziki Zuzendariak, beharrezko neurriak hartuko dituzte, euren eskumenen barruan, ikasleen eta euren familien arlo pribatuan bidezkoa ez den moduan inor tartean sar ez dadin.

Honako neurri hauek hartuko dira, beste batzuen artean:

a) Ikasleak manipulatzeko edonolako propaganda edo ideologia saihesteko irizpide objektiboetan oinarritutako irakaspena, antolamendu juridikoan agindutako terminoetan egikaritu den.

b) Ikasleen gaitasunaren eta jarrera kritikoaren sustapena.

c) Ikastetxearen hezkuntza proiektuari buruzko informazioa, matrikula egin aurretik.

4.- Ikasleek eskubidea dute euren segurtasun fisikoa, psikikoa eta morala eta norbere duintasuna errespetatu dadin; horretarako, kontuan hartu beharko dira honako printzipio hauek (indarrean dagoen arauditik eratorritakoak):

a) Institutuak ezingo du zigorrik jarri Araudi honetako VI. Tituluan ezarritako prozedura jarraitu gabe.

b) Ikastetxeak botikin bat izango du zauri arinetarako. Zauri horiek sendatzeko, beti-ere behin erabili eta botatzeko eskularruak erabili beharko dira.

- Istripu bat izanda, behar izanez gero, Ikastetxea arduratuko da zauritu edo kaltetua berehala dagokion Osasun Zentrori eramateaz, eskola-aseguruaz itundutako batera edo beste edozein zentro medikotara, alegia.

- Debekatuta dago alkoholik edariak edo beste substantzi estupefaziante batzuk eskola-esparruan sartzea. Alkoholik gabeko edariak eta janaria berariaz adierazitako lekuetan baino ezingo dira kontsumitu, eta bildukinak eta hondakinak jaso egin beharko dira horretarako jarritako ontzietan.

- Institutuan ezin daiteke erre. Arau hau ez betetzea ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidetzat hartuko da

c) Ikastetxea derrigortuta dago ikasleen famili egoera edo egoera pertsonalari buruz duen informazioa isilean gordetzera, hezkuntza Administrazioaren informazio beharrezkoak asetzeko kaltetan izan gabe, antolamendu juridikoari jarraituz. Gainera, eskumena duen agintaritzari jakinarazi beharko diote ikasleak tratatu txarren pean edo adingabekoak babesteko legeak ezarritako betekizunak ez-betetzeak egon daitezkeenean.

d) Tutoreek eta gainerako irakasleek Zuzendariaren edo ikasketa-buruaren jakinaren gainean jarriko dituzte tratatu txarrak, hurrak babesik gabe geratzearen arriskua, bai eta berdinaren arteko tratatu txarrak (bullying) egon daitezkeelako susmoak, hauek dagokion protokoloa jarrai dezaten.

e) Sakelako telefonoak eta bestelako tresna teknologikoak gordeta egongo dira eta ezin izango dira eskola-esparruan edota bere eraikuntzetan erabili.

Debekatuta dago hezkuntza komunitateko kide bati argazkiak egitea edo grabatzea beronen berariazko baimenik gabe, eta, baimena izanda eginiko argazkiak ezin izango dira dagozkionaren baimenik gabe erabili.

Telefonoak edo bestelako tresnak behar ez bezala erabiliz gero, astebetetz atxikiko dira eta ikaslearen arduradun batek etorri beharko du bila; bigarrenez kentzen bada, ez da bi aste igaro arte itzuliko eta horrela gainerakoa.

Ikastetxera mugikorrik edo baliozko gauzarik ez ekartzea gomendatzen da; izan ere, Institutoak ez ditu bere gain hartuko gerta litezkeen galtze edo desagertzeak.

- Ikasleak mobila uzteari uko egingo balio, etxera deituko da eta familia jakitun egon ondoren, etxera joango litzateke 3 egunetarako. Berrito gertatuz gero, astebeterako.

f) COVID neurriak:

- Maskararen erabilera derrigorrezkoa da ikastetxe barruan. Behin eta berrito maskararen erabilera desegokia izanez gero, parte ipiniko zaio ikasleari. Era berean, Hezkuntza komunitatearen Osasuna arriskutan jartzeak kanporaketa suposatuko du.

- DBHko maila bakoitzari atsedenaldiran leku zehatza egokitu zaio. Behin baino gehiagotan betetzen ez duen ikasleari parte ipiniko zaio.

5.- Ikasleek eskubidea dute eskola-orientazioa, bokaziokoa eta lanbidekoa jasotzeko, eta, hala, libreki erabakitzeke, bere gaitasunen, jakintza-mailaren eta ahalmenen arabera, hori bermatzeko, Ikastetxeak, Orientazio departamentuaren eta tutoretza erregimenaren funtzionamendu normalaz gain, eskolaz kanpoko ekintzen eta osagarrien programan, dagozkion bisitaldiak eta prestakuntza ekintzak sartuko ditu.

69. artikulua.- Eskola konpentsatzaile baterako eskubidea

1.- Institutoak onartu egingo ditu sartzeko eskabidea egiten duten ikasle guztiak, baldin eta lekuri badago, eta ez du inongo baremorik aplikatuko funts publikoekin eutsitako ikastetxeetan Ikasleak Onartzea arautzen duen Dekretuak ezarritakoetatik kanpo, eta Ikastetxeari esleitutako zatia ez du erabiliko jaiotza, arraza, hizkuntza, sexua, gaitasun ekonomikoa, gizarte maila, sineste politikoak, moralak edo erlijiozkoak direla eta, edo urritasun fisiko edota psikikoengatik, edo bestelako inguruabar personal edo gizartekoengatik era negatiboan baztertzeko. Aitzitik, gaitasun ekonomiko edo gizarte maila txikiagoa eta urritasun fisiko eta psikikoak dituzten hautagaien aldeko diskriminazio positiboko neurriak sartzeko erabili ahalko da.

2.- Ikastetxea lankidetzan arituko da hezkuntza administrazioarekin derrigorrezko eskolatze adinean egon eta beste Ikastetxe batzuetan zigortuak, kaleratuak edo ezgaituak izan diren ikasleei eskolan leku bat bermatzeko, zehapenak irauten duen bitartean, eta 97.4 artikulua arabera.

3.- Ikastetxeak, Euskal eskola Publikoaren legearen 10 eta 68. artikuluetan ezarritako moduan, beste zerbitzu publiko eta erkidegokoekin harremanak izan ahalko ditu gizarte, kultura eta ekonomia mailan bereziki kaltetutako ikasleen beharrezko artatzeko.

4.- Famili ezbehar edo istripua gertatuz gero, Ikastetxeak, ikasleak Eskola Aseguruak babestuta badaude, jakinarazi egingo diete ikasleei –eta adingabeak badira, guraso edo legezko ordezkari- zein diren eskura dituzten prestazioak eta nola eska ditzaketen.

5.- Istripu edo gaixotasun luzea denean, derrigorrezko hezkuntzan dauden ikasleek eskubidea izango dute, Ikastetxeak berak emanda, ospitalekoak edo etxeko artatze zerbitzuek emanda, beharrezko duten laguntza jasotzera, indarrean dagoen araudiari jarraituz, istripua edo gaixotasunak bere eskola errendimendua kaltetu ez dezan.

70. artikulua. Parte hartzeko eskubidea

1.- Gobernu Organoek bermatu egingo dute parte hartzeko eskubidea, Legeek ikasleei aitortzen diena, modu eragingarrian egikaritu dadin, horrekin lotutako alderdi guztiak zainduz eta eskubidearen egikaritzeak duen hezkuntza xedeari erantzun diezaien, eta hori guztia adingabeari babesteko Legeak horren inguruan agintzen duenarekin bat eginez.

2.- Eskola Kontseiluak Ikastetxeari berari buruzko informazioa eta orokorrean hezkuntza sistemari lotutakoa emateko eskubidea, Araudi honetan ezarritako organoen bitartez egikarituko da. Ikasketa-buruak, tutoreen bitartez, zaindu egingo du informazio hori modu egokian transmititu dadin.

3.- Ikasleek biltzeko eskubidea dute, apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuaren 18. artikulua aitortzen dieten moduan, eta honela gauzatuko da eskubide hori:

a) Taldeak euren ikasgelan bertan bildu ahalko dira, tutoreak jakinda eta, kasua bada, bertan dagoela, gai akademikoak aztertzeko, eskola orduak galdu gabe, eta beharrezko irizten dieten bakoitzean. Bestalde, aurretik irakasle tutoreari aztergaien zerrenda emanda, hilean eskola-ordu batez bildu ahalko dira gehienez. Bilera hauetara ezingo da bertaratu taldekoa bertakoa ez den beste ikaslerik. Bilera hauen presidentzia eta Zuzendaritza, Irakasle tutorea egon ezean, ikasgelako ikasleen ordezkariari dagokio.

b) Zuzendariak bilera leku bat adieraziko du Ordezkarien batzarrerako, eta Araudi honetan aipatzen diren funtzionamendu arauetan agintzen den bilera-erregimenari jarraituko zaio.

c) Ordezkarien batzarrak, egoki irizten dionean, ordezkaturako ikasleei kontsulta bat egitea erabaki ahalko du. Horretarako, Ordezkarien Batzarrak Ikasketa-buruari eskaera egingo dio, eta honek eman edo ukatu egingo dio kontsulta hori, aztergaien zerrenda ikusita, eta behin aurkeztutako gaiak Ordezkarien Batzarraren eskumenetarako egokiak diren ala ez erabakita. Bestalde, aurreko bilerako edo bileretako aztergaien zerrenda betetzen ez bada baimena ukatu egin ahalko da. Ikasketa-buruaren erabakiaren aurka erreklamazioa aurkeztu ahalko zaio Zuzendariari.

Bilera horien deialdia jakinarazi egin beharko zaie, aurreko egunean, ikasle guztiei, ikasle ordezkarien bitartez eta eguneko aztergaiak ere jakinarazpenean jasota daudela. Bertaratzea ez da inola ere derrigorrezkoa izango.

Ikasketa-buruak bilera egingo deneko lekua eta ordua adieraziko du. Ordua, hasiera batean, eskola-orduetatik kanpokoa izango da. Horretarako, Ikasketa-buruak eskola-orduak egokitu egin ditzake. Ikasketa-buruak, aztertu beharreko gaien kopurua eta izaerak hala eskatzen duela irizten badio, eskolak murriztu ahalko ditu, bilerari emandako denbora ordubetera irits dadin beharrezkoa den adina. Murrizketa hori eskola guztien artean banatuko da, erabaki hori aurreko egunean hartzen bada; hala, irakasle guztiek jakin beharko dute. Erabakia egunean bertan hartuz gero, bilera egiten deneko atsedenaldiaren aurreko eskola eta ondorengoa baino ez dira murriztuko.

4.- Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak ikasleei aitortutako adierazpen askatasun eskubidea egikaritzeko,

a) Eskola Kontseiluak eskubide hori egikaritu ahal izateko modua, lekua eta espazioak arautu egingo ditu, eta, beti ere, erakundeek eta hezkuntza komunitateko kide bakoitzak merezi duten errespetua zaindu beharko da.

b) Beti ere, honetarako izendatutako leku eta espazioetan jarritako informazio guztiak argi eta garbi jasota izan beharko du informazio horren erantzule den pertsona, erakunde, elkarte edo taldearen izena.

c) Ikasgelen barruan eskola jardunari buruzko informazioa baino ez da egongo, edo Zuzendaritza taldeak, gaiak duen garrantzia eta egokitasuna kontuan hartuta, egoki irizten dituen beste batzuk.

Arau horiek errespetatzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira Zuzendariaren edo ikasketa-buruaren aginduz.

5.- Desadostasuna eskolara huts eginda adierazi nahi bada, horri buruzko erabakiak ondorengo ataletan ezarritakoari lotuta egongo beharko du:

a) Eskola eremutik ateratzeko edota ez bertaratzeko proposamenei dagokienez, indarrean dagoen araudia, 201/2008 DEKRETUA, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa, beteko da (14.artikulua). Ikasleek, gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute, baldin eta adinez txiki badira. Idazki horretan, ikastetxetik ateratzeko baimena zer ordutan ematea eskatzen den adierazi beharko da, hala badagokio, erantzukizun zibilak zehazteko. DBHko 1. Zikloko ikasleak eragin guztietarako salbuetsita geratzen dira.

b) Eskolara hutsegiteko proposamena hasiera batean Ikastetxeko Ordezkarri Batzarrak onetsi beharko du, bere ekimenez edo Ikastetxean matrikulatutako ikasle guztien edo ikasturte hasieran Eskola Kontseiluak aitortutako ikasle-elkarte, federazio edo konfederazioen ordezkari baimenduen % 5ak, gutxienez, hala eskatuta, eta aurretik eztabaida bat eginda, non honako alderdi hauek aztertuko baitiren, besteak beste:

- Nork antolatu du deialdia.
- Hezkuntza ala prestakuntza du helburu.
- Deialdiak ikastetxearekin duen lotura.
- Zenbat denbora dagoen ikasleek kontuan hartzeko.
- Aurretiko deialdi hurbilekorik egon de, edo hurrengorik aurreikusten den.

- Bitarteko horiek zergatik erabili diren eta ez beste batzuk.

- c) Ordezkarri Batzarrak proposamena onesten badu, deialdia idatzi egingo da, arrazoituta, artikulua honen 5, a) atalean adierazitako alderdiei begiratuta, eta adierazi egingo dizkiote dei-egileek Ikasketa-buruari egunak, orduak eta programatutako ekintzak, gutxienez bi egun baliodun lehenago, baldin-eta salbuesenez, premiazko arrazoi arrazoituak ez badaude.
- d) Deialdia, horrela idatzitakoa, Ikastetxeko Zuzendaritzari jakinaraziko zaio eta horretarako prestatutako lekuetan jarriko da, artikulua honetako 4 atalean ezarritakoari jarraituz. Adierazitako lekuetan jarrita egongo da bozketak amaitu arte.
- e) Ordezkarri bakoitzak bere taldeko ikasleei jakinaraziko die deialdia dagoela, eta ikusgai non dagoen ere bai. Gelako ikasleen gehiengoak deialdia ikasgelan irakurria izan dadin hautatzen badu, ordezkarri edo ordezkariordeak irakurri egingo du ikasgelan, ahalik eta denbora laburrenean, atsedenaldira aurretik edo ondorengo eskola-orduetan. Bozketa, ondoren, idatziz egin ahaliko da, eta isilpean. Botoak bai/ez/zuri izan daitezke. Emaizak akta batean jasoko dira, eta, baliozkoa izateko, sinatu egin beharko dute hauek: ikasleen ordezkarri edo ordezkariordeak, bi ikasleak (bertaratuena zerrendan, lehenengoak eta azkenak) eta irakasleak (bertan egonez gero).
- f) Ikasketa-buruak bozketa egiten deneko atsedenaldiraren aurre-aurreko eta ondorengo eskolen murrizketa erabaki ahaliko du.
- g) Bozketa amaituta, ordezkarri edo ordezkariordeak Ikasketa Burutzara eramango du akta, eta bertan botoen zenbaketa egingo da. Bozketa jardun akademikoaren etetei dagokienean (geldialdia edo greba eguna), proposamena onesteko, baiezkoek emandako botoen erdia gehi bat izan beharko dute, eta, era berean, ikasle matrikulatuena % 80 izan beharko dute gutxienez. (% 70, Gaueko ikasleen kasuan).
- n) Ikasketa-buruak deialdiaren emaitza jendaurreratu egingo du. Emaizta ez da loteslea izango ikasleentzat, eskolara bertaratzeko banakako eskubidea egikaritu ahaliko da, baina horrela onetsitako deialdia jarraitzen dutenen eskola ez-bertaratzeari ez da hutsegite gisa hartuko. Era berean, ezingo da azterketarik egin. Azterketa, geldialdi unerako aurreikusita egonez gero, hurrengo eskola-egunera aldatuko da.
- i) Institutua libre geratzen da geldialditik, eskolara ez bertaratzetik edo grebatik eratorritako edozein arazoren aurrean, behin DBHko ikasleen gurasoak ohartarazita eta indarrean dagoen legediak ezarritako tramiteak beteta.
- j) Dena dela, Ikastetxeak eskola ematea bermatuko du, bertaratzeko ez diren ikasleen kopurua dena delakoa ere. Irakasleak Ikastetxean egongo dira nahi dute ikasleei eskola emateko.

71. artikulua.- Ikasleen betebeharrak

1.- Ikasleek Hezkuntza Komunitateko gainerako kideen eskubide eta askatasunen egikaritzea errespetatzeko betekizuna dute. Behar hau honako betekizunetan zehazten da:

- a) Hezkuntza Komunitateko kide guzien kontzientziaren askatasuna, sinesmen ideologiko, erlijioso, moral eta etikoak, nahiz duintasuna, segurtasuna eta intimitatea errespetatzea.
- b) Hezkuntza Komunitateko kide bat ere ez baztertzeari, jaiotza, arraza, sexua, ideologia, hizkuntza, kultura erlijioa edo iritzia edo beste edozein inguruabar pertsonal edo gizartekorengatik.
- c) Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua errespetatzea, indarrean dagoen legediarekin bat eginez.
- d) Antolamendu eta Jarduera Araudia betetzea.
- e) Ikastetxeko ondasun higigarriak eta instalazioak errespetatu eta modu egokian erabiltzea.
- f) Ikastetxeko irakaste giroaren, eskola orientazioaren eta bizikidetzaren hobetze bidean, Hezkuntza Komunitateko gainerako kideekin batera modu aktiboan parte hartu eta laguntzea.
- g) Ikasle guztiek eskolara bertaratzeko duten banakako eskubidea errespetatzea.

2.- Ikastea ikasleen oinarritzeko eskubidea da eta norbere gaitasunak eta emandako ezagupenen aprobetxamendua sartzeko da eskubide horretan, garapen pertsonal onena eta prestakuntza intelektual eta profesional egokia lortzeko xedez. Behar orokorra honako betekizunetan zehazten da:

- a) Eskolara bertaratzeari, eskola-egutegian zehaztutako ekintzetan parte hartzea eta ezarritako ordutegiak errespetatzea.
- b) Eskolan irakaslearen azalpenari arreta jartzeari, eta honek proposatutako jarduera didaktikoak burutzeari.
- c) Irakasleak, Antolamendu eta Jarduera Araudian zehaztutako irizpideen arabera, bere irakasle funtzioen egikaritzean emandako lanak burutzeari.
- d) Ikasleek ikasketarako duten eskubidearen egikaritzea errespetatzea.
- e) Ezinbestekoa da ikasgai bakoitzari dagokion lan egiteko materiala (liburuak, koadernoak,

boligrafoak eta abar.) ekartzea. Material hau zaindu egin behar da. Arau hau ez betetzea jokabide desegokia etsiko da.

f) Ikasgelak garbi eta txukun egon behar du beti. Bestela, irakasleak garbiaraziko du. Gelak atsedenaldiaren aurretik, ostean eta azken orduetan begiratuko dira.

g) Klase ordutegiaren barruan guztiok ikasgelan egongo gara dagokigun irakaslearen ardurapean, baita azterketetan ere. Azken ordua izango balitz, Batxilergoan, irakasleak irteteko baimena eman diezaioke amaitu duen ikasleari, hala nola euskaratik salbuetsita dagoen ikasleari.

3.- Betekizunak betetzen ez dituzten ikasleak neurri zuzentzaileen hartzekodun izan daitezke. Neurri horien artean dago ez-betetze horren ondorioz ikastetxeko instalazioetan eta altzarietan eragindako kalteen ordainketa. Zigor hau ahalik eta gehien banakatu beharko da. Hala ere, talde baten erabilera okerraren eraginez gertatuz gero, ikasle erantzuleen taldeari edo taldeei eskatu ahalko zaie ordainketa.

72. artikulua.- Ikasleak eskoletara etortzea eta garaiz iristea. Bizikidetzarako beste arau batzuk

1.- Ikasle ofizial guztien **eskubide eta betebeharra da** eskoletara bertaratzeko. Inola ere ezingo da borondatezko asistentzia ezarri ikaslea matrikulatuta dagoeneko ikasgaietarako.

2.- Dena delakoagatik egun jakin batzuetan ikasle gutxi bertaraten badira ere, **Ikastetxea eta irakasleak normaltasunez eman beharko dute eskola.**

3.- Asistentzia hutsegiteen justifikazioa ikasleen guraso edo legezko tutoreek egin beharko dute atxikitako tutore edota irakaslearen aurrean, adiz txikikoa izanez gero.

18 urtetik gorako ikasleek, euren hutsegiteen ziurtagiriak aurkezteko aukera hautatuz gero, edozein lan arlotan aurkezturiko ziurtagiriak ekarri beharko dituzte.

4.- Ikasleren batek bertaratzeko hutsegiteak behin eta berriz eta era indiskriminatuan zuzitzen dituela irizten bazaio, zuziketaren kontrol handiagoa egiteko proposamena luzatu egin ahalko dio Ikasketa-buruak Eskola Kontseiluari.

18 urtetik gorako ikasleek, euren hutsegiteen ziurtagiriak aurkezteko aukera hautatuz gero, edozein lan arlotan aurkezturiko ziurtagiriak ekarri beharko dituzte.

5.- Bertaratzeko betekizuna ez-betetzeak dagozkion neurri zuzentzaileak sortuko ditu baldin eta bizikidetzari doitzen ez zaion jokabidea eratzeko bada Araudi honetako VI tituluan ezarritakoaren arabera, hau da, justifikatu gabeko hutsegiteak %20 edo gehiago badira ebaluazio jarraia izateko eskubidea galtzen da DBH3. eta DBH 4. mailatan eta batxilergoan.

6.- Asistentzia hutsegite guztiak, zuzituak izan edo ez, jakinarazi egingo dizkie taldeko irakasleak edo tutoreak gurasoei, eta dagozkion informazio buletinetan ere adierazita geratuko dira.

7.- BATXILERGORAKO PROPOSAMENAK

1. Batxilergoko ikasleek, adin txikikoak barne, azterketetara eginiko hutsegitea agiri ofizialen bidez zuzituko dituzte. Ezarritako datan egiten ez diren azterketak eta proba objetiboak berreskuratze azterketan egingo dira. Kasu honetan, nota ez da berreskuratze nota izango, azterketa nota baino. Ez gaudituz gero, mintegi bakoitzaren irizpideen arabera jokatu da.

2. Hutsegiteak %20 edo gehiagokoak badira, ebaluazio jarraia zateko eskubidea galduko du eta deialdi ofizialetan (ohikoa eta apartekoan) parte hartu beharko du.

8.- Irakaslea noizbait ez baletor, gelan gelditzen gara zaintza irakaslea etorri arte. Egoera honetan zaintza irakaslea taldearen arduraduna eta, beraz, bere esanetara egongo gara. Ikasleak ezin izango dira ikastetxetik irten, atsedenaldietan izan ezik.

9.- Puntualtasuna: Eskola hasierarako puntualtasuna guztion betebeharra da. Irakaslearen puntualtasun eza edo ikasleak eskola hasitakoan sartzea, eskola horretarako etena edo oztopoa da, beraz, behin eta berriz zuzitu gabeko puntualtasun eza denean, Zuzendaritzari jakinaraziko zaio honek hartu beharreko neurriei buruz erabaki dezan.

Orokorrean, jarraibide gisa finkatzen da lehenengo orduan ikasleek ezingo dutela eskola-esparruan sartu eskolak hasteko ordu ofiziala baino 5 minutuko atzerapenez edo beranduago iritsiz gero. Gainerako eskoletan ere, 5 minutuko margena egongo da. Irakasleak ezingo du erabaki ikaslea gelan ez sartzea baldin-eta ikasle hori ezarritako 5 minutuko margenean iristen bada. Ikasle bat lehen orduan behin eta berriz

berandu iristen bada eta, puntualtasun eza salbuespena izan dadin, atzerapena ezarritako 5 minutuko margenaren barruan egonda ere, ikasle hori gelan sar ez dadin erabaki ahal izango da.

Institutuko blitzarako garrantzitsua da guztiok, ikasle eta irakasle, puntualak izatea klasera sartzerakoan. Lehenengo orduan, ordutik 5 minutu beranduago heltzen bazara, ezin izango zara sartu Institutuan justifikantea ekartzen ez baduzu. Gainontzeko orduetan ikasgelara irakaslea baino beranduago sartzea jokabide desegokia etsiko da. Ikasleak ezin dira inondik ere pasabideetan egon.

10.- Ordena eta isiltasuna: DBHn klase ordu aldaketetan gelan gelditzen gara pasabidera irten barik eta irakasleak erabakiko du nola joan ahal diren ikasleak komunera.

Batxilergoan ikasleagoa komunera joango da modu arin eta ordenatuan.

Atsedendietan ikasleagoa patiora jaitsiko da. Liburutegira ere joan ahal da, prentsa irakurtzera zein libururen bat kontsultatzen. Liburutegia lan egiteko tokia da eta, beraz, isilik egon beharrekoa, baita atsedendietan ere. Arau hau errespetatzen ez duen ikasleari alde egiteko esan ahal izango dio liburutegiko arduradunak eta jokabide desegokitzat hartuko da.

Pasabidetatik lasaitasunez mugitu behar dugu, zaratarik egin gabe, korrika egin gabe eta jolastu gabe. Edozein jskanbila jokabide desegokia etsiko da.

11.- Higienea eta garbiketa:

Garbiketa, norbere garbitasuna, erabilera komuneko espazioen errespetu osoa, gizarte talde baten kultura mailaren eta elkartzaren adierazle dira. Guztiok, ikasle eta irakasle, gure espazio komunak garbiak eta erosoak izan daitezten lagundu behar dugu, eta Institutuan errespetua, higiena eta garbitasuneko kultura tradizioa sortzen ere bai. Horrekin bat eginez, jokaera insolidarioak saihestu egin behar dira, hala nola, zakarrak lurrera botatzea zakarrentzira bota beharrean, komunitako garbitasuna ez zaintzea, lanerako mahaiak zikintzea, eta hormetan, kristaletan edo ateetan pintadak egitea.

Ikastetxeak sustatu egingo du higienarako eta garbitasunerako kultura. Jokaera insolidarioak behin eta berriz gertatzen badira, zuzendu egingo dira, eragindako kaltea konpontzen duten lanak emanda zigortuta.

Ikasleak garbi eta janzkera egokiaz etorriko dira. Institutu barruan debekaturik daude, aurpegia estaltzen edo identifikazioa eragozten dituzten arropak edo hornigarriak: txanoak, eguzkitako betaurrekoak,...mediku kasuak eta erlijiosoak izan ezik. Azterketetan ikasle guztiek izan beharko dituzte belarriak ikusgai.

12.- Materiala: Normala da Ikastetxeko instalazioek denboraren poderioz narriadura jasatea. Baina nahita egindako eta justifikaziorik gabeko hondatzeak ere eragin daitezke, eta hori oso kaltegarria da egungo eta etorkizuneko ikasleentzat. Argi dago, bestalde, zergadunak ez duela zertan Ikastetxe publiko batean eragindako halako kalteak ordaindu beharrik. Beraz, kalte horien erantzuleak zigortu egingo dira eta eragindako kaltearen ordainketa ekonomikoa eskatuko zaie.

13.- Informazio panelak: Solairu guztietan kortxoak panelak egongo dira jarrita ikasle eta irakasleek besteei euren ideia, kezka, iradokizunak, informazioa bileratuko deialdiak eta halakoak jakinarazteko. Panel horietan edozein idazkik izango du lekua, pertsona, talde edo kolektibo jakinen aurkako iraina edo laidoa ez bada. Idazki edo kartelak jartzen dituzten pertsona edo kolektiboek sinatu egin beharko dituzte, eta kartela kentzeko eguna ere jarrita eduki beharko dute, baldin-eta kanpaina edo ospakizun jakin baten inguruko informazioa emateko bada. Pertsona edo kolektibo batek ezingo ditu, alde bakarreko erabakiz, kendu. Baldin eta pertsona edo kolektiboaren aurkako irain larriak direnean Zuzendaritza taldeak kendu ahalko ditu, edo irakasleak ere bai, baldin-eta berehala Zuzendaritza taldeari jakinarazten badio. Honek kartela edo informazioa sinatu duen pertsona edo taldeari jakinaraziko dio, halakorik berriro gerta ez dadin. Aurreko jokabidea salbuespenezkoa izango da beti, eta kartela sinatu dutenek kentzea izango da lehenetsiko dena, aurretik Zuzendaritza taldearekin bilera egin ostean. Sinatuta ez dagoenean, Zuzendariak, Ikasketa-buruak eta ikasleen ordezkariak osatutako batzorde batek kendu ahalko du. Dena dela, kartelak jarri dituztenak izango dira kentzen dituztenak ere, behin asmoa beteta edo kartelean jartzen duen eguna iritsita. Beste alde batetik, Ikastetxetik kanpoko inork ezingo du kartelik jarri Zuzendaritza taldearen baimenik gabe.

Horrela idatzizko adierazpen askatasuna bermatuta, barruko eta kanpoko hormetan pintadak egitea gaitzesgarriak eta zehagarriak dira, inongo beharrik gabe zikintzen baitituzte hormak, eta, gainera, garbiketan saihestu beharreko gastua eta ahalegina eskatzen du.

Ospakizunak, jardunaldiak, lan taldeen informazioa edo kanpaina kulturalak edo akademikoak direnean, hormak ere erabili ahalko dira kartelak jartzeko, beti ere Zuzendaritzaren oniritzia jasota. Horma kristalezatuak ez dira, ordea, inoiz erabiliko. Horma gainean arte izaerako dekorazio lanek-eta, organo eskudunek onetsiak izan beharko dute.

14.- Jaiak: Jai deialdiak Eskola Kontseiluak onetsi beharko ditu, eta batzorde antolatzaileak aurkeztu egin beharko du egitekoak diren ekintzen programa bat. Batzorde antolatzailea izango da jaiak iraun bitartean ordenari eustearen erantzulea, bai eta ondorengo garbiketarena ere. Jaiak ikastetxearen diru-laguntza izango dute, baldin eta kontuen egoerak halakorako ematen badu.

15.- Esparru akademikoaren erabilera: Institutuko esparrua bertan matrikulatutako ikasleen ekintza akademikoetarako, osagarrietarako eta eskolaz kanpokoetarako gordeta dago. Beraz, Eskola Kontseiluak edo Zuzendaritzak ezagutu eta onetsitako ekintzetarako salbu, ezingo da eskola-esparruan bertakoa ez den inor sartu.

DBHko ikasleek, 3.mailatik gora, atsedenaldirik gabe irteerako aukera dute gurasoen edo tutorearen idatzizko baimena izanik.

Inguruko errealitatera hurbildu nahi duen Ikastetxe bat izaki, Ikastetxearen instalazioak kanpoko taldeei utzi ahalko zaizkie, pluraltasun eta ez-bazterkeria irizpideen pean, eta Eskola Kontseiluak adierazitako jarraibideei jarraituta.

Klase ordutegiaren barruan guztiok jaskgelan egongo gara dagokigun irakaslearen ardurapean, baita azterketetan ere. Azken ordua izango balitz, Batxilergoan, irakasleak irteerako baimena eman diezaioke amaitu duen ikasleari, hala nola euskaratik salbuetsita dagoen ikasleari.

V. TITULUA. EBALUAZIOAZ

I. KAPITULUA: PRINTZIPIO OROKORRAK

73. artikulua.- Ikaslearen ebaluazioaren helburu eta izaerak

1.- Ikasleen ikasketa prozesuaren ebaluazioaren helburuak dira heziketa aprobetxamenduaren balorazio zuzena, ikaslearen eskola-orientazioa eta lanbidekoa egiteko beharrezko diren datuak lortzea, eta zailtasunak antzematea, sortzen direnean bertan, horrela zailtasun horiek gainditzen lagunduko duten neurriak hartzeko.

2.- Ikasleek ebaluazioa etengabekoa, integratzailea eta banakakoa izango da, eta jarduera sistematikoa eta iraunkorra izango da, ikaste/irakaste prozesuan sartutakoa. Ikasleen ikasketen balorazioa egiteko, ikasgai bakoitzerako ezarritako ebaluazio irizpideak hartuko dira erreferentzi hurbileko gisa. Betetze maila neurtzeko, ikastetxeak bere IKPan ezarritako hezkuntza helburuekiko alderaketa egin beharko da, eta Didaktika departamentu bakoitzak ezarritako programazioei begiratu zaie.

3.- Dena dela, Hezkuntza Sailak Bigarren Hezkuntzako hezkuntza tarte bakoitzeko ikasleen ebaluaziorako garatutako araudi berezitua hartu beharko da kontuan.

74. artikulua.- Ebaluazioaren arduradunak

Irakasle taldea, talde bakoitzeko irakasle tutoreak koordinatuta, eta prozesu osoan elkargo moduan jokatuz, izango da artatzen duten talde bakoitzeko ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioaren arduraduna, eta euren ardurapekoak izango dira prozesu horren markoan hartutako erabaki guztiak ere.

75 artikulua.- Ikasleen oinarrizko dokumentazioa

Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioaren emaitzak idatziz jasoko dira 2008ko uztailaren 7ko Aginduan ezartzen diren dokumentuetan. Honako hauek dira:

1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat:

- Espediente Akademikoa
- Historial akademikoa
- Gainditzeke dituen ikasgaien aktak
- Aparteko deialdien aktak

2.- Derrigorrezkoaren osteko irakaskuntza arautuko ikasketak egiten ari diren ikasleentzat (2009ko otsailaren 27ko EHAA)

:

- Espediente Akademikoa
- Ebaluazio aktak
- Ikaslearen lekualdatze txostena.
- Batxilergoko historial akademikoa.

76. artikulua.- Ebaluazio prozesuaren garapena

1.- DBHko ikasturte bakoitzaren hasieran, irakasle taldeak hasierako ebaluazio bat egingo du, ikaste/irakaste prozesuaren abiapuntua finkatze aldera. Horretarako, Lehen hezkuntzako ikastetxeak edo aurreko ikasturteko irakasle taldeak igorritako ebaluazio banakatuaren txostena kontuan hartu beharko da.

2.- Derrigorrezkoa bigarren hezkuntzaren osteko ikasleentzat, ebaluazio prozesuan, bi ekintza mota egin beharko dira: ebaluazio jarraitua, ikasketa prozesu osoan burutuko dena, eta amaierako ebaluaketa, ikasleek dagokion eskolaldia amaitzean lortutako emaitzak balioesten dituen.

3.- Sistematikoki ikaslearen ikasketa prozesutik eratorritako informazioak jasotzeko xedez, ikasturte bakoitzean zehar, irakasleen bilerak egingo dira, dagozkion ebaluazio saiok egiteko. Ebaluazio saioetan irakasle taldea biltzen da, eta taldeko tutoreak koordinatuta –eta, kasua bada, ikastetxeko orientatzailearen laguntzaz- eta elkargotutako deliberazioa eginda, saio bakoitzera arteko ebaluazioetan lortutako emaitzak dokumentuetan idatziz jasotzen dira.

4.- Ikasturte bakoitzean zehar, gutxienez, hiru ebaluaketa- eta kalifikazio saio (hiruhilekoan bat) egingo dira, eta ikastetxeak eginiko Kurrikulu Proiektuan jasotako aurreikuspenei lotu beharko zaie. Ebaluazio saio bakoitzaren amaieran, tutoreak akta idatziko du eta bertan, ordua, lekua, bertaratuak eta bertaratu gabeak jasotzeaz gain, hartutako erabakiak ere jasoko dira; horretaz gain, irakasle bakoitzak emandako informazioa

eta ikaslearen ikaste/irakaste prozesua hobetze aldera zein neurri hartuko diren ere jasota geratuko da.

5.- Ebaluazio Batzordea: Ezin da ebaluatu aurretik ikasketa prozesua programatu gabe; izan ere, ebaluatzea, beste gauza batzuen artean, aurretik programatutako prozesu hori hobetzen ahalegintzea da, era ez soilik ikaslearen errendimenduari dagokionean. Eskola aurrerakoi eta demokratikoaren ildo pedagogikoan, ebaluazioa, gainerako irakaste jarduna bezala, irakaslearen, ikaslearen eta lan taldearen arteko elkarrikeria eta partaidetza burutu behar da.

- Ebaluazio saio bakoitzaren hasieran, Tutoreak ikasgaien martxa balioetsiko du bere taldearekin. Balioespen honetarako puntuak:

- Aldi horretan edukiei dagokienez ikusi diren gaiaren edo gaien analisia.

- Ebaluatzea den epean erabilitako metodologiaren ebaluazioa. Ikasleek eskoletan izan duten partaidetza maila bereziki analizatzea, eskolak magistralak izan diren, eta abar.

- Ebaluazio jarraitua: Eguneroko lana modu jarraituan ebaluatzen den, edo funtsean azterketa den ebaluatutakoa. Azterketa benetan proba jarraituak diren, edo amaierako azterketa bat, ikusitako gai guztiei buruzkoa.

- errendimenduen analisia.

- Batzordeak Tutoreak zuzendutako saioaren akta beteko du.

- Osaera: Tutoreak, taldearen irakasleek eta bertako ordezkariak –kideek hautatutakoek- osatuko dute. Hauek Saioaren bigarren fasean parte hartu ahalko dute. Ebaluazio Batzordeak eragingarriak izan daitezten, irakasleek nahi ikasleek errespetatu egin beharko dute elkarri kritika egiteko eskubidea. Honen inguruan arazorik sortuko balitz, honako urrats hauek eman beharko liriteke: Ikaslea — Tutorea. Ebaluazio Batzordea. Ikasgelako Batzarra. Eskola Kontseilua. Arazo akademiko larriak daudenean, gaia Ebaluazio Batzarrean aztertu ahalko da, Ikasgelako Batzarrean eta, Eskola kontseiluan ere bai.

6.- Irakaste garaia amaitzen, azken ebaluazio saioan, ikasturteko gaien amaierako kalifikazioa emango da.

II. KAPITULUA.- IRAKASTE PROZESUAREN EBALUAZIOA

77. artikulua.- Irakaste/ikaste prozesuaren ebaluazioaren plangintza egitea

1.- Ebaluazioaren helburua irakaste prozesua ikaslearen ezaugarri eta beharrei egokitzen garen ikustea da, eta, horren arabera, irakasle jardunean beharrezko hobekuntzak sartzea; helburu horrekin bat eginez, beharrezkoa da, gainera, irakasle prozesuan inplikaturako elementuen garapena baloratzea.

2.- Talde bakoitzaren irakasle taldeari dagokio, dagozkion Didaktika departamentuekin koordinatuta, irakaste prozesuaren ebaluazioaren plangintza burutzea; modu horretan hezkuntza prozesu osoan, eta ikasturte amaieran, irakasle jardunaren analisi bat bermatuko da.

3.- Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak edo, kasua bada, Zuzendaritza taldeak, unean-unean zehaztuko du Irakaste/ikaste prozesuan ebaluatu beharreko alderdi garrantzitsuenak zein diren, Ikastetxearen funtzionamenduari lotuta eta Kurrikulu Proiektuak zehaztutakoaren arabera. Hainbat kontu hartu beharko dira aintzat horretarako: irakasle eta ikaslearen arteko harremana, irakaslearen eta ikaslearen familien artekoa, Ikastetxearen baliabideen aprobetxamendua, organoen arteko koordinazioa edo irakaste jardunaren garapenaren arduradunen artekoa eta abar.

4.- Irakaskuntza profesional bakoitzari dagokio bere jardunaren irakaspen prozesuaren ebaluazioa egiteko lana. Definitutako estrategia globalak oinarri hartuta, irakaskuntza prozesua aztertuko du, eta zein elementu aldatu behar diren eta zein zentzutan zehaztuko du.

5.- Beti ere, irakaste prozesuaren ebaluazioa Ikastetxearen antolamenduari oinarritutako dokumenturen batean islatuta dagoela bermatuko da (Memorian, esaterako), eta Ikastetxearen Kurrikulu Proiektuaren egokitzapenean Didaktika departamentuek eginiko programazioetan eragina duela, bai eta irakasle bakoitzak burututakoetan ere, aitzinean aipaturako dokumentuen arabera.

III. KAPITULUA.- IKASLEEN ESKOLA ERRENDIMENDUAREN EBALUAZIOARI BURUZKO ERREKLAMAZIO ETA INFORMAZIOA

78. artikulua.- Printzipio orokorrak

Euskal Eskola Publikoaren Legearen 16. artikulua agindutakoa betetze aldera, eta ikasleek euren errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiboa behar bezala bermatzeko duten eskubidea bermatzeko –araudi honetako 86.3 artikuluan ezarrita bezala-, Ikastetxeak kapitulu honetan ezarritako eta publikitate, informazio eta gardentasun printzipioetan oinarritutako berme sistema hartuko du.

79. artikulua.- Ebaluazio helburu, eduki eta irizpideen gutxienerako jendaurreratzea

- 1.- Ikastetxeak bermatu egin beharko du ikasleek eta euren legezko ordezkariak Ikastetxearen Kurrikulu Proiektura iristeko eskubidea, eta horretarako egoki irizten zaion prozedura erabiliko da.
- 2.- Era berean, ikasgai edota area bakoitzerako eska daitezkeen gutxienerako helburu eta edukiei buruzko publikitatea eta informazioa bermatu beharko da, bai eta kalifikazio irizpideei buruzkoa ere. Informazio hori dagokion arlo edo ikasgaiko taldeen bitartez egingo da, Didaktika Departamentu bakoitzean dauden irakasleen bitartez, bai eta Ikastetxeko orientatzaileen bitartez ere. Tutoreak, behar izanez gero, informazio osagarria ere bilduko du, bere taldeko ikasleei emateko.

80. artikulua.- Ikasleei eta gurasoei informazioa ematea

- 1.- Ikastetxeak jario handiko komunikazio bide egonkorak ezarriko ditu ikasleekin eta hauen guraso edo legezko ordezkariekin ikaskuntza/irakaskuntza ekintzei eta, batez ere, eskola errendimenduari lotutako informazio guztietara irits daitezen.
- 2.- Tutorearen betekizunak alde batera utzi gabe, irakasle batek ere ezingo dio uko egin ikasleei edo hauen legezko ordezkariari aurreko atalean aipatutako alderdiei buruzko informazio guztia banaka emateari.
- 3.- Ikasleak ikasleen guraso edo legezko ordezkariekin bilerak aurreikusi beharko dituzte. Berauetan, goian aipatutako alderdiak jakinaraziko zaizkie, eta ikasle talde osoa euren haurraren non kokatzen den ere azalduko die. Zuzendaritza Taldeak, Ikastetxearen antolamendu orokorrerako dituen aukeren barruan, gutxienezko bilerak egiteaz gain, gomendagarri diren bilerak edo guraso kopuru jakin batek eskatutakoak egin daitezten ahalbidetuko du.
- 4.- Aurreko atalek aipatzen dituzten prozeduren bidez transmititu daitezkeen informazioaz gain, tutoreek ikasleen guraso edo legezko ordezkariari idatziz eta IKPan ebaluazio saioretarako gutxienez finkatzen den maiztasunaz, saio horietan erabakitakoaren berri emango zaie, eta beharrezko neurriak hartuko dira hartzaileek informazioa benetan jaso dutela ziurtatzeko.
- 5.- Era berean, ziklo edo ikasturteko amaierako ebaluazio saioretako emaitzari buruzko informazioa ere transmitituko da.
- 6.- Banandutako amak edo aitak, bere seme/alaben legezko zaintza eta babespea esleituta izan gabe, hauen ebaluazio prozesuaz informazioa jaso nahi badu, idatziz eskatu beharko dio Ikastetxeko Zuzendariari. Bertan, banantze, dibortzio edo ezereztapenaren epaiaren kopia frogagarria erantsi beharko du, edo, kasu bada, banantzearen ziurtagiri den notario-dokumentua, edo burutu gabeko prozesuetako behin-behineko neurriak hartzen direneko dokumentu judiziala. Ikastetxea zorrozki lotuko zaio dokumentu horietan adierazitakoari. Epaiak, edo dokumentu bidez hartutako neurriak, inguruabar honetaz adierazpenik izango ez balu, Ikastetxeak eman egin beharko dio eskola-errendimenduari buruzko informazioa ikaslearen zaintza ez duen gurasoari, beti-ere guraso-agintea ukatua ez badu. Ikastetxeak ez dio inolako informaziorik emango guraso-agintea kendu zaion bikotekideari, agindu judizialik ez badago behintzat.
- 7.- Baldin eta ikaslea adinez nagusia bada, ebaluazioari buruzko informazio guztia berarengana bideratuko da, euren gurasoei informazioa ematearen kaltetan izan gabe, baldin eta horrela eskatuko balute.

81. artikulua.- Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea

- 1.- Ikasleek eta, kasu bada, guraso edo legezko ordezkariak, eskubidea dute euren errendimenduari ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko, behin zuzenduta daudenean. Zuzenketa ez da adierazpen kualitatibo edo kuantitatibo batera mugatuko, egindako hutsegiteen adierazpena jasota etorriko da, edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua.
- 2.- Era berean, ikasleek edo legezko ordezkariak alegazioak aurkeztu ahalko dituzte eta burututako lan edo proben berrikusketa eskatu ere bai. Ikastetxeak jarraitu beharreko prozedura ezarriko du, eta berrikusketa hori burutuko deneko epea eta baldintzak adieraziko ditu. Kontuan hartu beharko da lotesleak direla irakaslearentzat Kurrikulu Ofizialak, IKPak, Didaktika departamentuen programazioak, ikasgelako programazioak eta jendaurreratutako irizpideak.

82. artikulua.- Kalifikazioak justifikatzen dituzten dokumentuak gordetzea

- 1.- Proba, lan eta ariketak ikusteko aukera ikasturtean zabalik egote aldera, irakasleek gorde egin beharko dituzte Ikastetxean ikasturte osoan zehar. Ikasturteko azken ebaluazioa, amaierakoa, erreklamazio epea amaitu eta beste hiru hilabete igaro arte gordeko dira.
- 2.- Epe hori agortuta, botatzeko edo ikasleei emateko aukera egongo da, beti-ere erreklamazioa egin

ebazpenari jarraituz kontuan hartu beharrekoak ez badira.

3.- Dena dela, erreklamazio bat konpontzeko kontuan hartzekoak izan daitezkeen ariketak edo dokumentuak gorde egin beharko dira horien gaineko administrazio-erabaki bat edo ekintza judizial bat egon daitezkeen bitartean.

83. artikulua.- Erreklamazioen prozedura zatikako ebaluazioetan

1.- Ikasleek ahoz edo idatziz egin ahalko dituzte irakaslearen aurrean ebaluazioaldi bakoitzari dagozkion kalifikazioen gaineko erreklamazioak, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez. Dagozkion irakasleak, era berean, ahoz edo idatziz eman beharko die erantzuna erreklamazioei, erreklamazioa nola aurkeztu den begiratuta.

2.- Erreklamazioa gaitzestekotan, ikasleek, idatziz edo ahoz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, Didaktika Departamentuaren esku-hartzea eskatu ahalko du. Proposatutako azterketa erabilitako programazioari doitzen zaion eta Departamentuak adostutako irizpideak aplikatu diren beiratu du soilik Didaktika Departamentuak, eta erreklamazio egileari jakinarazpena egingo dio, ahoz edo idatziz, erreklamazioa egin den era berean.

3.- Tarteko ebaluazioa izapide edo tramite hutsa denez, ez da horren kalifikazioaren osteko errekurtsorik egongo, nahiz eta irakasleak Mintegiaren irizpidearen aurka eutsi egiten badio ere. Hala ere, irizpide hori kontuan hartu beharko da amaierako ebaluazioaren kontra sor daitezkeen erreklamazioa konpondu behar izanez gero ere.

84. artikulua.- Erreklamazioen prozedura amaierako ebaluazioetan

1.- Ikasleek amaierako kalifikazioen aurkako erreklamazioa idatziz egin ahalko dute irakaslearen beraren aurrean, eta honek erabakia hartu eta jakinarazi egingo die, modu berean, ikasleei.

2.- Haren erabakiarekin ados ez badaude, Ikastetxeko Zuzendariari aurkeztu ahalko diote erreklamazioa, eta honek Didaktika Departamentuari egingo dio galde.

3.- Didaktika Departamentuak aztertu egingo du ea proposatutako gaiak egokitzen diren ikasgaiarekiko onetsitako programazioari eta adostutako irizpideak ondo aplikatu diren. Erabakiak irakasleak emandako kalifikazioarekin adostasuna edo desadostasuna adieraziko du, eta kontuan hartuak izango dira, kasua bada, zatikako ebaluazioei eginiko erreklamazioetan emandako txostenak.

4.- Departamentuak bere erabakia jakinaraziko dio Zuzendariari. Baldin eta erreklamaturako kalifikazioaren zuzenketaren aldekoa bada, Zuzendariak agindu egingo du dagozkion akta zuzendu dadin, eta ikasleari emango dio zuzenketaren berri. Ezezkoa bada, Zuzendariak ikasleari jakinarazi egingo dio, eta esango dio ondorengo erreklamazio bat ere aurkez dezakeela Hezkuntza Administrazioaren aurrean.

5.- Baldin eta irakasleak erreklamazio hori jartzen badu, Zuzendariak Lurralde Ordezkaritzara izapidetuko du, Departamentuaren txostenekin, erreklamazio gai izan den kalifikazioa jaso duten proba edo ariketen kopia batekin, kalifikazio bera jaso duten beste ikasle batzuen ikasle batzuen frogen kopiekin, eta eskatzen den kalifikazio jaso duten frogen kopiekin.

IV. KAPITULUA.- IKASTETXEAREN BARNE EBALUAZIOAZ. (AUTO-EBALUAZIOA)

85. artikulua.- Printzipio orokorrak

1.- Institutuak bere funtzionamendua ebaluatu egingo du bertan burutzen diren programa eta ekintza guztietan, eta ikasturte amaieran lortutako emaitzak ere bai.

2.- Gobernu organoek eta koordinazio pedagogikokoek, euren eskumenen arloan, barne ebaluazioa egin dadin sustatuko dute.

3.- Eskola Kontseiluak, ikasturtea amaitzean, ebaluatu egingo ditu Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) eta Urteko Programazio Orokorra, eskolaz kanpoko ekintzen eta osagarrien garapena, ikasleen eskola errendimenduaren bilakaera eta baliabideen kudeaketaren eragingarritasuna, eta, eginkizun horretan, errespetatu egingo ditu irakasleen klaustroaren eskumenekoak diren alderdiak.

Eskola Kontseiluak aholkua edo txostenak eskatu ahal izango dizkie gobernu organoek eta koordinazio pedagogikokoei, bai eta hezkuntza ikuskaritzari ere.

86. artikulua.- Kurrikulu Proiektuaren (IKP) Ebaluazioa

1.- Irakasle taldeak ebaluatu beharko du Ikastetxearen Kurrikulu Proiektua, hala etengabeko doiketa bermatuko baita ahalik eta eragingarriena izan dadin. Ebaluazio horren une, mekanismo edo inplikaturako pertsona edo organoen gaineko aurreikuspenak Kurrikulu Proiektuan bertan jasota geratuko dira.

2.- Zuzendaritza Taldeak edo, kasua bada, Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak izango du Ikastetxearen Kurrikulu Proiektuaren aldizkako ebaluazioa koordinatzeko funtzioa. Horretarako, bere analisi proposamena egingo du. Bertan, kontuan hartuko dira ikastetxeko Organo Elkargotuen iritziak, bai eta tutoreek, ikasleen ikasketaren ebaluazioaren emaitza gisa, adierazitako iritziak ere. Bestalde, Ikastetxearekin harremana duten kanpoko hezkuntza zerbitzuetatik jasotako informazio erabilgarriak ere hartu ahalko dira kontuan (Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzua eta Laguntza Zerbitzuak).

3.- Kurrikulu Proiektuaren ebaluazioa egiteko, hezkuntza jardunari egokitzen den ala ez eta ikasleen ikasketaren ebaluazioaren emaitzei begiratuko zaie. Ikuspegi hori hartuta, aurreko paragrafoak aipatzen duen analisi proposamenak ondorengo artean une jakin baterako proiektuaren alderdi egokienak irizten dituenak aukeratuko ditu, edo erabilgarrienak direnak helburuak ikasleen ezaugarriei egokitzeko: hizkuntza trataerari buruzko erabakien egokitasuna; edukien hautaketa, sekuentzia eta tempusen egokitasuna; definitutako metodologi neurrien egokitasuna; hautatutako kurrikulu materialen erabilgarritasuna; ebaluazio prozesu eta irizpideen baliotasuna; hartutako hezkuntza indargarrien eta kurrikulura egokitzeko neurrien egokitasuna; dibertsitatea lantzeko neurrien zuzentasuna; burututako tutore ekintzen irizpideen eragingarritasuna; Ikastetxearen baliabideen aprobetxamendua: ziklo desberdinetako irakasleen antolamendu eta koordinazioa.

4.- Ikastetxeko Kurrikulu Proiektuaren ebaluazio emaitzak hartu eta proiektu hau betetzea, edo aldaraztea ahalbidetuko duten mekanismoak jarriko dira abian; horretarako, Ikastetxeko Zuzendariak egoki diren neurriak hartuko ditu edo, kasua bada, organo elkargotuei helaraziko die euren eskumenen egikaritzean dagozkien neurriak har ditzaten, eta horren berri jasota geratuko da Ikastetxearen antolamenduari buruzko oinarritzko dokumenturen batean.

VI. TITULUA. BIZIKIDETZAREN ASALDATZEA. IKASLEEN JOKAERA HUTSEGITEAK

Bizikidetza balioa: Ikastetxean bizikidetza egokia egotea nahitaezko baldintza da Hezkuntza Komunitateko kideak apurka-apurka heltzen joan daitezen, batez ere ikasleak, baina gainerakoak ere bai; beraz, nahitaezkoa da ere ikastetxearen beraren izaera osatuko duten helburuak erdiesteko. Ikasleei aplikatuko zaizkien zuzenketak, beraz, bizikidetza eta Eskola Komunitate hori osatzen duten kolektibo guztien arteko elkarrenganako errespetua babesteko izango dira, bai eta prozesu horretan zuzenduak diren ikasleen integrazioarako ere.

Institutuko elkarbizitza denon leku eta instalazioekiko errespetuan oinarritzen da, batez ere gurekin elkarbizitzen diren irakasle, ikaskide eta institutoko langilegoarekiko errespetuan.

Institutoko lagun zein instalazioekiko errespetu falta edo begirunerik eza, ikastetxeko jokabide desegokitzat, bizikidetzaren aurkako jokabidezat edo bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidezat hartuko da gertakizun eta egoeraren arabera. Behin eta berriro huts egitea astungarritzat joko da.

87. artikulua.- Gogoeta orokorrak

1.- Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei buruzko 201/2008 Dekretuan xedatutakoaren kaltetan izan gabe, ikasleek ezingo dira zuzenduak izan bertan tipifikatu gabeko jokabide edo jokaerengatik.

2.- Ikasleei ezingo zaie hezkuntzarako duten eskubidea kendu eta, derrigorrezko hezkuntzaren kasuan, eskolatzeko duten eskubidea ere ez. Horretarako, Ikastetxea Hezkuntza Administrazioarekin lankidetzan arituko da, eta honek ikasle zuzenduari eskubide hauek benetakoak izan daitezen beharrezko diren bide eta neurriak jarriko dizkio.

3.- Inola ere ezingo dira ikasleen segurtasunaren eta duintasunaren aurka egiten duten zuzenketa neurririk jarri, ez eta oinarritzko eskubideen aurka egiten dutenak ere.

4.- Dekretu horretan aurreikusitako zuzenketek bizikidetzara doitzen ez diren jokabideekiko proportzionatuak izan beharko dute, eta azken helburua ikasleen hezkuntza prozesuari laguntzea izango da.

5.- Espedientea izapidetzeko edo zuzenketak ezartzeko organo eskudunek kontuan izan beharko dute ikasleen adina, euren eskola maila eta egoera pertsonal, familiar eta gizartekoa, instrukzioa aplikatu edo zuzenketa mailakatzean, hau aplikagarri den kasuetan. Era berean, ikaslearen guraso edo tutoreei, edo erakunde publiko ahaldunei, eskatu ahalko diete, zuzentzeko xede den jokabidea aldatzeko neurriak har ditzaten, horiek ere ikasleen jokabidean eragina dutela irizten bazaio.

6.- Zuzendaritzak zuzenketak, benetan, ezarritako moduan, betetzen direla zainduko du.

7.- Hezkuntza Komunitateko kideak orokorrean, eta irakasleak bereziki, Araudi honetan aurreikusitako bizikidetzaren aurka doazen jokabideen prebentzioan arreta berezia jarriko dute; horretarako, etengabeko kontaktu zuzena izango dute ikasleen gurasoekin edo legezko ordezkariekin eta lankidetzan arituko dira eurekin.

8.- Ikasleen aplikazioak dakiekeen balizko zuzenketek, beti ere, birgaitzaileak izan beharko dute, eta zuzenketa oro berriusgai izan daiteke, ikasleak ikasgelan edota Institutuan duen integrazio prozesua aldatu egin dela ikusiz gero. Bizikidetza Batzordea eta, azken burukoan, Eskola Kontseilua izango dira inposatutako zuzenketa osoaren edo zati baten balizko ezereztatzeari buruz erabaki ahalko dutenak.

9.- Bizikidetza Batzordeak ahalik eta gehien zehaztuko du ikasleen zuzenketen tipifikazioa (jokabide ezegokia, bizikidetzaren aurkakoa, bizikidetzarako larriki kaltegarria), gai honi buruzko araudi orokorrak aipatzen duen moduan. 2. eranskinean jasota daude arau hauek.

1. ERANSKINA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEAK EZARRITAKO PRINTZPIO OROKORRAK

3.2. ARTIKULUA

Euskal Eskola Publikoaren Legearen 3.2 artikulua Ikastetxeentzat ezarritako helburuak:

- a) Oztopoak ezabatuz, hezkuntzarako eskubidearen erabilera osoa bermatzea.
- b) Ikasleen izaera eta prestakuntzaren garapen askea sustatzea. Ikasleei bizikidetzat demokratikoa ahalbidetzen duten balioak ezarriz, zenbait aspektu sustatzea, besteak beste, gaitasun eta jarrera kritikoak, berdintasuna, justizia, parte hartzea, pluralismoari eta kontzientzia askatasunari errespetua, elkartasuna, kezka soziala, tolerantzia, elkarrenganako errespetua eta giza eskubideen defentsa.
- c) Zentroaren kudeaketan irakasle, guraso zein ikasleen parte-hartze demokratikorako eskubidearen erabilera sustatu eta bermatzea.
- d) Irakasleen katedra askatasunaren erabilera bermatzea, Euskal Eskola Publikoaren Legeak definitzen duen esparruan, guraso edo tutoreek zentroa aukeratzeko eskubidearen erabilera betea bermatzea eta, aurreikusitako baldintza legeletan, beren seme-alabarentzako nahi duten hezkuntza erlijiosoa aukeratzeko eskubidea errespetatzea.
- e) Irakasten diren edukien pedagogia-balioari eta erabiltzen diren metodoen eraginkortasunari arreta berezia eskainiz, kalitatezko hezkuntza ziurtatzea. Metodologia aktibo eta malguak erabiltzea, eta gure inguruan gertatzen ari diren aurrerapenak, irakasleen birziklatzea, ikasleen eskola zein lanbide orientazioa, eta orientazio psikologikoa kontuan hartuko dituen irakaskuntza eskaintzea.
- f) Maila, etapa, ziklo eta gradu guztietan jardutea, ikasleen jatorri ezberdintasunak orekatzeko.
- g) Baldintza beretan, ikasle orok, derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan, bi hizkuntza ofizialak ezagutuko dituela bermatzea, horretarako erabilera sustatuz eta euskararen normalizazioari laguntza emanez.
- h) Ikasleek, Euskal Herritar diren aldetik, beren kultura identitatea ezagutu dezaten erraztea, horretarako herriko berezko historia eta kultura irakatsiz eta ikasleak bere inguru geografiko, sozioekonomiko eta kulturean errotu daitezzen sustatuz.
- i) Jakintzaren esparru guztietan, ikasleek ohitura intelektualak, lan teknikak eta ezagutzak modu integraztzailean eskuratzeko gaitasuna garatzea.
- j) Bake eta askatasunerako prestakuntza, eta lankidetzat eta herrien arteko elkartasunaren ideien sustapena.
- k) Irakasten diren irakaspenen izaera ko-hezitzailera ziurtatzea.
- l) Irakaskuntzaren edukien manipulazioak eta doktrinamendu ideologikoa bilatzen duten ezagutzen irakaspenera baztertzea.

2. ERANSKINA

IKASLEEK BEREN BETEBEHARRAK EZ KONPLITZEAREN GAINEKO ARAUTEGIA (Gai honi buruz indarrean dagoen arautegia jasotzen dugu jarraian)

1.- Honako hauek dira bizikidetzarekin bat ez datozen jokoerak.

1.1.- Ikasleek betebeharrak ez konplitzeak gutxienez jokabide ezegoki bat izatea esan nahi du, bizikidetzaren kontrako edo bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide bat izan daiteke.

1.2.- Jokabide ezegokiak honako hauek dira:

- a) Errepikatzen ez diren justifikatu gabeko puntualtasun huts egiteak.
- b) Errepikatzen ez diren justifikatu gabeko asistentzia huts egiteak.
- c) Zentroko gelei, materialari edo Hezkuntza Komunitateko gainontzeko kideen objektu eta ondasunei berariaz egindako narriadura arinak.
- d) Hezkuntza Komunitateko kideen kontrako diziplinarik gabeko ekintza arinak eta iran edo laido arinak.
- e) Hezkuntza Komunitateko gainontzeko kideen kontrako eraso fisiko arinak.
- f) Zentroko jarduerak arinki oztopatzen dituen edozein justifikatu gabeko ekintza burutzea, banakakoa zein taldekoa.
- g) Zentroko Zuzendaritzak debekatutako ekipo, material, arropa edo gailuak eramatea.
- h) Zentroko gobernu organoen bizikidetzara arau edo argibideen kontra, baimendu gabeko pertsonen ikastetxean sartzen laguntzea edo beraiekin sartzea.

1.3- Honako hauek dira bizikidetzaren kontrako jokoerak:

- a) Hezkuntza Komunitateko kideen kontrako diziplinarik gabeko ekintzak eta iran edo laidoak.
- b) Hezkuntza Komunitateko gainontzeko kideen kontrako eraso fisikoak.
- c) Irakaskuntza bizitzako ekintzetan beste pertsona baten lekua hartzea eta eskola-agiriak faltsutu edo lapurtzea.
- d) Erabilera okerraren bidez, zentroko material edo dokumentuei zein Hezkuntza Komunitateko gainontzeko kideen ondasunei kalte larriak eragitea.
- e) Zentroko jarduerak larriki oztopatzen dituen edozein justifikatu gabeko ekintza burutzea, banakakoa zein taldekoa.
- f) Jokabide ezegokiak errepikatzea.
- g) Ordezkapen organo nagusiak hartutako erabaki ez betetzea.
- h) Gainontzekoen duintasun, intimitate eta norberaren irudirako eskubideak ez errespetatzea, haien edo haien legezko tutoreen baimenik gabe grabaketa euskarriak erabiltzea.
- i) Eskolako jantokiko ordena oztopatzen duten jokabide asaldariak, banakako zein taldekoak.
- j) Arraza, sexu, sexu joera, gorputz edo adimen gaitasuna, erlijioa, sinesmen edo ideologia arrazoiengatik egindako bereizkeria dakarren edozein ekintza edo jokoera.

1.4.- Honako hauek dira bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokoerak:

- a) Hezkuntza Komunitateko kideen kontrako diziplinarik gabeko ekintzak eta iran edo laidoak.
- b) Hezkuntza Komunitateko gainontzeko kideen kontrako eraso fisiko larriak.
- c) Zentroko Hezkuntza Komunitateko kideak osasunerako edo segurtasunerako kaltegarriak diren jokabideak burutzera bultzatzea.
- d) Zentroko lokal, material edo dokumentuei zein Hezkuntza Komunitateko gainontzeko kideen ondasunei kalte larriak eragitea.
- e) Bizikidetzaren kontrako jokabide gisa sailkatutako jokoerak, taldeka egiten badira edota berariaz publizitatea egiten badute.
- f) Bizikidetzaren kontrako jokoerak errepikatzea.
- g) Hezkuntza komunitateko edozein kiderentzat arriskutsuak diren egoerak sortzearen ondorioz, eskolako jantokiko ordena oztopatzen duten jokoerak izatea.
- h) Aldez aurretik borondate eza adierazi duen pertsona bati grabaketa egitea, edo guraso

edo legezko ordezkariaren borondatearen kontra.

- i) Sexu jazarpena, sexu arrazoiak direla eta pertsona bat kikiltzeko, iraintzeko edo umiliatzeko asmoz edozein ahozko, ez-ahozko portaera zein portaera fisiko gisa ulertuta.

2.- Bizikidetzarekin bat ez datozen jokaeren zuzenketa.

Aurreko artikuluan zerrendatutako jokaerak ahalik eta denbora laburrenean zuzendu beharko dira. Zuzentzeko neurriek zuzendu beharreko jokaerarekin erlazioa izan dezaten saiaturiko da, horrela, denboraren poderioz zuzendu beharreko jokaeraren ezinbesteko ondorio gisa ulertu ahal izateko. Honako zuzenketa hauek ezarri ahal izango dira:

2.1.- Jokaera ezegokien ondorioz:

Jokaera ezegokiak irakasleen eskutan zuzenduko dira, honako neurri bat edo gehiagoren bidez:

- a) Jokaera ezegoki jakin baten eta bere ondorioen gaineko hausnarketa.
- b) Kaltetu gertatu ahal izan diren pertsonen aurrean jokaera ezegokia izan dela onartzea.
- c) Jokaera egokien ereduak ikasteko eta barneratzeko ekintzak burutzea.
- d) Jokaera ezegokiarekin lotutako zereginen bat burutzea.

2.2.- Bizikidetzaren kontrako jokaeren ondorioz:

Bizikidetzaren kontrako jokaerak zuzentzeko, Zuzendariak, aurreko artikuluan zerrendatutako neurriez gain, honako neurri hauetako bat edo gehiago ezarri ahal izango ditu:

- a) Bizikidetzaren kontrako jokaera zehatz horren eta bere ondorioen gaineko hausnarketa eta berau birbideratzeko orientazioa.
- b) Ohartarazpen idatzia.
- c) Guraso edo legezko ordezkarien aurrean ohartarazpena.
- d) Ikaslea, behin behineko edo behin betiko, talde edo klasez aldatzea.
- e) Askoz jota hiru hilabeteko epean, lan hezitzaileak edo eragindako kalteak konpontzen lagunduko duten zereginak burutzea, eta, egokitzat joz gero, heziketa zentroko jardueren hobekuntza eta garapenari lagunduko dioten zereginak burutzea, betiere bizikidetzaren kontrako jokaerekin lotura badaukate.
- f) Guraso edo legezko ordezkariekin bilera egin arte, gehienez hiru egunetan, zentrora zein irakasgai batean edo gehiagotan klasera joateko eskubidea kentzea.
- g) Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeko eskubidea kentzea, gehienez zuzendu beharreko jokaera gertatu den hiruhilekoaren bukaera arte, edo eskola-hiruhilekoaren azken hilabetean gertatzekotan, hurrengo hiruhilekoaren bukaera arte.
- h) Ikastetxetik kanpo egingo diren ekintza osagarrietan parte hartzeko eskubidea kentzea, gehienez zuzendu beharreko jokaera gertatu den hiruhilekoaren bukaera arte, edo eskola-hiruhilekoaren azken hilabetean gertatzekotan, hurrengo hiruhilekoaren bukaera arte, betiere eskola orduetan ikasleari ikastetxean arreta eskainiko bazaio.
- i) Bizikidetzaren kontrako jokaera jantokian edo eskola garraio zerbitzuan gertatuz gero, zerbitzu horiek erabiltzeko eskubidea kentzea, gehienez zuzendu beharreko jokaera gertatu den hiruhilekoaren bukaera arte, edo eskola-hiruhilekoaren azken hilean gertatzekotan, hurrengo hiruhilekoaren bukaera arte.

2.3.- Ikastetxean bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokaeren ondorioz:

Bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokaerak zuzentzeko, Zuzendariak, aurreko artikuluan zerrendatutako neurriez gain, honako neurri hauetako bat edo gehiago ezarri ahal izango ditu:

- a) Gehienez sei hilabeteko epean, eskola orduetatik kanpo lan hezitzaileak egitea edo ikastetxeko jardueren hobekuntza eta garapenari lagunduko dioten zereginak burutzea, edo, egokitzat joz gero, eragindako kalte materialak konpontzea.
- b) Hiru eta hogeita egun bitarteko epean, ebaluazioa jarraitua galdu gabe, ikastetxera zein irakasgai batera edo gehiagotara joateko eskubidea kentzea, betiere zentroak izendatutako irakasleen kontrolpean ikasleak lan edo zeregin zehatzak beteko baditu.
- c) Ikasturte bukaera arte iraun dezakeen epean, eskolaz kanpoko jardueretan zein ikastetxetik kanpo burutuko diren ekintza osagarrietan parte hartzeko eskubidea kentzea, edo jantoki zerbitzua erabiltzeko eskubidea kentzea.

2.4.- Ikastetxez aldatzeko proposamena.

- a) Ikastetxean bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak errepikatzeagatik.
- b) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkion jokaera horrek parekoen arteko

tratu txarra edo sexu jazarpen egoera sortu edo jarraitzea eragiten duenean.

- c) Ikastetxeko irakasle bat erasotzen badu.
- d) Salbuespenetan, hezkuntza komunitateko beste kideren bat larriki erasotzen badu.

Ikastetxez aldatzeko proposamena Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari igorriko zaio, eta honek erabakiko du zer egin, Hezkuntzako Ikuskaritzak aurrez txostena eginda.

3.- Ardurak alda ditzaketen baldintzak.

3.1.- Honako hauek baldintza aringarritzat jotzen dira:

- a) Zuzendu beharreko jokaera berez onartzea.
- b) Jokaerak aurretiaz zuzendu gabe uztea.
- c) Materialei, altzariei edo eraikinei kalteak eraginez gero, eskola orduetatik kanpo berauek konpontzea edo prozedura zehaztu baino lehen berauek konpontzeko konpromisoa idatziz adieraztea.
- d) Publikoki barkamena eskatzea.
- e) Eragindako kalteak bezain kalte larriak eragiteko asmorik ez izatea.
- f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

3.2.- Honako hauek baldintza larrigarritzat jotzen dira:

- a) Lapurreta, eraso edo iraina adinez txikiagoa den, gutxitasunen bat duen edo ikastetxera heldu berri den inoren kontra egin bada, baita bestelako arrazoiengatik nagusitasun-jazarpenera ahalbidetzen duen edozein baldintzatan egin bada.
- b) Asmo txarrez egin baldin bada.
- c) Jakinaren gainean edo aurretiaz hitzartuta egitea.
- d) Taldean zuzendu beharreko jokaera osatzen duten ekintza edo hutsegiteak burutzera bultzatzea edo akuilatzea.
- e) Zuzendu beharreko jokaera dakarten ekintzak burutzeko orduan eskola-esparruan ordezkaritza karguaren gehiegizko erabilera.

3.3.- Baldintza aringarri edo larrigarri bat edo gehiagoren pilaketa kontuan hartuko da espedientea ebazteko orduan zuzenketa neurri zorrotzago edo arinagoak ezartzeko.

3.4.- Ikasleei ezar dakizkiekeen zuzenketa neurri posibleek errehabilitazio asmoa izan beharko dute beti, eta ikasleak izandako jarreraren arabera, zuzenketa oro berrikusteko aukera egongo da.

4.- Ikastetxe barrutitik kanpo egindako hutsegiteak.

Ikastetxe barrutitik kanpo egindako hutsegitearen batzordea ez da hemen aurkezten den Arautegia ezartzeko orduan oztopo izango, hutsegitea Zentroak programatutako jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoetan edo jantoki zein garraio zerbitzuetan gertatzen denean. Halaber, eskola jarduerarekin kausa-efektu harremana daukala egiaztatzen denean bakarrik ezarriko da.

5.- Zuzenketa neurriak ezartzeko prozedurak.

Lehenengo atala.- Xedapen orokorrak.

5.1.- Bestelako neurri batzuk erabiltzea ezinezkoa denean, beharrezkoa izango da bizikidetzaren kontrako zein bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokaerak zuzentzeko prozedura erregulatzailletako bat erabiltzea.

5.2.- Zuzenketa neurriak ezartzeko organo eskudunak.

- a) Ikastetxeko irakasle guztiek daukate eskumena ikasgelan eta bestelako zentroko zein zentrotik kanpoko instalazioetan beren zaintzapean dauden ikasleen jokaera ezegokiak berehala zuzentzeko.
- b) Bizikidetzaren kontrako zein bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokaera bat irakaslearen aurrean gertatzen bada, irakasle orok dauka ikasleari berehala kargu hartzeko eskumena, baita Zuzendaritzara zein ikasketa buruarengana bidaltzeko eskumena ere, pertsona zein gauzei kalte posibleak eragitea saihesteko berehala ezarri behar diren neurriei eragin gabe.
- c) Zuzendaritza izango da bizikidetzaren kontrako edo bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokaerak zuzentzeko organo eskuduna.
- d) Ordezkaritzarako organo nagusia edo Eskola Kontseilua izango da Dekretuak ezarritakoaren arabera Zuzendaritzak hartutako erabakiak berrikusiko dituena.

5.3.- Denbora igaro izanagatik prozedurei hasiera emateko debekua. Kasuak:

- a) Bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkion ekintza edo hutsegitea gertatu den

egunetik ehun eta hogeigun baino gehiago igaro direnean.

b) Bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkion ekintza edo hutsegitea gertatu den egunetik hirurogei egun baino gehiago igaro direnean.

c) Jokaera ezegokia eragin duten ekintza edo hutsegitea gertatu den egunetik hogeigun baino gehiago igaro direnean.

5.4.- Zuzenketa neurriak ezartzeko momentua.

a) Bizikidetzaren kontrako edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokaerak zuzentzeko neurriak hartu behar izanez gero, neurri horiek erreklamazio edo errekurtsioa aurkezteko epea bukatzen denean ezarriko dira.

b) Jokaera ezegokiak zuzentzeko neurriak ezarri behar izanez gero, neurriak erabakia hartu ondoren ezarriko dira.

5.5.- Ikastetxearen barruan ohartarazpen eta erreklamazioak egiteko modua eta epeak.

a) Jakinarazitako ekintza gertatu eta ondorengo lehendabiziko eskola-eguna bukatu baino lehen burutu beharko dira ohartarazpenak.

b) Erreklamazioak aurkezteko epea hiru eguneko izango da.

Hezkuntza komunitateko kideei egin beharreko ohartarazpen edo zitazioak hartzaileak jaso duela ziurtatuko duen edozein bitartekoren bidez egin ahal izango da.

5.6.- Datu pertsonalen trataera, babesa eta deuseztapena.

a) Zuzendutako jokaerei buruzko datuak dagokion ohiko zein ez-ohiko prozeduraren dokumentazioan bakarrik agertuko dira. Datuok ez dira zentroan behin betiko fitxategi edo erregistro batera ere igorriko, eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera, gorde eta aldi baterako beste ikastetxe batera bidaliko dira.

b) Edozein kasutan, bizikidetzaren kontrako jokaerei dagokienez, sortutako dokumentazioa prozedura gertatu den ikasturtea bukatutakoan suntsitu beharko da, eta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokaerei dagokienez, prozedura gertatu eta hurrengo ikasturtea bukatutakoan.

c) Prozeduraren tramite orotan nahasi diren pertsona guztien duintasun, intimitate eta norberaren irudirako eskubideen babesa zaindu beharko da, adin txikiko ikaslearenak batez ere.

5.7.- Erreklamazio eta errekurtsioak.

a) Zuzendariaren ebazpenaren kontra, Eskola Kontseiluan erreklamatu ahal izango da eta honek berrikusiko du.

b) Eskola Kontseiluaren erabakiaren kontra, dagokion Hezkuntzako Lurralde-ordezkarari aurkeztu ahal izango zaio erreklamazioa, jakinarazpena jaso den egunetik hiru egun balioduneko epean.

c) Erreklamazioaren gaitzespenaren kontra, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordeari.

6.- Zuzenketa neurriak ezartzeko prozedurak.

Bigarren atala.- Jokaera ezegokien zuzenketa.

6.1.- Jokaera ezegokien zuzenketa ahoz egingo da berehala, eta idatziz jasotzeko aukera egongo da.

6.2.- Idatziz jasotako jokaera ezegokiak pilatu ahal izango dira, baldin eta ezarritako zuzenketa neurriak eta familiari igorritako jakinarazpena ere idatziz jaso badira.

6.3.- Jokaera ezegokiei eta berauen zuzenketari dagokien idatzizko dokumentazioa ikasturtea bukatutakoan suntsituko da.

7.- Zuzenketa neurriak ezartzeko prozedurak.

Hirugarren atala.- Bizikidetzaren kontrako eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokaerak zuzentzeko ohiko prozedura.

7.1.- Ohiko prozeduraren erabilera

a) Zuzendu beharreko jokaeraren ekintza bera zein egilea nabarmenak direnean baino ez da ezarriko.

b) Prozedura hau ofizioz hasiko da, idatziz burutuko da eta gutxienez honakoak bete beharko ditu; ikaslea eta egokitzaileak joz gero, bere familia ere, bertan egotea, prozedurari amaiera emango dion ebazpena eta interesduneri idatzizko jakinarazpena.

8.- Zuzenketa neurriak ezartzeko prozedurak.

Laugarren atala.- Bizikidetzaren kontrako eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokoerak zuzentzeko ez-ohiko prozedura.

8.1.- Ez-ohiko prozeduraren ezarpena eskatzen duten kasuak.

- a) Zuzendu beharreko jokoera eragin duten ekintzak nabarmenak ez direnean, egilearen gaineko zalantzak daudenean eta zuzenketa aproposa erabakitzeko alderdi horiek aztertu behar direnean.
- b) Zuzenketa proposamenak ikastetxe aldaketa dakarrenean, ikastetxeko irakasle baten aurkako eraso izan denean, parekoen arteko tratu txar edo sexu jazarpen egoerak sortu edo mantendu direnean, edo ikasleak bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten ekintzak errepikatu dituztenean.
- c) Zuzendaritzak prozedura aproposena dela erabakitzen duenean.

8.2.- Ez-ohiko prozedurak honako fase hauek izango ditu:

- a) Hasierako egintza. Leporatutako jokoeraren deskribapena.
- b) Bideratzailearen izendapena.
- c) Hasierako egintzaren eta behin behineko neurri posibleen jakinarazpena.
- d) Bideratzailea ez onartzeko aukera.
- e) Bideratzailearen egintzak. Epaitzen den jokoeraren ezagutza eta egiaztapena. Ikasleak eskain dezakeen argudio, dokumentu eta bestelako elementuen azterketa.
- f) Bideratzaileak egotzitako jokoera edo egintzak delitu eta zigor zuzenbideko falta izan daitezkeela uste badu, fiskaltzari jakinarazpena.
- g) Entzunaldi izapiderako zitazioa.
- h) Entzunaldi izapidea.
- i) Espedientearen ebazpen proposamena eta jakinarazpena.

3. ERANSKINA

JANTOKIAREN GAINEKO ARAUTEGIA

- 1.- Jantokira garaiz helduko gara. Irakasleren batekin egoteagatik berandu helduz gero, haren ohar bat ekarri beharko da. Era berean, txangoren bat baldin badago, bi egun lehenago jakinarazi beharko zaio jantokiko arduradunari, jantoki zerbitzua egokiro antola dezan.
- 2.- Jantokiaren sarreran identifikatu egingo gara bertaratutakoen kontrola burutu ahal izateko.
- 3.- Edozein irakaslek, begirale edo jantokiko langilek emandako argibideak arretaz entzungo ditugu, gure tutorea izango balitz bezala.
- 4.- Langile arduradunengana zein zerbitzariengana eta gure kideengana zuzentzen garenean ahots tonua eta hitzak arretaz erabiliko ditugu.
- 5.- Jantoki orduetan ezin izango gara Ikastetxetik irten. Jolastokian edo begiraleek adierazitako lekuetan geratuko gara. Egunen baten irteteko premiarik izanez gero, gurasoen idatzizko baimena aurkeztu beharko da.
- 6.- Egokiro eseriko gara eta baxera zein mahaiko tresnak errespetatuko ditugu. Bukatutakoan mahaia ahalik eta garbien utziko dugu.
- 7.- Bazkaria eta eskolen hasiera bitarteko denboran zenbait jolas eskuragarri izango dituzte ikasleek. Jolas horiek erabili ahal izateko, materiala ondo erabiltzeko konpromisoa hartu beharko da. Horrela izan ezean, ezin izango dira erabili.

ZIGORRAK:

Goian adierazitako arauak bete ezean honako zigor hauek jaso ahal izango dira:

- Jantokia garbitzea.
- Behin behinean jantokian sartzeko baimenik ez izatea (gutxienez bi egunez, zigorraren arabera).
- Behin betiko jantokian sartzeko baimenik ez izatea.
- Justifikatu gabe jantokira behin eta berriro ez joateak jantoki zerbitzua erabiltzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

* **BESTE EDOZEIN BALDINTZARAKO AJAN XEDATUTAKOAK EZARRIKO DIRA**

OHARRA: Ez Unibertsitarioak diren diru laguntzen deialdiaren ebazpena agertu artean, aurreko urtean bekaduna izan zen ikasleak ez du jantokia ordainduko. Aitzitik, beka ematen ez badiote ordurarteko ordainketa egin beharko du ikasleak.

4. ERANSKINA

LIBURUTEGIAREN FUNTZIONAMENDUA

Liburutegia gure Zentroko gune kultural garrantzitsuenetako bat da, izan ere bertan ikasleen hezkuntza eta prestakuntzaren garapenari laguntzen dioten jarduera ezberdin ugari burutzen baitira, eta irakasleen laguntza ere eskaintzen da. Horregatik guztiagatik, guztiok errespetatu eta babestu behar ditugu Ikastetxe honetako eragile guztien artean hitzartutako arauak.

1. LIBURUTEGIAN EGITEN DIREN JARDUERAK

Liburutegiko heziketa gunea norbanakoaren lana burutzera zuzendua dago: Ikasteko, irakurtzeko, kontsultak egiteko, lan pertsonalak egiteko, eta abarrerako balio du. Ez taldeko lanak egiteko.

Zenbaitetan, eta egoerak eskatzen duenean, liburutegia bestelako jardueretarako ere erabil daiteke: klaseak, klaustroak, hitzaldiak, irakasle taldeen bilerak, eta abar. Hala eta guztiz ere, jarduera horiek eguneroko zerbitzuak oztopatu ez ditzaten saiaturako gara.

2. ORDUTEGIAK, ERABILERA ETA LIBURUTEGIAN IZAN BEHARREKO JARRERA

2.1. Ikasleentzako ordutegiak eta egonaldiak.

Liburutegia jolastordu guztietan zabalik egongo da eta ordu horietan burutuko dira liburuen mailegu eta itzultzeak. Denbora tarte horretan ikasleak askeki sartu ahal izango dira.

2.2. Isiltasuna

Isiltasuna lan egiteko ezinbesteko baldintza da, beraz, Liburutegian egon ahal izateko derrigorrez bete beharreko araua izango da hori.

Edozein arrazoi dela kausa informazioa eskatzeko, liburu bat ateratzeko, zer edo zer eskatzeko, eta abarretarako hitz egin behar baldin badugu, ahalik eta ahots baxuenean eta denbora laburrenean mintzatuko gara inori enbarazurik ez egiteko.

2.3. Liburuak eskuratzea

Liburu, aldizkari eta egunkariak eskuratzeko modua zuzena da. Hau da, irakurleek zuzenean har ditzakete, baldin eta irakurmena edo kontsulta bukatutakoan egon diren leku berean utziko badituzte.

Aldizkariak: Izenburua idatzita daukaten apalategietan antolatuta daude.

Egunkariak: Egunekoak irakaslearen ondoko mahai batean uzten dira. Gainontzekoak zenbait astez gordetzen dira, leihoen parean dagoen aldizkariak gordetzeko altzari batean.

Liburuak: Gaiaren arabera apalategietan antolatuta daude. Liburu bakoitzak etiketa bat darama (albo batean itsatsitako paper zuri bat) eta bertan kokaleku zehatza adierazita dago hiru zenbakiren bidez:

- **Lehenengoak apalategia** adierazten du, sartzeko atetik urrunen dagoen apalategitik hasita. Hori Euskararen apalategia da.
- **Bigarrenak apalaren zenbakia** adierazten du, zenbakiak lurretik hurbilen dagoen apaletik hasita.
- **Hirugarrenak apalaren barruan liburuak daukan orden zenbakia** adierazten du, ezkerretik hasita.

Aipatutako zenbakizko erreferentzia liburuaren lehen orrialdean ere ageri da.

Liburuak askeki eta zuzenean eskura daitezkeen arren, kontuan hartu behar dugu kontsultarako liburuak pilatzea debekatuta dagoela, horrela liburu horiek eskuratu nahi dituzten beste pertsona batzuen lana zailduko litzatekeelako. Hori dela eta, liburuan banan-banan hartuko dira, eta behin irakurrita edo kontsulta egin ondoren, hartu baino lehen zeuden toki berean utzi beharko dira.

3. ORDENA LIBURUTEGIAN

Gelako ordena eta lan baldintza onak mantentzeko ardura Liburutegia zaintzen duen irakaslearena izango da, Ikasketa Buruak ikasturte hasieran zehaztutako orduetan gutxienez.

Irakasle horren ardura nagusia Liburutegia erabiltzen duen edonork isilpean lan egiteko baldintza egokiak izan ditzan ziurtatzea da. Horregatik, inork isiltasun edo zuzentasun arauak errespetatzen ez baditu, arreta deitu beharko dio edota lekuz aldatu beharko du. Bere jarrera kaxkarrak jarraituz gero, liburutegitik bota ahal izango du eta bere datuak hartu ondoren (ikasleen kasuan izena, abizenak eta maila) Ikasketa Buruari jakinaraziko dio.

Gelatik kanporatua izan den pertsonak hutsegite bera errepikatzen baldin badu, Liburutegiko zerbitzuak erabiltzea galaraziko zaio denboraldi batez.

4. LIBURUTEGIAREN ARDURA

4.1. Liburutegiko arduraduna

Liburutegiaren ardura irakasle baten eskuetan egongo da, bere ordutegiaren zati bat liburutegiko zereginak egitera zuzendua izango duelarik. Zeregin horien artean, besteak beste, honako hauek sailka daitezke:

- Gelan burutuko diren jarduera ezberdinen kudeaketa.
- Liburuak erostea
- Argitalpenetan harpidetza egitea
- Liburuaren mailegu eta itzultzeen kudeaketa orokorra
- Liburutegian ordutegia betetzen duten irakasleen koordinazioa
- Mintegiak informatzeko bibliografia materialen sailkapena
- Idazketa eta komiki lehiaketak, irakurketa kanpainak, argitalpen berrien sustapena, liburuaren eguneko jarduerak eta abarrak antolatzea.

4.2. Liburutegian zaintza egiten duten eta bertan ordutegia duten irakasleak. Jolastorduetan

Irakasle honen lana ezinbestekoa da Liburutegi gelan lana isiltasun osoz egin ahal izateko.

Ordena mantentzearen arduraduna izango da, liburuak banan-banan har daitezzen begiratuko du eta dagozkien tokian uzten direla ziurtatuko du (gauza bera aldizkari eta egunkariekin), horretaz gainera, Liburutegiko arduradunak adierazitako lanak ere egin beharko ditu: Aldizkariak ordenatzea, materialak batzea, liburuak berreskuratzea, eta abar.

Maileguen ardura daukan irakaslea beherago 5.3. atalean (Maileguen funtzionamenduan) adierazten den bezala burutu beharko ditu maileguak, eta liburuak itzultzeko prozesua 7.3. atalean (Itzuleren funtzionamenduan) azaltzen den bezala egingo da.

5. LIBURU ETA IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALEN MAILEGUA

5.1. Mailegatu daitezkeen liburuak

Honako liburu hauek mailega daitezke:

- Testu liburuak
- Nobelak
- Biografiak
- Antzerkia
- Poesia
- Saiakerak (historikoak, literarioak, filosofikoak, zientifikoak, eta abar)
- VHS edo DVD formatuko filmak eta CD edo cassette formatuko musika.

5.2. Mailega ezin daitezkeen liburuak eta bestelako materialak

Honako hauek ezin dira mailegatu (kontsultarako baino ez dira):

- Hiztegiak
- Entziklopediak
- Obra orokorren liburukiak
- Atlasak
- Aldizkariak
- Egunkariak
- Urtekariak
- Heziketa Fisiko eta Kirolei buruzko liburuak

- Sexualitateari buruzko liburuak
- Mintegi Didaktiko bakoitzak ikasturtearen hasiera zein ikasturtean zehar zehaztutakoak.

OHARRA: Aurreko zerrendak ikasle zein irakasle edo irakasle ez diren langileei zuzenduta daude. Ikus-entzunezko materiala ez zaie ikasleei mailegatuko.

5.3. Maileguen funtzionamendua

5.3.1. Ikasleen kasuan

Ikasleentzako maileguak **jolastorduetan** burutuko dira, **zerbitzu honen ardura daukan irakaslearen eskutik**.

Behin ikasleak liburua aukeratu duela, maileguen ardura daukan irakaslearengana jo beharko du eta, maileguen liburu fitxa bikoitza beteko du bertan eskatzen zaizkion datuekin.

Fitxa bete ondoren, fitxaren zati bat abizenak alfabetikoki ordenatuta dauden fitxategian gordeko da, eta beste zatia liburuan gordeko da agiri gisa. Fitxa bikoitz horretan liburua hartu duen ikasleak eta mailegua egin duen irakasleak sinatu beharko dute.

Institutuan matrikulatuta dauden ikasleek baino ezin izango dituzte liburuak mailegatu, eta aldi bakoitzean liburu bakarra. Hartutakoa itzuli arte ez da beste liburuak mailegatuko.

Mailegu epea 15 egun naturalekoa izango da, eta beste 10 egun natural gehiago edukitzeko berrizatzeko aukera eskaintzen da. Mailegatutako liburua beste inork eskatu ez badu soilik berriztatu ahal izango da mailegua.

Ikasturtea bukatu aurretiko 15 egunetan ez da mailegurik egingo.

5.3.2. Irakasleen eta irakasle ez diren langileen kasuan

Liburutegiaren ordutegi osoan, liburuak maileguak momentu horretan Liburutegiko ardura daukan irakaslearen bitartez egingo dira, aipatutako fitxa sistema bera erabiliz eta bertan adierazitako epe eta ezaugarriak errespetatuz.

Film eta bestelako ikus-entzunezko materialen mailegua liburutegiaren arduradunaren bitartez baino ezin izango dira egin.

6. MAILEGATU EZIN DAITEZKEEN LIBURUAK NOIZBEHINKA LIBURUTEGITIK ATERATZEA

6.1. Ikasleen kasuan

Ikasleak fotokopiak egiteko Liburutegitik liburuaren bat atera behar duenean, liburua aukeratu beharko du, une horretan Liburutegiko ardura daukan irakaslearengana joan, eta Institutuko Txartela erakutsi ondoren, Irteeren Koadernoan honako datu hauek idatzi beharko ditu:

- Ikaslearen izen-abizenak
- Maila eta taldea
- Izenburua eta liburuaren egilea

Fotokopiak egin bezain laster, liburua itzuli beharko du, hartu duenean zegoen baldintza beretan.

6.2. Irakasleen eta irakasle ez diren langileen kasuan

Irakasle batek fotokopiak egiteko zein klasera eramateko Liburutegitik liburu bat atera behar duenean, une horretan Liburutegiko ardura duen irakasleari jakinarazi beharko dio, eta Irteeren Koadernoan honako datu hauek idatzi beharko ditu:

- Liburua ateratzen duen izen-abizenak
- Izenburua eta liburuaren egilea

Liburua klasera eramateko denean, honako hauek ere adierazi beharko ditu:

- Eskola emango duen ikasleen maila eta taldea

Datu hau interesgarria da, izan ere, liburu berbera erabili nahi duen beste irakasle bat egon baitaiteke eta beharbada liburu horren ale bakarra egongo da.

Irakasle ez diren langileek fotokopiak ateratzeko liburu bat behar baldin badute, Irteeren Koadernoan honako datu hauek idatziko dituzte:

- Liburua ateratzen duen pertsonaren izen-abizenak
- Izenburua eta liburuaren egilea

7. LIBURUAK ITZULTZEA

7.1. Liburuen egoera

Liburuak mailegatu zirenean zeuden baldintza fisiko beretan itzuli beharko dira. Liburuetan ezin izango da idatzi, azpimarratu, marraztu, eta abar.

Edozein arrazoi dela kausa liburu egoera txarrean itzuliz gero, liburuaren kostua ordaindu beharko da Liburutegian berriro jarri ahal izateko.

Une honetan, liburu batzuk ez daude egoera onean, hori dela eta, hondatuta dagoen liburu bat mailegatuta hartzen denean irakasleari jakinarazi beharko zaio, honek fitxan idatzi ahal izateko.

7.2. Atzerapenen ondorioz ezarritako zigorrak

Liburuak maileguaren fitxan adierazitako egunean itzuli behar dira, eta ezin dira epez kanpo itzuli. Kontuan hartu beharra dago liburu gutxi dauzkagula, batzuetan ale bakarra dagoela, eta beste pertsona batzuek ere liburu hori mailegatzeko interesa eduki dezaketela.

Liburu adierazitako epean itzultzen ez baldin bada eta liburu **20 eguez baino gehiago edukitzen baldin bada**, liburu hartu duen pertsonari hilabete batez libururik ez hartzeko zigorra ezarriko zaio. Liburu **hilabetez baino gehiago** edukiz gero, **mailegurik gabe geratuko da ikasturte osoan zehar**.

Edozein arrazoiren dela kausa liburu itzultzen ez bada, Liburutegiaren ardura daukan irakasleak liburu mailegatu duen pertsonari eskatuko dio, eta ez itzultzeari eusten badio, Liburutegiaren ardura daukan irakasleak Zuzendaritza Taldeari jakinaraziko dio eta honek liburu berreskuratzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

7.3. Itzultzeen funtzionamendua

7.3.1. Ikasleen kasuan

Ikasleek jolastorduetan itzuli beharko dizkiote liburuak liburutegiaren ardura daukan irakasleari, horretarako gelako atzeko aldean dagoen mahaiian utzi beharko dituzte.

7.3.2. Irakasleen eta irakasle ez diren langileen kasuan

Liburuak liburutegiaren ardura daukan irakaslearen bitartez itzuliko dira liburutegia zabalik dagoen edozein ordutan. Horretarako aurreko atalean ikasleek liburuak itzultzeko azalduko prozedura bera burutu beharko dute.

5. ERANSKINA

SEGURTASUN ETA HIGIENE ARAUAK

Institutuko segurtasun eta higiene arauak ikasturte bakoitzean berriztatu ahal izango ditu Ikastetxeko Segurtasun eta Higienarako arduradunak. Laguntzaileak ere eduki ahal izango ditu.

LAGUNTZAILEAK:

Laguntzaileak irakasle zein ikasleak izan ahalko dira, eta beren laguntza eskaini behar dute ebakuazio baten garapena positiboa izan dadin eta bukaera ona izan dezan.

Solairu bakoitzean laguntzaile talde bat egon ahal izango da. Larrialdi bat gertatzen denean, haiek emandako argibide eta agindu zehatzak onartu eta bete beharko dira berehala, ebakuazio positibo bat lortu ahal izateko.

Laguntzaileak Segurtasun eta Higienarako Batzordeak ezarriko duen besoko gorriak edota bestelako edozein bereizgarri ikusita identifikatu ahal izango dira.

Laguntzaileek eraikineko eta inguruko jolastokietako garbitasunaren alde ere egingo dute, eta horretarako ikasle boluntarioen artean txandakako garbiketa brigadak antolatu ahal izango dituzte.

NORBERAREN BABESERAKO ARAUAK:

Gutxieneko arau hauen behaketak Segurtasun arazoaren prebentzioari eragiteaz gain, sortutako arazoei aurre egiteko ebazpenei ere eragingo die.

1) Prebentzio arauak:

- Gogora ezazu erretzea debekatuta dagoela ikasgeletan, lokal teknikoetan, produktu toxikoak eta garbiketa produktuak biltzen diren guneeetan eta orokorrean AJAn zehaztutako toki guztietan.
- Ez itzazu material erregaiak su-hartze guneeetatik gertu pilatu.
- Materia arriskutsuak modu egokiak biltzen lagun ezazu (ahal dela produktu ez sukoiak erabiltzeari eman iezaiozu lehentasuna).
- Ez itzazu entxufeak aldi berean zenbait aparailurekin gainkargatu.
- Instalazioetan edozein huts baldin badago Komunika iezaiozu berehala Zuzendaritzari edo Mantentze lanen Zerbitzuari.

2) Arau orokorrak:

Ikasle eta irakasle guztiek ezagutu beharko dituzte honako hauek:

- Eraikuntzaren gunee guztiak, igarobideak, eskailera, pasilloak, larrialdietarako irteerak, eta oro har ebakuazioan erabiliko diren bide guztiak barne.
- Sua itzaltzeko baliabideen kokapena eta funtzionamendua (suteetako ur hartunea, su itzalgailuak, eta abar).

EBAKUAZIO PLANA. ARAU OROKORRAK.

- Megafonian EBAKUAZIO ABISUA entzuten denean (SIMULAZIOA izan daiteke), esandakoa egin ezazu eta bozgorailuetatik gune eta solairuak husteko emandako argibideak berehala bete itzazu.

- Ez oihukatu, ez korrikarik egin, arin joan zaitez.
- Ez iezaiozu beldurrari gailentzen utzi.

EBAKUAZIORAKO JARRAIBIDE OROKORRAK

Ebakuazioa burutzeko bete beharreko jarraibide orokorrak honako hauek dira:

- Alarmak edo ebakuazio-seinaleak jo bezain laster, pertsona orok bere lekuan geratu beharko du eta egiten ari dena bertan behera utziko du, ez du ezer batuko, ez gelatik ezta esekitokitik ere.
- Irteera modu ordenatuan eta banakako lerroan egingo dugu, hormaren aldamenetik joango gara, arin baina korrikarik egin gabe eta elkar kolpatu gabe.
- Leihoetatik hurbilen dauden ikasleek, atea ireki baino lehen, itxi egingo dituzte leihoak.
- Gelaz gela irteteko ordena bat ezarriko da eta ordena hori errespetatu egin beharko da.
- Inoiz ezin izango da atzera bueltatu.
- Oso garrantzitsua da ordena mantentzea eta isilik ibiltzea.
- Ikasleek irakasleen eta Guneko Buruzagiaren argibideak bete beharko dituzte, nork bere erabakiak hartu gabe.
- Urritasunen bat daukaten ikasleek irakasleak hautatutako ikaskideen laguntza jasoko dute.
- Kea egonez gero, ahalik eta makurtuen ibili beharko da, arnasbideak zapi heze batez estaliz.

OHARRA: Komenigarria da gela bakoitzeko ikasleei arau hauek irakurtzea.

GUNE EDO SOLAIRUKO ARDURADUNA

Ebakuazioa egin behar izanez gero, gela bakoitzari alarma abisua igortzearen arduradunak dira eta ebakuazioa burutzeko orduan laguntzeko ardura dauka.

Funtzioak:

- Seinaleak jotzen duenean, bere gune edo solairuko ikasgela guztiei abisua ematea.
- Ikasgelek irteteko jarraitu beharreko ordena zuzenduko du eta jarraitu beharreko bidea zein den adieraziko die.
- Bere gune edo solairua hutsik geratu dela egiaztatuko du, horretarako ikasgela eta komun guztietan begiratuko du.

- Ebakuazio arauen gaineko argibide guztiak betearaziko ditu, ondorengo dokumentuan agertzen direnak barne, eta ez du inork ez betetzerik utziko.
- Igogailua erabil dezaten galaraziko du.
- Behin solairua hustuta, gainontzeko solairuen ebakuazio prozesuan lagunduko du.
- Ebakuazioa bukatu ondoren, bilera tokira abiatuko da, ikasleak zenbatzen lagunduko du eta bertan ez daudenak bilatzeari ekingo dio.

IKASGELAKO IRAKASLEAK

- Beren ikasgelako ebakuazioa zuzenduko dute, lerroan eta ordena mantenduz.
- Ez diote inori hustutako ikasgelara objekturen baten bila bueltatzen utziko.
- Beren taldearekin kanpoko bilera tokiraino joango dira.
- Leihoak itxita geratzeaz arduratuko dira, azkenak irtengo dira eta ikasgelako atearak itxiko dituzte.

Ikasleak zenbatuko dituzte (ebakuazioa burutu ondoren) eta Guneko Buruzagiei jakinaraziko diete.